ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2010eko apirilaren 26a > Astelehena > VII. urtea > 274. zenbakia > 1,10 euro
Goiena 10 URTE www.goiena.net TOKIKOM



"Nahi duteneko eskaintzen diet nire burua Industrialdeko enpresaburuei"

**Fernando Narciso** Debagoieneko Industrialdeko gerentea > 08

**G2a** Jai jendetsua MUren Oñatiko fakultatean > 29

**ELGETA** Omenaldi hunkigarria 36ko Gerran bizia emandakoei > 06

**EUSKARA** Festa borobila, Jardunen 20 urtetako ibilbidea ospatzeko > 12

**KULTURA** Ganbara Txiki garaile, Torreviejako Habanera Lehiaketan > 31

**ELKARTASUNA** > 'IZEBA' PROIEKTUA

# Adin txikikoek eta sendiek egunotan ezagutuko dute elkar

**ARRASATEN** Lehen kontaktua lasaitasun giroan eman dadin, arduradunek erabaki dute Arrasateko zentroan izatea

**9 FAMILIA ETA 3 GAZTE** Debagoieneko 9 familiak eta Arrasateko zentroan bizi diren 3 gaztek eman dute izena

**HARREMAN NATURALA** Familia boluntarioak bakarrik dauden adin txikikoen harrera osaba-izeba izango dira > 03

**GERTAERAK** > SUTEA

## Oletako baserri bat kiskalita

Sua piztu zenean etxean zen pertsona bakarra onik atera zuten auzotarrek > 04

**MENDIA** > LASTERKETAK

## Becerra berriz ere eta Amilibia Aloñako proban garaile

1:14:00ko denbora egin zuen Walter Becerrak Oñatiko helmugan. Hasieratik menderatu zuen lasterketa venezuelarrak. Emakumezkoetan, Aiako Nerea Amilibia izan zen onena: 1:29:59. Oñatiar azkarrenak Arkaitz Letamendi eta Leire Altube izan ziren. Jende askok jarraitu zuen proba. > 24-25




**EKITALDIA** Arrasateko Biteri plazan egin zuten amaiera ekitaldia. Lurra eta ingurunea babestearen defentsa egin zuten. JOSETXO ARANTZABAL

## Ehunka lagun, AHTren kontrako martxan

'Lurra herrien etorkizuna, AHTrik ez!' leloapean, 500 pertsona inguruk parte hartu zuten atzoko mendi martxa nazionalean. Azpiegitura hori egiteko lanek Arrasate eta Aramaio artean eragindako kalteak ikusi eta lurra zaintzeak duen garrantzia azpimarratu zuten. Partaideek martxara ailegatzeko hainbat kontrol eta eragozpen gainditu behar izan zituzten > 04

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-06
**Auzoak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-27
**Kultura** > 29-33
**Sailkatuak** > 34-35
**Denbora-pasak** > 36
**Telebista-Irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39

Goiena kluba



Euskal Selekzioko zira opari. Nahi?
Zoaz 7. orrialdera

www.mondragon.edu/gep




MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
2010-2011
Ate irekiko jardunaldiak Arrasateko Goi Eskola Politeknikoan

Etorriko zarela jakinarazi!
943 71 21 91
e-mail : aarriaran@eps.mondragon.edu

| EGUNA | ORDUA | LEKUA | TITULUAK |
|---|---|---|---|
| apirilak 29 (osteguna) | 18:00 | Aula 5001 | • Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak<br>• Sareko Informatika Sistemen Administrazioa<br>• Fabrikazio Mekanikoko Diseinua<br>• Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa<br>• Industri Ekipoaren Mantenimendua |
| maiatzak 22 (larunbata) | 11:00 | Aula 5001 | |

HETEL Lanbide
Kontsulta pertsonalak: 943 71 21 91 • E-posta: aarriaran@eps.mondragon.edu




**Txomin Madina,** Goiena Telebistako kazetaria, Azkaraten zubisaltoa egin ondoren.

# Egin dugu salto

**Orain digitalera salto egin dugu:**

> **ELGETAN**

Goiena Telebista dagoeneko digitalean:
ELGETAN, OÑATIN, BERGARAN,
ARETXABALETAN, ESKORIATZAN,
ARRASATEN ETA LEINTZ GATZAGAN.

Laster digitalean:
ANTZUOLAN ETA ARAMAION.

Goitb
Goiena Telebista
*Ikustekoa!*

**ELKARTASUNA**> 'IZEBA' PROIEKTUA

# Adin txikikoak eta sendiak elkar ezagutzeko gertu, Arrasaten

**HARREMAN NATURALA** Boluntarioak bakarrik dauden atzerritarrendako harrera osaba-izeba izatea da helburua, eta harreman naturala sortzea

**ARRASATE LEHENA** Donostian dagoeneko funtzionamenduan badago ere, Gipuzkoan Arrasate izango da lehenengoa proiektua abian jartzen

**9 FAMILIA ETA 3 GAZTE** Debagoienean 9 familia daude gertu osaba-izeba lanak egiteko, eta Arrasateko zentroan bizi diren hiru gaztek eman dute izena


Familien eta adin txikikoen profilak antzekoak izateak elkarren arteko harremana errazten du. GOIENKARIA

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

Dena gertu dute. Datozen egunotan, *Izeba* proiektuan parte hartzen duten familia boluntarioen eta bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren arteko lehen kontaktua izango da, Arrasaten.

Gipuzkoako Diputazioak eta Baketik-ek martxan jarritako programa aitzindari horretako arduradun Jon Auzmendik azaldu digu egitasmoa dagoeneko funtzionamenduan dagoela Donostialdean, eta oso emaitza onak ari dela ematen. Horrekin batera, gaineratu du lurralde osora zabaltzeko egindako lanak lehen fruitua emango duela laster: "Arrasate izango da proiektua martxan jartzen duen Gipuzkoako lehen herria; datozen asteotan hasiko dira bi aldeen arteko kontaktuak". Arrasatekoaz gain, Azpeitia, Legorreta eta Urretxuko zentroetan dauden mutikoendako ere familiak topatu dituzte.

**ASTEAN BEHIN BATERA BAZKALDU**

Egitasmo horren izenak dioen moduan, helburua da familia boluntarioak hemen bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrendako harrera osaba-izeba izatea. Hala, besteak beste, astean behin familiarekin bazkaltzera edo txango batera gonbidatzea, telefonoz deitzea eta arazo pertsonalak edo administrazioarekin edo heziketarekin lotuta daudenak konpontzen laguntzea izango dira familia horien funtzioak.

Lehenik eta behin, zentroak dauden herrietan proiektuaren berri eman zen, interesatuak egon zitezkeen familiak topatzeko. Arrasaten azaroaren 18an egin zen bilera hori. Auzmendiren esanetan: "Baten batek Internet bidez edo telefonoz deitu badu ere, boluntario gehienak Baketik zentroko zuzendari Jonan Fernandezek eskainitako batzarretan lortu ditugu".

**DEBAGOIENEAN BEDERATZI FAMILIA**

Arrasaten bederatzi familiak aurkeztu dute euren burua. Gehienak arrasatearrak eta bergararrak badira ere, aramaioarrak ere badaude. Kopuruaren harira, arduradunak nabarmendu nahi izan du Debagoienean oso harrera ona izan duela programa horrek: "Arrasaten izan dugun erantzuna oso garrantzitsua izan da. Beste hainbat herritan arazo gehiago ditugu kopurua betetzeko. Jende askok, gainera, izena eman du jakin barik adin txikikoen zentroa Arrasaten bertan dagoela, eta, hortaz, mugitu egin beharko zutela pentsatzen zuten".

Familien profilari dagokionez, Auzmendik esan du "denetarik" dagoela: "Bikote gazteak, emakume bat, eta seme-alaba gazteak dituzten eta lan egiteko gertu dauden senar-emazteak, besteak beste. Ez dute profil zehatzik. Haiekin elkartu naizenean behin baino gehiagotan entzun dudana da zerbait egiteko beharra sentitzen dutela. Hori askotan entzun dut".

**MAROKOKO HIRU GAZTE**

Bestalde, adin txikikoak ere ez daude derrigortuta programa horren parte hartzera eta interesa dutenek izena eman behar izan dute. Arduradunaren esanetan, "gazteak ez daude derrigortuta programan parte hartzera; asmoa da bi aldeen arteko harreman naturala sortzea. Ez badute parte hartu nahi, ez da ezer gertatzen, eta, behin hasita, gustuko ez badute ere, bertan behera uzteko eskubidea dute. Haiek badakite gizartean ez daudela oso ondo ikusita, eta, hortaz, proiektuan izena eman aurretik, nola doan ikusi nahi dute. Konfiantza txikia dute". Arrasateko zentroan dauden zortzi mutikoetatik, hiru daude oraingoz horretan parte hartzeko gertu.

Gainerako herrietan ez bezala, bailaran bizi diren gazteak nagusiagoak dira, 14 eta 17 urte bitartekoak eta marokoarrak. Auzmendiren arabera, "oso pozik daude gazte horiek Arrasaten. Bizimodu normala dute, euren ikasketa eta zaletasunekin".

Arduradunak azaldu du gazte bakoitzak zein familiarekin egon behar duen erabakitzeko, bi aldeen profilak begiratu izan dituztela: "Adina eta familia kontuan hartu izan dugu: familia gaztea den, seme-alabak dituen, zaletasunak... Donostian, esaterako, gertatu zitzaigun gazte batek eta orain haren izeba denak arrantzan egitea gustuko zutela. Kontuan hartu behar dugu hasieran, behintzat, alde ludikoa oso garrantzitsua dela".

**ELKAR EZAGUTZEA, ZENTROAN**

Lehenengo kontaktu hori lasaiagoa izan dadin, gainera, programakoek erabaki dute Arrasateko zentroan egitea. Auzmendiren esanetan, "ez dute elkar ezagutzen, eta, hortaz, inportantea da gaztea ezagutzen duen toki baten egotea, zentroko arduradunarekin batera. Egoera berria da guztiendako eta oso urduri daude. Gazteei, normalean, euren bizitzaren gaineko gauzak erakustea gustatzen zaie; esaterako, argazkiak". Lehenengo hartu-eman horren ondotik, bakarrik disfrutatzen ikasiko dute.

ESANAK

**"Gazteak ez daude derrigortuta programan parte hartzera; asmoa da bi aldeen arteko erlazio naturala sortzea"**

**"Egoera berria da eta oso urduri daude; gazteei euren bizitzaren gaineko gauzak erakustea gustatzen zaie"**

**Jon Auzmendi** > Arduraduna

DATUA

**8**

**GAZTE**

Arrasateko zentroan zortzi gazte bizi dira; 14 eta 17 urte artekoak dira, Marokokoak. Bizimodu normala egiten dute, gustuko duten ikasketekin eta zaletasunekin. Hiruk eman dute izena *Izeba* proiektuan.

**AHT** > MENDI MARTXA NAZIONALA ARRASATE ETA ARAMAION

# 500 lagun baino gehiago AHTren lanak salatzeko mendi martxa nazionalean

'Lurra herrien etorkizuna, AHTrik ez!' lelopean, ehunka lagunek parte hartu zuen Arrasate eta Aramaio arteko mendi martxa nazionalean

**MAIDER ARREGI** > ARAMAIO

Kontrol eta eragozpen handiak jarri zituzten Eskoriatzan, Arrasaten, Zubillagan eta Gasteizen. Zarautzeko ordainlekuan, berriz, ordu eta erdiz geldirik izan zuten Iparraldetik zetorren autobusa. Hala ere, 500 lagun baino gehiago batu ziren mendi martxan.

Balorazio oso positiboa egin dute AHT gelditu! Elkarlaneko kideek: "Oztopoak izan ditugu baina azkenean Iparraldetik zetorren autobusak Zarauzko kontrola pasatzea lortu, eta Suñara justuan iritsi dira. Oso esanguratsua izan da mendi martxa; Euskal Herri osotik etorritako jende ezberdin askok hartu du parte eta hain zuzen ere, hori zen helburutariko bat. Jendeak AHTko lanak bertatik bertara ikustea nahi genuen. Ahoz aho zabaltzearen helburua bete dugu".

Joseba Gil EHNEko Gipuzkako kideak, Aramaioko Suña auzotik AHTko lanak ikustean, "pena eta amorrua" sentitzen zutela azaldu zuen: "Bailara suntsituta ikusteak pena ematen digu; baita amorrua ere, inposaketa bat delako eta herritarren iritzia ez delako errespetatu eta euren hitzaren gainetik obrak aurrera doazelako ondorio larriekin".



Markuleteko industrialdetik Aramaioko Suña auzora joan ziren ehunka lagun AHTko lanen egoera aztertuz. MAIDER ARREGI

ESANAK

**"Herriak indarra daukala argi geratu da. Antolatzen eta lanean jarraitu beharra daukagu hau salatzeko"**

**Asier Agirre** > Aramaioko alkatea

Abiadura Handiko Trena Euskal Herrian inoiz egin den obra handi eta garestiena dela ere gogorarazi zuen EHNEko ordezkariak. "Gutxi batzuen mesede eta interesendako izango da eta denon diruz, diru publikoaz egingo dute gainera". Nekazaritza indartsu eta osasuntsua lortu nahi dutela azaldu zuen Gilek: "Progresu honi barrikada, frenoa jarri nahi diogu nekazaritza bultzatuz. Horretarako, egungo nekazariei laguntza eman behar diegu euren produktuak erosiz eta nekazari gazteei baserrietan instalatzen lagunduz; AHT moduko proiektuak frenatzeko bidea da zalantza gabe".

**HERRIAREN HITZA**

Aramaioko alkateak Asier Agirrek, Euskal Herri osotik mobilizatu izana eskertu zuen: "Herriak indarra daukala argi geratu da, baina hitza errespetatu egin behar da. Aramaioko herri kontsultan ez dute errespetatu eta ikusten dugu antolatzen eta salatzen jarraitu behar dugula honi aurre egiteko". Lanean jarraitzeko deia egin zuen Agirrek. Iparraldeko AHTren aurkako koordinaketako, CADeko, arduradunak 20 urte lanean daramatzala azaldu zigun. "Iparraldeko jendeak ez daki zenbateraino ko kalteak eragingo dituen horrelako egitasmo batek. Lekukotasun bat ekarri nahi nuen kalteak zuzenean bizitzeko". Iparraldeko lurrak eta orografia oso antzekoak izanik, kalteak ere antzerakoak izango direla azpimarratu zuen CADeko arduradunak.

Biteri plazan egin zuten amaiera ekitaldia. Bertan, AHT gelditu! Elkarlaneko kideek zabaldutako mezuan, gizakiak naturari egindako kalteak eta lurrarekiko errespetu falta azpimarratu zituzten. Datozen hilabeteetarako ere antolatu dituzte ekintzak: Nafarroan, maiatzaren 8an, egun osoko ekintzak egingo dituzte; ekainean, Gasteizen, lanok hiriburuetan eragindako ondorioez eta espekulazio arazoez jardungo dute.

**GERTAERAK** > SUTEA

## Sute batek kiskalita utzi du Aramaioko Oleta auzoko Obena baserria

Auzotarrek onik atera dute sua piztu den momentuan barruan zegoen 90 urteko emakumea; kalte materialak handiak dira

**GOIATZ ARANA** > ARAMAIO

Zapatu goizean piztu zen sua. Suhiltzaileek orduak eman zituzten hura itzaltzeko lanean, baina baserria kiskalita geratu da. Bertan bizi diren sei lagunetatik bakarra zegoen etxean sua piztu zen momentuan –90 urteko emakume bat– eta onik atera ahal izan zuten bizilagunek. Kalte materialak, aldiz, izugarriak dira, nahiz eta goiz den oraindik zenbaki zehatz bat emateko.



Sutearen ondorioz, teilatu barik geratu da Obena baserria. JON IÑAKI ISAZELAIA

Hipotesi nagusia da tximinian piztu zela sua eta handik etxe osora zabaldu: teilatupe berean dauden bizitokira eta kortara. XVII. mendeko baserria da Obena, egurrezko egituraduna.

Oletako auzotarrek bilera egin zuten atzo eguerdian bertan, kaltetuei nola lagundu eta horrelako gertaerak nola saihestu aztertzeko. Ia baserri denetako ordezkariak batu ziren.





Elixabete Garitano, ArcelorMittaleko bulegoan. MIREIA BIKUÑA

**Elixabete Garitano** > Giza Baliabideetako arduraduna

# "Emakunderen saria errekonozimendua eta konpromisoa da guretzako"

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

**Bergarako ArcelorMittal berdintasunaren aldeko erakunde laguntzaile izendatu du Emakundek. 2008an hasita berdintasun plana egin dute, eta laster martxan jarriko dute. Giza Baliabideetako arduradun Elixabete Garitanorekin egin dugu berba.**

**Zer da zuendako halako saria jasotzea?**

Bergarako ArcelorMittalendako errekonozimendu bat da. Bi urtean lan astuna egin dugu. Baina, era berean, saria konpromisoa da guretako. Erakutsi dugu berdintasunarekin sentsibilizatuta gaudela eta gaiak arduratzen gaituela.

**Noiz erabaki zenuten berdintasun plana egitea?**

2008an hasi ginen. Aurrez, enpresako Giza Arloak berdintasunaren aldeko apustuia egiteko proposamena egina zuen. Zuzendaritzan pentsatu genuen posible eta zentzuzkoa zela, eta, nolabait, gure enpresak inguratzen duen gizartearekin duen konpromisoa adierazteko beste proiektu bat zela.

Ondoren, Emakunderen webgunean sartu eta halako planak egiteko jarraitu beharreko prozesua zein zen aztertu genuen. Webgunean bertan halako lanetan espezialduak diren aholkularitzen zerrenda dute. Haietako batekin hartu-emanetan jarri, eta lanean hasi ginen.

Legeak, eta, beraz, Emakundek zehazten dituen pausoak jarraitu ditugu: lehen-lehenik enpresaren diagnostikoa egiten lagundu ziguten, eta ondoren berdintasun plana osatu genuen. Plana hasi eta Emakunderi aurkeztu arte, bi urteko lana egin dugu.

**Emakundek plaka bat eman dizue. Ze onura ekarriko dizue?**

Plaka baino gehiago ikurra da inportantea. Ikur horrek erakusten du berdintasunaren alde gaudela. Adibidez, lanpostu bat kaleratzen dugunean, ikur horrekin emakumeak erakar ditzakegu. Egia da siderurgian langile gehienak gizonezkoak direla, baina gurean, behintzat, emakumeendako tokia badugu.

**Berdintasun plana egin ondoren, bidearen zatirik zailena duzue aurretik?**

Baietz esango nuke. Plana egin dugu eta martxan jartzeari ekin diogu, baina hura jorratzeko guztien laguntza beharko dugu. Gainera, ez da erraza, askotan oso barneratuak dauzkagun akatsak aldatu behar ditugu-eta; adibidez, berdintasun planaren ezaugarrietako bat hizkuntza neutroa erabiltzea da, batez ere gaztelania erabiltzen dugunean, eta askotan zaila gertatzen da horretaz jabetzea.

Dena den, lan astunena egin ondoren, enpresak erronka bat gehiago moduan hartzen du planarekin jarraitzea.

**Langileek parte hartu dute planaren eraketan?**

Bai. Aholkulariek diagnosia egiteko haien iritzia ezagutu zuten lehenengo. Horretarako, inkesta eta elkarrizketa batzuk egin zituzten. Gainera, enpresako emakumeei elkarrizketa bereziak egin zizkieten.

**Gustura daude langileak berdintasun plana egiteko enpresak hartutako erabakiarekin?**

Gehienak bai, eta inkestetan euren iritzia argi eta garbi azaldu zuten. Dena den, plana hasi genuenetik gaur arte, krisiagatik, asko aldatu da egoera. Enpresak aldaketa asko izan ditu. Baina bai, langile gehienak gustura daude.

**Zenbat lagunek parte hartu duzue planaren eraketan?**

Giza Baliabide eta Prebentzio Saileko langileok egin dugu, gehienbat, txostenen prestaketa, eta aholkularitzakoekin hartu-eman zuzena izan dugu. Gainera, enpresako komitekoek talde bat sortu zuten zuzenean euren iritzia emateko eta ekarpenak egiteko.

Duda barik, guztion artean egindakoa da, eta horregatik guztiagatik oso pozik gaude.

> **"Jaso dugun sariak erakusten du berdintasunaren alde gaudela"**

> **"Plana martxan jartzeko guztion laguntza beharko dugu, baina egingo dugu"**

> **"Enpresaren diagnosia egiteko langileei iritzia eskatu zieten aholkularitzakoek"**

---

etxeko leihotik


**Iker Barandiaran** > 'ibarandiaran@goiena.com'

## 'Karpetoen' tokikotzea, guztion esku dago

Ni bizi naizen etxeko leihotik ez da gaztetxerik ikusten. Baina ibarrean badira batzuk eta horietatik Arrasatekoa ospakizunetan murgilduta dago orain. Urteurreneko egitarau zabala ikusita, bitxia iruditu zait Arrasaten bizi diren kanpoko ikasleei tarte bat eman izana *Karpeto eguna* izenpean, horretarako Arrasaten aspaldi jarri zitzaien deitura erabilita. Bitxia eta pozgarria iruditu zait, nik Arrasaten bizi izandakoaren arabera ikasleen eta herritarren artean ez delako orokorrean hartu-eman handirik izaten.

Horren harira, orain dela hilabete batzuk MUn sortutako Muittu ekimenaren berri izan nuen. MUren barruan antolatzen diren mota askotako ekimen estra-akademikoen bateratze eta biderkatzea ditu helburu horrek. Eta herritarrak unibertsitateko ekimenetara erakartzeko zailtasuna ere nabarmendu zuten.

> **"MUko ikasleen eta herritarren artean hartu-eman txikia egon ohi da"**

Gaiari ekarpen bat egin guran, gogora ekarri nahiko nuke EHUko Arabako Campusean azken urteotan Kultur Campus programa abiarazten dutela. Martxotik ekainera bitartean astero rock kontzertuak, antzezlanak eta film emanaldiak egiten dituzte, doan. Tartean artista ezagunak baliatuta, unibertsitate kanpoko jende asko erakartzen dute, propaganda egoki batek lagunduta. MUk ere antzeko ahalegin bat egin dezakeela uste dut; eta oso positiboa litzateke ikasle zein bestelako herritarrendako.

**> 'Krisi bolkanikoa' esamoldea entzun diot astean pertsona bati Gasteizen. Hegaldiak bertan behera uzteak arazoak sorrarazi ditu, baina inor arduratu da sumenditik hurbil bizi diren Islandiako biztanleez? Nortasun krisia izango dute honezkero.**

**> Ika-mika handia piztu da egunotan ikastetxeetan biktimen testigantzak jaso gura dituztelako. Askorendako gakoa da biolentzia guztiak ez direla aintzat hartuko, eta azalpenak norabide bakarrekoak izango direla; asko dago oraindik zehazteko.**

---

**ELIZA** > OSPAKIZUNA

## Osasun pastoraltzaren gaineko hitzaldia eguenean

**M.B.** > OÑATI

Osasun pastoraltzak antolatuta hainbat ekimen egingo dituzte datozen egunotan. Debagoieneko ekimenak Arrasaten egingo dituzte.

Eguenean, hilaren 29an, hitzaldia egingo dute, 17:00etan, San Andresko kristau elkartean. Osasun pastoraltzaren inguruan jardungo dute Sor Trinidad Korta mesedeetako ahizpak eta Horacio Argarate apaizak. Deialdia herritar guztiei egin diete antolatzaileek, eta hitzaldian parte hartzera gonbidatu dituzte.

**GAIXOEN OLIODURA**

Bestalde, maiatzaren 9an, ibarreko gaixoendako ekitaldi berezia egingo dute; hain zuzen ere, Gaixoen Pazko Eguna ospatuko dute. Debagoieneko eliza guztietan gaixoen oliodura sakramentuaren ospakizunak egingo dituzte, eta elizkizun bereziak egingo dituzte gaixoendako.

Osasun pastoraltza Gipuzkoako elizetan lantzen hasi zela 25 urte bete dira, eta hori ospatzeko eta osasun pastoraltza bultzatzeko ekitaldi bereziak antolatu dituzte lurralde osoan.



Hainbat lagunek Asentziotik Intxortako Aterainoko ibilalditxoa egin zuten frontean hildakoak omenduz. IBAN ARANTZABAL

**OMENALDIA** > 36KO GERRA ZIBILEAN HILDAKOEI

# Omenaldi hunkigarria 36ko frontean bizia emandakoei

Maiatza bukaeran zabalduko dute Espaloia antzokian Interpretazio zentroa

**MAIDER ARREGI** > ELGETA

Apirilaren 24a egun seinalatua da Elgetako historian eta baita, elgetarrendako ere. Hain zuzen ere, egun horretan, 1936ko Gerran, makina bat elgetarrek bizia eman zuten eta beste asko gogor erasotuak izan ziren. Hala, herritarrek, lagunek eta senitartekoek, frontean eroritakoei omenaldia egiten diete. Hainbat lagunek egin zuen atzo Asentziotik Intxortako Aterainoko ibilaldia ikurrinaz, eta, CNTko eta Errepublikako banderak astinduz. Tartean, Oxel Erostarbe Elgetako alkatea eta Julia Monje, Arrasateko Zutikeko zinegotzia.

**LORE ESKAINTZA HUNKIGARRIA**

Bi lore eskaintza egin zituzten ibilbidean barrena: bata Salbadorreko monumentuan, eta bestea, Intxortako Atean. Omenaldi hunkigarri hau borobiltzeko baina, maiatzean, ofizialki inauguratuko dituzte Espaloia Kafe Antzokian jarriko duten Interpretazio zentroa eta Intxortako ibilbide tematikoa.

**HARRERA GUNEA MAIATZEAN**

Maiatza bukaeran inauguratuko da Interpretazio zentroa. Bertan, trintxeren erreprodukzioa eta argazkiak izango dira ikusgai, besteak beste. Intxortako Aterainoko ibilbide tematikoa ere prest izango dute.

Horrez gain, Espaloiko harrera gunean, proiektu garrantzitsua jarriko dute martxan, *Izen guztiak aurpegi guztiak* lelopean. Hala, herritarrei zein 36ko Gerrako materiala izan dezaketen guztiei deia egin diete: etxean garai hartako materialik edukiz gero, eta erakusketan ikusgai ipintzea gura izanez gero, eurekin harremanetan jartzeko eskatu dute ekimen honetan diharduten arduradunek.

> GENERO INDARKERIA

## 27 urteko gizonezko bat atxilotu dute Bergaran

Eguen gauean jazo zen gertaera. Hamaikak pasatxo zirenean, bergarar batek Ertzaintzara deitu zuen, bizilagun baten etxean oihuak eta negar hotsak entzuten zituela, eta norbait erasoren bat jasaten ari zen susmoa zuela esanez. Bertaratutako agenteek lepoan eta bularrean gorriuneak zituen emakume bat aurkitu zuten, eta senarrak tratu txarra eman ziola onartu zuen.

Ustezko erasotzaileak 27 urte ditu. Segituan atxilotu zuten ertzainek eta, behin polizia eginbideak bukatuta, epailearen aurrera eraman zuten.

> ISTRIPUA

## Txirrindulari batek oinezko bat harrapatu du Urkulun

Atzo, domeka, 10:20ean gertatu zen istripua, Aretxabaletan. Urkulu inguruan zebilen txirrindulari talde bateko kideetako batek, bizikletarekin, paseoan zebilen oinezko bat jo eta lurrera bota zuen. Erorketaren ondorioz, gizonezkoak buruan hartu zuen kolpea eta Gasteizko Santiago Ospitalera eraman zuten Ertzaintzaren helikoptero baten, denbora galtzea saihesteko. Zaurititako gizonezkoa arrasatearra da eta 80 urte ditu. Ertzaintzatik ez digute haren osasun egoeraren gaineko informaziorik eman; pronostikoak erreserbatua izaten jarraitzen zuen atzo, domeka, edizioa ixterakoan.

**LANA** > ALDARRIKAPENAK

# LABek salatu du presioa areagotu dela krisi garaian

Lan Osasunaren Nazioarteko egunaren eta Langileen Egunaren harira, aldarrikapenak

**M.MANIAS/ A.EZKIBEL** > ARRASATE

Debagoieneko LAB sindikatuak datozen egunetan ospatuko diren Lan Osasunaren Nazioarteko Egunaren eta Langileen Egunaren harira hainbat aldarrikapen plazaratu ditu. Horien berri eman zuten joan den egubakoitzean Kulturaten egindako prentsaurrekoan.

LAB sindikatuak salatu du krisi egoera honetan langileekiko presioa areagotu egin dela, eta lan istripuak gutxitu badira, hori langabezia tasa altuagatik eta erregulazio espedienteen ondorioz izan dela. Prentsaurrekoan esan zuten "prekaritatea, malgutasuna, kaleratze masiboak, azpikontratazioak eta arau bihurtu den behin-behinekotasuna" gainditzea dela egoera honekin amaitzeko modu bakarra.

**ANTSIETATEAK GORA**

Lan osasunean gutxi inbertitzen dela adierazi du LAB sindikatuak, eta gaineratu du egungo egoera ekonomikoan langileek presio psikologiko handiak jasaten dituztela. Osasunari dagokionez, digestioarekin eta loarekin lotutako gaitzek gora egin dutela salatu dute eta baita antsietate edo depresio arazoekin lotutako kontsultek ere.

Lan Osasunaren Nazioarteko Egunerako, hilaren 28rako –eguaztena–, elkarretaratzea deitu dute Bergaran.




Kulturaten egindako prentsaurrekoa. MIREN MANIAS

**MAIATZAK 1**

Langileen Eguna ere aldarrikapen eguna izango da sindikatuarendako; LABen aldarrikapena izango da, besteak beste, krisi ekonomikoari aurre egiteko aberastasuna hobeto banatzea.

LABeko ordezkari Jose Ramon Kortabarriak esan zuen: "Dena da negozioa sistema honetan: babes soziala, hezkuntza, osasuna, zerbitzu publikoak, pentsioak… Botere ekonomikoaren krisia gainditzeko langileon krisia larriagotu eta betikotzeko asmo osoa daukate". Horri aurre egiteko, aberastasunaren "banaketa justuaren printzipioa" aldarrikatu zuten.

auzorik auzo

**MATXAIN** > Aramaioko auzoa da Matxain. Baserri auzoa den arren, erdialdean dago, kalean bertan. Alde batetik, Arrasaterekin egiten du muga Matxain auzoak; eta bestetik, Aramaioko Barajuen auzoarekin. Auzo-alkatearekin izan gara.



Martin Etxabe, auzoan; atzean, auzoko baserrietako bat. ARANTZAZU EZKIBEL

**Martin Etxabe** > Matxain auzoko auzo-alkatea

# "Auzoko errepidea oso estua da eta zabaltzeko premia izugarria dauka"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARAMAIO

**Azkeneko urteetan behera egin du biztanle kopuruak Matxain auzoan. Martin Etxabe auzo-alkateak dio etxeak utzik geratuko ote diren beldur direla. Harekin izan gara, beldur horiez eta beste zenbait kezkaz berba egiten.**

**Azal egiguzu non kokatzen den Matxain auzoa.**

Erdialdean dagoen auzoa da Matxain. Cuatrovientos baserriak Gipuzkoarekin egiten du muga; eta beste aldera Barajuen auzoarekin egiten dugu muga.

**Biztanle kopuruak behera egin du azkenaldian. Baserriak hutsik geratuko diren beldur zarete?**

Gero eta jende gutxiago dago; lehen sei lagun inguru egoten ziren etxe bakoitzean, eta orain bi edo hiru. Poliki-poliki etxeak hutsik geratzen dabiltza.

**Zuen ustez, zein da auzoak duen arazo larriena?**

Adibidez, arazoetako bat errepidea da. Ikusten denez, oso bide estua da eta zabaltzeko premia dauka. Behin baino gehiagotan eskatu izan dugu errepidea zabaltzea, baina beti esan izan digute ez dagoela dirurik.

Autoa apur bat zabala baldin bada gaizki ibiltzen da hemendik pasatzeko. Hormaren kontra jo izan dute behin baino gehiagotan autoek; ez dira ikusten, baina horman harriak irtenda daude.

**Euri asko egiten duenean arazoak izaten dituzue urarekin.**

Negu partean euri asko egiten duenean, goitik behera datorren urak gainezka egiten du. Ura doan bidea zikina dago harriekin eta lokatzarekin.

**Auzoko saneamendua herrikoarekin batera egin zen?**

Herriko saneamendua egin zenean hemen ere egin genuen. Azkeneko baserria baino pixka bat beherago dago putzu septikoa; herri guztiarena da, eta auzokoek ere hara botatzen ditugu ur zikinak.

**Auzoko baserri bat eraberritzen dabiltza arazoak dituzten gaztetxoendako. Zer iritzi duzue?**

Gu horren aurka gaude. Lehen ere egon zen horrelako etxe bat, eta ondoko bizilagunak nahiko beldurtuta egoten ziren. Baina ez dugu erabakirik hartu horren gainean, ezta kexurik jarri ere.

**Ez dituzue auzoko jaiak ospatzen?**

Ez, auzoan ez daukagu jaiak ospatzeko ohiturarik. Gainera, esan behar da ermitarik ere ez dugula. Herriko jaiak ospatzen ditugu!

**Badago ikusteko moduko ezer auzoan?**

Garai baten, errota bat egon zen auzoan; gaur egun, bizilagun batena da, Montero etxean dago errota.

**Mendi ibilaldiak egiteko moduko toki egokia da Matxain?**

Alde batera aldapa gogorra dago; hortaz, hor ez da jende askorik ibiltzen. Handik Cuatrovientos baserrira eta Tellamendira joan daiteke. Beste aldera, ostera, Barajuen aldera paseo polita egin daiteke.

**"Ez ditugu auzoko jaiak ospatzen; esan behar da ermitarik ere ez dugula auzoan"**

DATUA

**13**

**BASERRI**

Auzo txikia da Matxain; denera, 13 baserri besterik ez daude. Goiko partean bost baserri; eta behean, Aramaio errekaren ertzean ia, beste guztiak. Herriko plazan behera doan kalea da Matxain.

Abantailaz betetako kluba!
Goiena kluba
**APIRILEKO ZOZKETA**
Telefonoa: **943 25 05 05**
e-posta: ***kluba@goiena.com***
Kuota: **45 euro**

**SASKIBALOIRAKO SARRERAK**
Bidali KLUBA SARRERAK [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.
LAGUN ARO SAN SEBASTIAN GIPUZKOA BASKET


**ESAIT-EKO TERMIKO BERDEA ETA BISERA**
Bidali KLUBA ESAIT [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.
esait


**UMEENTZAKO PUZZLEAK**
Bidali KLUBA PUZZLEA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.
Ikastolen Elkartea


**EUSKAL SELEKZIOKO ZIRA**
Bidali KLUBA ZIRA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.
EKFB Euskal Selekzioa


**SARI NAGUSIA APIRILA-EKAINA**
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
**GAU BAT TXOPEBENTA LANDETXEAN**

• Tel. 94 625 49 23 / 629 45 50 79
• Basetxeta Auzoa. Gautegiz-Arteaga (Bizkaia)
• *www.nekatur.net/txopebenta*
• *www.toprural.com*
**Maiatzean 20 urte beteko ditugu; Estatuko lehenengoak izan ginen.**

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *kluba@goiena.com*

Debagoieneko Industrialdeak antolatuta, *Bezeroak lokalizatu eta negozio aukerak sortu* izeneko jardunaldia egin da asteon. Gaur egungo egoera dela-eta bezeroari duen garrantzia ematea beharrezkotzat jotzen du bertako gerente berri Fernando Narcisok. Horrela, baliabide ekonomiko eta pentsatzeko astia hartu beharraren gainean aritu ziren parte-hartzaileak.

**Fernando Narciso** > Debagoieneko Industrialdeko gerentea

# "Nahi dutenerako eskaintzen diet nire burua Industrialdeko enpresaburuei"

**NEREA MENOR** > ARETXABALETA

**Fernando Narciso Debagoieneko Industrialdeko gerentea dugu, joan den urte amaiera ezkero. Bere gidaritzapean, Debagoieneko Industrialdeak antolatutako lehenengo jardunaldiak egin dira asteon eta garrantzitsutzat jo du horietan jorratutako gaien gaineko informazioa helaraztea.**



Fernando Narciso, Debagoieneko Industrialdeko gerentea, bere bulegoan. NEREA MENOR

**Eguaztenean egin zenituzten *Bezeroak lokalizatu eta negozio aukerak sortu* izeneko jardunaldiak.**

Bai, eta oso harro gaude lortutakoarekin. Berez, 100 enpresak eman zuten izena. 10:00etan aretoaren %95 beteta zegoen, 80 enpresari inguru bildu ziren bertan. Gure enpresentzako ere onuragarria da beste batzuen ideiak eta esperientziak ezagutzea, nahiz eta ezinbestekoa den nork bere buruari eragin eta berezko irudimena izatea.

**Zaila dirudi, lanegun baten, enpresaburuek goiza jardunaldi batzuei eskaini ahal izateak.**

Oso zaila da. Enpresari batek horrenbeste ordu honetan ematen baditu, informazioa benetan behar duelako izango da. Nik lau hilabete daramatzat gerente moduan eta ez genuen argi informazioa elkarbanatzeko gogorik zegoen edo ez. Garai honetan industrialdeek zerbait gehiago eskaini behar dute. Enpresa txiki eta ertainen bitartekariak izango gara, haiek ere laguntza planak jasotzeko laguntza lanak egingo ditugu.

**Zer jorratu zenuten bertan?**

Lehenengo, aipatu beharra dago Debagoieneko Industrialdeak lantzen dituen kontzeptuetatik kanpoko ekimena izan dela. Gaur egungo egoera dela-eta, bezeroaren gaia garrantzitsua dela uste dugu. Lehiakortasuna denon ahotan dago azkenaldian, baina enpresaburuen sostengua, baita enpresa guztiarena ere, bezeroa da hein handi baten.

**Horren harira, ondo moldatu dira Debagoieneko enpresak?**

Ibarreko industriak Debagoieneko enpresa sustatzaileen alboan egon izan dira beti. Hala ere, haiei ere heldu zaie krisi garaia eta aldatzeko beharra. Bezero berriak bilatu behar dira, baina nola? Arazoak daude. Enpresa txikia izanez gero, pare bat pertsona egongo dira jardun horretan eta inguruan bilatuko dute. Kanpoko bezeroengana heltzeko baliabide ekonomikoak behar dira eta guztiek ez dituzte; hala ere, badaude enpresa batzuk gastu txikiagoarekin gisa honetako bezeroak aurkitu ditzaketenak.

**Eta horren gaineko informazioa eskaini diezue ikusleei?**

Horren gaineko informazioa helarazi diegu bailarako enpresari ekintzaileei. Informazioaren garrantziaz jabetzea nahi dugu; horrela, bezero potentzial kopuru polita lortzeko aukerak gehituz. Uste dut lan garrantzitsua egin dugula, webgune txiki bat egin genuen jardunaldietako informazio guztia azalduz; posta elektronikoaren bitartez eta telefonoz ere abisatu genuen.

**Zein izan da helarazi nahi izan duzuen mezu nagusia?**

Pentsatzeko astia hartu behar dela. Behin eguneroko estresa alde batera utzi eta gero, guregana datorren informazio guztia hartu eta gurekin bat egiten duena baliatu beharko dugu. Hura gure enpresa ikusteko erara egokitu daiteke edo ez, baina mezua jasotzea da garrantzitsuena. Behin hori egin eta gero, hartu beharko ditugu erabakiak. Ondo pentsatu eta gero abiarazi proiektua; ez duzu hutsik egingo benetan sinesten duzulako.

**Zergatik izan daitezke interesgarriak bertako enpresentzat horrelako gaiak?**

Inguru komertzialetik nator ni. Egunero ibiltzen nintzen bezero berriak lortzeko borrokan eta badakit zer den bezeroarenganaino heldu eta gure helburuak lortzeko baliabide ekonomiko nahikorik ez izatea aurrera egiteko. Orduan, pentsatzen hasi eta komenigarria iruditu zitzaidan gure ingururako.

**Duela gutxi hasi zara gerente lanetan. Ondo ikusten duzu zure burua?**

Bost hilabete daramatzat dagoeneko. Egun hauetan 30 erreklamazio jaso ditut eta irtenbide egokia ematen saiatu naiz, gure errua izan den kasuetan, hala izan dela onartuz. Aktibitate handiko hilabeteak izan dira. Horretaz aparte, jendeak erreakzionatu egin dudala ikusi du, gauzak egiten ditudala. Ez naiz atzerapenekin ibili, egin beharrekoa egiten dut momentuan eta esan beharreko guztiak esaten ditut.

**Hemendik aurrera ze proiektu edo helburu dituzu?**

Orain hasi eta urte bukaera arte Markuleteko komertzializazioa lortzen saiatuko gara. Planifikazio helburuak ere baditut. Debagoieneko Industrialdearen helburua enpresariak dira. Haien alboan egongo naiz eta erantzunak emango dizkiet ahal dudan guztietan. Nire burua nahi dutenerako eskaintzen diet, edozertarako. Eskatzen didaten hori nire esku badago, lagundu egingo diet.

JARDUNALDIAK

**"Oso harro gaude lortutakoarekin: 80 enpresari inguru bildu ziren eguaztenean"**

BEZEROA

**"Enpresarien sostengua, baita enpresa guztiarena ere, bezeroa da"**

MARKULETE

**"Urte bukaera arte Markuleteko komertzializazioa lortzen saiatuko gara"**


Carrefour
GORBEIA
2. unitatea
-%70ean
EL MOLINO DE BERTÍN
Oliba-olio birjina estra
Litro 1
Botila 1 erosita
3,50€
2. unitatea -%70ean
1,05€
TRES REINOS jatorri-izen kalifikatua duen Errioxako ardoa
75 cl
Botila 1 erosita
2,50€
2. unitatea -%70ean
0,75€
LOZOYA
Erreserbako serrano urdaiazpikoa
Urrezko etiketa
Piezak 6,5 Kg gutxi gora behera
Pieza 1 erosita
59€
Kiloa 9,08€ gutxi gora behera
2. unitatea -%70ean
17,70€
Kiloa 2,72€ gutxi gora behera
(Urdaiazpiko-ohola ez dago barne)
Nahi duzun moduan Konbinatu
Uretako zuekoak, emakume, gizon edo haurrentzat
Unitate 1 erosita
8,90€
2. unitatea -%70ean
2,67€
DODOT Activity
Pixoihal kaxa
4-10 Kg 108 unitateko packa (1),
9-15 Kg 96 unitateko packa (2) edo
13-18 Kg 80 unitateko packa (3)
2. unitatea -%70ean
Pack 1 erosita
24,65€
(1) Pixoihala 0,23€
(2) Pixoihala 0,26€
(3) Pixoihala 0,31€
7,40€
(1) Pixoihala 0,07€
(2) Pixoihala 0,08€
(3) Pixoihala 0,09€
Nahi duzun moduan Konbinatu
Apirilaren 22tik maiatzaren 12ra
Etorri DOAN Carrefour-era
AP-1 autobideko bidesaria ordainduko dizugu 60€-tik gorako erosketagatik
Eman bizitza zure loratediari
Akazia egurrezko 6 piezako jokoa +
Carrefour Home kuxinak
Honako hauek ditu:
• 2 plazako sofa 130x76x86 cm
• 2 besaulki 70x76x86 cm
• Oin-aulkia 70x51x40 cm
• Mahai karratua 51x51x56 cm
• Mahai lauki luzea 61x101x46 cm
359€
Laster
zure hipermerkatua 24 orduz zabalik
www.carrefour.es webgunean
Baita Arrasate, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Aramaion ere.
Prezio hauek Carrefour GORBEIArako bakarrik balio dute
Maiatzaren 5a arte

## kale inkesta

# Urriaren 25a jaiegun ofiziala izango da EAEn, PSE-EEk eta PPk hala erabakita. Zer iruditzen?



**Sabas Igartua**
Erretiratua
Bergara

Egia esan, politika kontuei ez diet jaramon handirik egiten. Baina hori alde batera utzita, ez zait iruditzen hartutako erabakia txarra denik.Uste dut ondo dagoela Gernikako Estatutuaren urtemuga ospatzea.



**Felix Unamuno**
Erretiratua
Bergara

Eta nork ospatuko du? Hori da nire galdera. Ni behintzat ez nago horren alde, jai hori ez delako gurea, kanpokoa baizik. Jubilatuta egonik, egunero dut jai, baita egun horretan ere, baina ez dut ospatuko, ez horixe!



**Begoña Ugarte**
Erretiratua
Bergara

PSE-EEk eta PPk jai izatea bahi badute, hemen ez dugu halakorik behar! Ez dut ikusten zer ospatu behar dugun adostasun barik. Politika kontuak jarraitzen ditut, baina honen gaineko berririk ez nuen.



**Begoña Zabaleta**
Langilea
Bergara

Ez dut gustuko kontu horietan sartzea, baina kontuan izanik kontsentsu barik hartutako erabaki bat dela, esan beharrean nago ez nagoela ados. Horrela ez dira gauzak ondo egiten, adostasuna beharrezkoa da.

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

ARRASATE
**> Zomorroak, ospitale inguruko etxebizitzetan**

Kezkatuta deitu digu Arrasateko bizilagun batek. Aprendices kalean saihesbide aldera ematen duten etxeetako baten bizi da eta zera esan digu: "Aste honetan, bero dezente egin du astelehen eta martitzenean eta etxea zomorroz bete zaigu hainbat bizilaguni. Zerrajerako depositua zena urez beteta eta oso zikin dago. Uste dugu handik etorri zaizkigula zomorroak eta alboko etxeetara ere zabaltzen ari dira. Irtenbide bat nahi dugu".

BERGARA
**> Ekintza ugari izan dira asteburuan herrian**

Bergarako emakume bat pozik hurbildu zaigu erredakziora: "Asteburuan ekintza asko egon dira herrian –Jardunen 20. urteurreneko ospakizunak, II. Musika Moderno Lehiaketa...– eta horrek erakusten du Bergara bizi-bizirik dagoela", esan digu.

### ZUZENKETA

ASTELEHENEKO GOIENKARIAren 272. zenbakian, 4. orrian, esaten zen Aramaioko alkatearen aldeko mozio bat onartu zutela EAJ eta EAren aurkako botoekin. Baina informazio hori ez da zuzena, bi alderdi horiek ez zutelako kontra bozkatu; abstenitu egin ziren.

## usteak uste

**Arantzazu Ezkibel**

# Zer entzun, hura esan

Debagoieneko futbol zelai batean izan nintzen zapatuan eta zale gaztetxo batzuen ondoan jarri nintzen. Euren taldea animatzen pasa zuten partidu guztia, kantuan. Galtzen joan arren, animatu egiten zuten. Baina, esan behar dut, jarrera batzuk ez zirela izan harro egotekoak.

*Hijo de puta, cabron, imbecil…* horrelako perlak entzun nituen. Baina, pentsatzen jarrita, eurek asmatutakoak ez dira esaten dituztenak! Nagusiei entzundakoak dira, gehienak. Zapatuan nagusiei ere entzun nizkien, eta seguru zuek ere entzungo dituzuela kirol ekitaldietan izaten zaretenean. Hortaz, zer esaten dugun neurtu beharko genuke; eta, kirola, kirola bakarrik dela kontuan hartu. Gainera, gaztelera erabiltzen zuten gaztetxo zaleek haserrea adierazteko. Euskaraz ezin al da haserretu, ala?

## zorroztailea



**Elena Laka**

# Elkarrekin bizitzeko plana

"La polémica (en ocasiones, sobredimensionada) que en las últimas semanas se ha generado en torno al Plan de Convivencia Democrática y Deslegitimación de la Violencia hacen obligada una explicación de por qué queremos sacar adelante esta iniciativa y qué es lo que le diferencia de la anterior."

**Patxi Lopez**
patxilopez.com > 2010-04-24.




Errege Borboia paperean irakurtzen dituen diskurtso luze hutsetan mintzatzen da; Aita Santua, latinezko izenburua daukaten entzikliketan; ETA, esaldi subordinatuz betetako esaldi amaigabeko komunikatuetan; eta Patxi Lopez, berak idazten duela sinestarazi nahi digun gaztelera hutsezko blog osatu batean.

Aitortzeko moduko perbertsioen artean daukat horiei guztiei irakurraldi bat ematea. Noizean behin, gehiegikeria bizioa da. Horrela jakin nuen zapatuan, Patxi Lopezen blogaren bidez, hiru zutoineko plana dela diseinatutakoa ikastetxeetan aplikatzeko: elkarbizitza demokratikoaren sustapena, biktimen oinarrizko papera indarkeriaren deslegitimazioan, eta euskal gizartearen deslegitimazioa indarkeriaren aurkako borrokan.

Irudipena daukat hezkuntzan ezarri nahi duten Elkarbizitza Demokratikorako eta Indarkeria Deslegitimatzeko Plan honetan ez ote diren larregi ematu. Ez ote duten, kosta ala kosta, bandera bat sortu finean ikur hutsean geratzeko.

> **"Plan honetan larregi ematu diren irudipena daukat "**
>
> **"Jipoitutako inor ikasgelatik pasa gabe ikasi genuen"**

Zeren, bat: martxoko Ikastola aldizkarian irakurri nuen James S. Colemanek duela 46 urte egindako ikerketa: gazte batek lortzen dituen emaitzen gainean, eskolak %20-25eko erantzukizuna baino ez dauka. Estatu Espainiarrean eragina txikiagoa omen da oraindik, %15.

Zeren, bi: nik ezagutzen ditudan ikastetxeen helburuen artean dau-de ikasleak giza baloretan heztea, elkarrekin bizitzeko, eta berdintasunerako eta aniztasunerako heziketa.

Zeren, hiru: besteok ere balore horietan hezi gintuzten, ikastolan nahiz etxean, indarkeriaren kontrako jarreran. Ikasi genuen, kasu, inor jipoitzea ez zela zilegi, horretarako jipoitutakorik ikasgelatik pasa ez bazen ere.

Zeren, lau: ikasi genuen etxean, eta ikasi genuen ikastolan, eta gero gauzak entzun genituen, eta hasi ginen irakurtzen, eta inguruan begiratzen eta adi egoten. Eta ikasitakoaren ondoren, eta batez ere, ikusitakoaren ondoren, ekin genion norbere iritzia eratzeari, ez baitago eginez erakusten dena baino ikasgai hoberik. Ekin bekio Jaurlaritzak elkarrekin demokrazian bizi izateari eta indarkeriari zilegitasuna kentzeari, berak ekin, eta ikusiko du Lehendakariak nola eskola-ume eta ikasleek, berari jarrai.

**Goienkaria**

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonooa • 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Asteburuko erredakzioaren arduraduna** Goiatz Arana **Erredakzioa** Arantzazu Ezkibel, Maider Arregi eta Mirari Altube **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Oxel Arrieta eta Imanol Soriano **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

**Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria**

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

# Herriak

**Arrasate** > 14 **Bergara** > 16 **Oñati**> 18 **Aretxabaleta** > 19 **Eskoriatza** > 19
**Antzuola** > 20 **Aramaio** > 20 **Elgeta** > 20 **Leintz Gatzaga** > 20



**> ARRASATE**
Kooperatibistek lehentasuna izango dute Gelmako etxebizitzak erosterako orduan **> 14**



**> OÑATI**
Badatoz auzoetako jaiak; aste bukaera honetan izango dira lehenak, Olabarrietan **> 18**



**> ESKORIATZA**
Langile-borrokaren ikur Dolores Ibarruriren argazkiak ikusgai Ibarraundi museoan **> 19**

**ANTZUOLA** > AZPIEGITURAK

# Herriko baserrietara ura eroateko lanak maiatzean hasiko dituzte

**UR DEPOSITUA**
Lizarraga auzoan egingo dute depositua eta Abaroa iturritik hartuko dute ura

**UR SAREA**
Lehen faseko lanokin sareari ekingo diote; ur arazoa dutenek lehentasuna dute



Lizarraga auzo ingurua. Ur depositua bertan kokatuko dute Antzuolako baserrietara ura bideratzeko. GOIATZ ARANA

**MIRARI ALTUBE** > ANTZUOLA

Ur depositu berria eraikitzeko lanak dagoeneko esleitu ditu Antzuolako Udalak. Tolosako Etxaide eraikuntza enpresak egingo ditu eta maiatzarekin batera hasiko dituzte. Lanok, ondo bidean, lau hilabetetan bukatuta izango dira eta Udalak aurreikusi du irailerako gertu izango dela depositua. Estatuko gobernuak hitzartutako E-planaren bigarren dirulaguntzari esker egingo du eta 192.551 euro bideratu dituzte horretara. Depositu horri esker, herriko baserri guztiek izango dute tratatutako ura hartzeko aukera. Hori horrela, "Udalarendako garrantzizko proiektua" dela onartu du Pedro Iturbe alkateak.

**LIZARRAGAKO ABAROA ITURRIA**

Antzuolako baserrien ur eta saneamendu egoeraren gaineko diagnostikoa egin zuten 2007an eta hurrengo urtean proiektua. E-planaren dirulaguntzak proiektu hori abian jartzeko aukera eman dio Udalari eta lehen faseko lanak egingo dituzte orain: depositua eraiki, ura hartu eta baserrietara joango den sarea egiten hasi. Lizarraga auzoan egingo dute ur depositua eta 200 metro kubiko izango ditu. Abaroa iturriko ura hartuko dute horretarako, segundoan litro eta erdi ematen duen iturria.

Aretxabaletako Urkulu urtegiko ura iristen da Antzuolako etxeetara, baina ez baserrietara. Herri inguruko baserri batzuek jasotzen dute ur hori, baina gehienek norberaren iturburua daukate. Jose Mari Iturbe Ingurumen zinegotziak jakinarazi du ur arazo larririk ez daukatela baserritarrek orain artean, baina aurrera begira hobekuntzak egin gura dituztela: "Lehorte sasoietan batzuei ura murrizten zaie, baina gainerakoetan ez dago arazorik. Hala ere, iturburuetako ur horiek tratamendurik bakoak dira eta batzuetan instalakuntzak ere ez dira batere egokiak".

Hori jakinik, arriskuak alboratu gura dituzte eta hobekuntzak egin bai instalakuntzetan, bai uraren kalitatean: "Edateko ur ona bideratuko da sarearen bitartez baserrietara, tratamendua jasotakoa eta beharrezko kontrolak pasatutakoa".

**UR SAREAREN HASIERA**

Behin depositua egindakoan, baserrietara joango den sareari ekingo diote baina hasiera besterik ez dute egingo: "Dirulaguntza horrekin sarea hasi baino ez dugu egingo, baina asmoa da gero jarraipena ematea", dio Iturbek. Hala, lehentasuna izango dute ur arazoak izaten dituztenek eta interesa daukatenek: "Baserritar batzuek badute interesa; beste batzuk, ostera, konforme daude orain daukatenarekin. Behar bada, lehen fase honetan ezingo diegu erantzun interesa duten guztiei, baina asmoa da denbora gehiegi pasatu aurretik baserri guztiei ematea aukera ur hori hartzeko", gaineratu du Iturbek.

Sare horrek, gainera, badu berezitasun bat: lehengo trenbidea izango du ardatz auzo batetik bestera pasatzeko. Sarea zabaltzen joango den heinean jabe askoren lurretatik pasatuko dira ur hodiak baina ez dute traba askorik sortuko: "Metro erdiko zanga egin beharko dute hodiak sartzeko baina gero estali egingo dituzte eta ez da igarri ere egingo", jakinarazi du Iturbe zinegotziak.

DATUA

**200**

**METRO KUBIKO**

Lizarraga auzoan egingo duten ur depositauk 200 metro kubiko edukiera izango du. Antzuolako baserriak edateko urez hornitzea du helburu.

ESANAK

**"Edateko ur ona bideratuko dugu baserrietara: tratamendua jasotakoa eta kontrolak pasatutakoa"**

**Jose Mari Iturbe** > Zinegotzia

E-PLANA

## Errekalde eta Antigua auzoetako argiteria

Estatu Fondotik bideratutako dirulaguntzarekin bigarren proiektu bat ere egingo du Antzuolako Udalak: Errekalde eta Antigua auzoetako argiteria berritu. Horien aurrekontua da 39.337 euro eta hiru hilabetean egingo dituzte berritze lan guztiak.

Auzoak zahartuta geratu direla uste dute Udal ordezkariek eta argiteria-azpiegitura derrigorrez berritu beharra dagoela. Izan ere, sareak ez du eroale neutroa eta hainbat tokitan babesgarririk ere ez. Lan horiekin sarea hobetuko da eta segurtasuna ere bai. Gainera, lurrerako eroalea jarriko dute argiteria-azpiegitura guztian. Lanok gainbegiratzearen ardura Udaleko zerbitzu teknikoek izango dute.

**BERGARA** > EUSKARA

# Jardun elkarteak festa borobila egin du 20 urteotako ibilbidea ospatzeko

Euskara elkartean oso pozik geratu dira zapatuko eguna nola joan zen ikusirik; 25 urte betetzean, gehiago

**GOIATZ ARANA** > BERGARA
Bixamona zuten Jardunekoek domekan, eta ez zen gutxiagorako: egun osoa eman zuten festan, bezperan. Baina ez edozer gauza ospatzeko, 20 urtetako bidea baizik. Euskara elkarteko taldeen saioekin hasi zuten eguna –bertso, trikiti eta dantza artean–, eta kalejiran irten ziren gero trikitilariekin. Artatsen paella, oilaskoa, flana eta izozkia jan eta kafe "konpletoa" hartu zuten. Hartuko lukete jende gehiago bazkarian, baina batutako 30ek giro ezin hobea jarri zuten eta ez da gutxi! Mahaitik altxa eta kantu jirara eta gero erromeriara. Gazte askok egin ei zuen dantzan. 25 urte betetzean, gehiago eta hobeto. Bien bitartean, euskara erabiltzera!


Soraluzeko Xero Xiette taldearekin, gazte askok egin zuen dantzan. Erromeria giroa izan zen Munibe plazan. JOSETXO ARANTZABAL


Bazkaritan, topa egiten. J. ARANTZABAL



Bertso eta trikiti saioa. MIRARI ALTUBE

ZER DERITZOZU JARDUNEK 20 URTEOTAN EGINDAKO LANARI?


**Esti Alberdi**
Ondarroa
"Gipuzkoako Bertsozale Elkartean egiten dut lan eta Bergarara ere etortzen naiz, bertso eskolara. Jardunen 20. urteurrenean saioa egitea egokitu zaigu, ze gutxiago! Izugarri bizitzen du herria".


**Maite Elortza eta Maddi Mujika**
Bergara
"Guk dantzan egiten dugu Jardunen, baina kalean egiten dituen beste ekintzetan ere parte hartzen dugu. Elkartearen lana garrantzitsua da herriarentzako, giroa euskalduntzen laguntzen du".


**Arantxa Gallastegi**
Bergara
"20 urte bete izana marka handia da! Esango nuke, gainera, sortu zenean baino indar handiagoa duela orain. Asko lagundu du kulturgintzan, euskalgintzan... baina, oraindik badaude premiak".


**Jose Luis Carnicero**
Andoain
"Jardunen ibilbidea nahiko berria da niretzako, orain hasi naiz ezagutzen semeak trikiti eskolan apuntatu direla-eta. Garai aldakorrak bizi ditugu eta euskarak laguntza behar du".


**Jesus Mari Zabaleta**
Bergara
"Ikusi dut eguerdiko saioa eta poztasun handia eman dit! Segi dezala bide horretan urte askoan. Eutsi egin behar diogu gure izateari eta euskarak izan behar du gure lehen hizkuntza".

**BERGARA** > ELIZBARRUTIKO AISIALDI TALDEAK

# Bizi Alaik erakutsi du gauza gutxirekin ondo pasa daitekeela

**G.A.** > BERGARA
*Aldatu burua, aldatu mundua* lelopean, Donostiako Elizbarrutiko aisialdi taldeek Txirrin Txarran festa ospatu dute astebururuan, Bergaran. Urrats garrantzitsua izan da, orain arte Donostialdean egin dutelako beti festa, baina, barrura etortzeko egindako apustua ondo atera da: aurreikuspenak betez, 400 bat pertsona batu dira eta tartean izan dira Debagoieneko bi taldeak ere –Oñatikoa eta Bergara-Antzuolakoa–. Herria apaindu, bazkaldu, afaldu, karaokean abestu eta solasean egin dute, eta baita tailerretan esku hartu ere.

**DANTZA ETA ESKULANAK**
Aldaketa klimatikoaren gaia oinarri hartuta, gauza gutxirekin ondo pasa daitekeela ikasi dute: eskulanen tailerrean, birziklatutako gauzak aprobetxatuz, diruzorroak edota jostailuak egin dituzte; dantzenean, bikain pasa dute teknologia gutxirekin.


Askotariko erritmoak dantzatu zituzten Muniben; adibidez, afrikarrak. G.A.



Aramaioko ipuin lehiaketako parte-hartzaile denek talde argazkia atera zuten sari banaketa ekitaldia bukatutakoan. TXIRRITOLA

**KULTURA** > SARI BANAKETA EKITALDIAK

# AED eta Txirritolak literatura lanik onenak saritu dituzte

Aurkeztutako lanen maila altua nabarmendu dute Aramaion; komikien atalean aurkeztutako lanen kopuruak izandako gorakada, Arrasaten



Arrasateko lehiaketetako irabazleetako batzuk sariekin. JOSETXO ARANTZABAL

**GOIATZ ARANA** > BERGARA

Egubakoitz arratsaldean banatu zituzten sariak, toki bietan. Arrasaten, Kulturaten zuten hitzordua, 18:00etan, eta areto nagusia guztiz bete ez bazen ere, eserleku gutxi batzuk baino ez ziren geratu hutsik. Ekitaldiari hasiera emateko, hitzaldia egin zuen Fernando Morillo idazleak eta, segidan, AEDk antolatzen dituen Arrasate Literatura Lehiaketetako sariak banatzeari ekin zioten. Ipuin, poesia, bertso paper eta komikiaren ataletan banatu zituzten sariak.

Ikusitakoa ikusita, pozik agertu zen AEDko lehendakari Eñaut Muxika: "Jende asko batu da Kulturateko areto nagusian. Eskertzekoa da ikustea, oraindik ere, kulturak eta literatura lehiaketek jende asko erakartzen dutela". Lanen kopuruak gora egin du, batez ere, komikian, eta bertso paperean 95 lan aurkeztu izana ere ez da marka markala, Muxikaren esanetan. Ikastetxeekin izandako elkarlanak fruitu onak eman dituela ikusirik, datorren urtean ere deialdia euren bitartez egiteko asmoa agertu dute antolatzaileek.

**IPUIN LEHIAKETA ARAMAION**

Aramaion, 55 lan aurkeztu dituzte aurten Txirritola elkarteak antolatzen duen Ipuin Lehiaketara; maila oneko lanak gainera, hori da behintzat epaimahaiak oraingo ediziotik azpimarratu duena. Bariku arratsaldean jaso zituzten sariak irabazleek, *Ipuin lapurra* ipuin kontaketa saioa entzun eta gero.

**LIBURU AZOKA**

## 500 liburu 'Bat ekarri, bi eruen' azokan

**M.A.** > ESKORIATZA

Liburuaren Nazioarteko Eguna aitzakia hartuta seigarren urtez egin zuten *Bat ekarri, bi eruen* liburu azoka, Eskoriatzako plazan. Azken bi urteotan indar handia hartu du ekimenak eta herritarrek liburu asko ekarri zituzten trukatzeko, tartean *Mendiak* bilduma osoa. Ekarritako liburuen truke txartelak banatu zituzten, 300 guztira, eta egubakoitzean jende asko hurreratu zen azokara liburuen baten bila.

Haur eta gazte sailekoak segituan desagertu ziren eta helduek ere topatu zituzten gustukoak. Azokak iraun bitartean collage tailerra egin zuten umeek plazan.



Herritar bat liburuei begira. M.A.




JOSETXO ARANTZABAL

## Jende mordoa gaztetxeko ekitaldietan

Arrasateko gaztetxea 19. urteurrena -11+8- dabil ospatzen eta ekitaldi asko egin dituzte aste bukaeran. Zea Maysen kontzertua izan zen egubakoitzean eta zapatuan Zumarraga-Urretxuko gaztetxeko kideak izan zituzten lagun ospakizunetan. Bazkaltzeko 120 bat lagun elkartu ziren eta arratsaldean Arrasateko hainbat kale bete-bete egin zituzten Zumarragako Takataka musika taldea lagun zutela.

**JAIALDIA** > KILIKI ETA ERRALDOIEN KONPARTSA

# Lau erraldoi txiki aurkeztu zituzten zapatuan Arrasaten egindako jaialdian

Jaialdian jasotako diruarekin ertainen konpartsa bideratu gura dute: kideak topatu eta erraldoi ertainak egin



Erraldoi txikiak eta umeak elkarrekin zapatu goizean. JOSETXO ARANTZABAL

**MIRARI ALTUBE** > ARRASATE

*Konpartsaren entsegua kalean* izenarekin Kiliki eta Erraldoien Konpartsaren jaia egin zuten zapatuan Arrasaten. Asmoa zen konpartsak egiten duen lana herritarrei erakustea eta antolatzaileen esanetan lortu zuten: "Eguraldia lagun, giro ezin hobea sortu da bai goizean, bai arratsaldean". Goizean txikiak –11 urte artekoak– izan ziren protagonista eta erraldoi txikiak aurkeztu zituzten, handien itxura berekoak. Arratsaldean, ostera, handiek egin zuten saioa.

Konpartsaren helburua da ertainen taldea osatzea –11 eta 16 urte artekoak– eta horretarako dirua batzea gura zuten: "Lau erraldoi gura ditugu, bi emakume eta bi gizon, baina diru kontuak aztertu behar lehenago". Antolatzaileek eskerrak eman gura dizkiete laguntzaileei, umeei eta herritarrei eta jakinarazi bildotsaren zozketako zenbaki saritua 262 izan dela.

**HIRIGINTZA** > GELMAKO ETXEAK

# Kooperatibistek lehentasuna, Gelmako etxeak erosteko

## 80 etxebizitzako blokea eskuratzeko hitzarmena sinatu du LKSk Obenerreka sustatzailearekin



Ertzain-etxearen ondoko blokea bukatuta dago; behe-barruetan Udalaitz zentro medikoa dago. U.M.

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Ekainaren amaiera. Data hori finkatu dute LKS Ingeniaritza enpresak eta Gelmako etxeen sustatzaile den Obenerreka enpresak Gelmako etxebizitzetako bat eskuratzeko.

Mondragon Taldeko bazkide eta haien lehen mailako senitartekoek izango dute eskaintza hori aprobetxatzeko aukera. Izan ere, LKSk ertzain-etxearen ondoko blokea "prezio berezian, beherapen polit batekin" erosi du kooperatibistei saltzeko. 80 etxebizitza ditu guztira, eta hitzarmena sinatu zutenetik (pare bat aste) hamar etxebizitza baino gehiago saldu dituzte.

Oraingoz, Euskadiko Kutxako bazkideei zabaldu diete operazio esklusibo horren eskaintza, eta zenbaitzuk badabiltza, bai, etxeok ikusten. Izan ere, etxebizitzen prezioa merkatukoa baino baxuagoa izateaz gainera, Euskadiko Kutxak "finantzaketarako baldintza bereziak" emango dizkie.

**3.300 EURO METRO KOADROA**

Kopurutan, metro koadro erabilgarria 3.300 eurotan saltzen diete. Hala, 230.000 euro balio du etxebizitza merkeenak; 41 m² ditu eta bakarra da. Garestienak, berriz, atikoak dira, 515.000 euroan. Gainerakoak erdibidean daude; 260.000-330.000 eurotan gehienak.

Etxebizitza guztiak domotikoak dira eta garaje itxiak ere badituzte. Hori bai, garajearen prezioa ez dago etxebizitzarenean sartuta eta, pisua erosiz gero, garajea ere derrigor erosi beharra dago.

**EZOHIKO ESKAINTZA**

"Aukera bakarra da. Oso etxe onak dira, Gipuzkoan egiten diren kalitaterik handienekoen parekoak, eta ondo kokatutakoak. Gainera, bi digituko beherapenarekin", azpimarratu du Juan Lartzabalek, Obenerrekko ordezkariak. "Ezohiko eskaintza da eta ekainean bukatzen da, bi arrazoirengatik: batetik, ekainaren amaieran BEZa igo egingo dutelako; eta bestetik, estatu mailan aurten bukatzen direlako desgrabazio fiskalak –etxebizitza erosteagatik ematen dituztenak–, eta normalean, hemen, Gipuzkoan, estatuko politika fiskala errespetatu egiten da", gaineratu du.

LKSkoek eurek egin zioten eskaintza Obenerreka enpresa sustatzaileari, baina ez da orain asmatu duten zerbait. Lehenago ere egin zuten halako bat, Sukiaren promozio batekin, Uribarrin. Hura ondo irten zen, eta orain errepikatu egingo dute esperientzia.

**URBANIZAZIOA AURTEN BUKATUTA**

Berez, bloke hori alokairuan merkaturatzeko asmoa zuen Obenerrekak. Orain, berriz, saldu egingo du. Eraikitzen edo eraikita dauden gainerako blokeei dagokienez, berriz, lehen blokean etxebizitzen erdiak baino gutxiago geratzen zaizkie saltzeko. "Hirugarren blokea (114 etxebizitza), oraingoz, ez da egingo. Egingo da fatxada, eta kito. Salmentak hazten badira, orduan bukatuko da, baina urte batzuk barru. Salgai daude, beraz, LKSren etxeak eta lehen blokeko erdiak baino gutxiago. Urbanizazioa, berriz, osorik bukatuko dugu aurten: plaza, oinezkoendako pasealekua… Eta merkataritza saltokiak zabalduko dituzte laster. Hori esateko moduan gaude, Telepizzak eta Ogiberrik, adibidez, erosi dutelako lokala", jakinarazi du Obenerrekako Juan Lartzabalek.

**ZERBITZUAK** > HERRIKO URAK

# Beneras iturburuko ura kaleak garbitu, igerilekuak bete eta bestelako lanetarako erabili gura du Arrasateko Udalak

## Sikuteetan ur-iturri alternatibo moduan erabiltzea ere bada helburua, ur-sare nagusiak kale egiten duenerako

**U.M.** > ARRASATE

Arrasatek urtean kontsumitzen duen uraren 35.000 m³ Udalatxeko magaletik hartzen ditu. Han bada Beneras izeneko iturburua, Uba baserriaren gainetik 250 metrora jaiotzen dena, Meatzerrekan, udal teknikarien esanetan. Iturburu horretako ura herriko zenbait beharretarako erabiltzen du Udalak: parkeak ureztatzeko (Santa Barbara eta Aldai), Meatzerreka eta Udalako bizilagunendako eta larrialdi egoeretan ur-iturri alternatibo izateko, adibidez.

Orain, Udalak gura du iturburu horretatik hartzen duen ur-kopurua 60.000 m³-ra arte handitu, eta beste behar batzuk asetzeko erabili: "Kaleko garbiketa egiteko, lorezaintza lanetarako, kiroldegiko igerilekuak betetzeko…".

**HODI-SAREA LUZATZEKO AUKERA**

Dagoeneko hasi dira helburu hori gauzatu ahal izateko bidea egiten: "Hilabete barru Obenerrekako biribilgunetik udal biltegirainoko bigarren mailako ur hodisarea egiteko lanak adjudikatuko ditugu; hala, Santa Barbaratik Musakolako kiroldegirainoko hodi-sare osoa izango dugu; gaur egun, Aldai parkeraino ailegatzen da sare hori", azaldu dute Udaletik.

Obra horiek egin ostean, ursare alternatiboak Arrasate osoa zeharkatuko du, kiroldegiraino. Izan ere, herriaren iparraldean, Erguin eta San Andres auzoetara dagoeneko iristen da sare hori. Eta urbanizazio berrietan, (Gelma, Uribarri…) obrak aprobetxatu dituzte sare hori sartzeko.



Beneras iturburua, Meatzerreka auzoan. UDALA

"20 urte daramatzagu bigarren mailako ur sistema egituratzeko lanak egiten; diru-laguntzak aprobetxatzen, obra berriak…".

**AZTERKETARAKO DIRU-LAGUN TZA**

Hodi-sarea luzatzeko lanak egiteaz gainera, diru-laguntza ere eskatu du Udalak, Beneras iturburuaren azterketa egiteko. *Urarekin eta ur sistemekin lotutako berrikuntza, ikerketa eta garapen programa eta proiektuetarako* dirulaguntza deialdiaren barruan aurkeztu du justu, eskaera.

Labur esanda, azterketa hidrogeologikoa egin eta jakin gura du, adibidez, ea Udalatx magalean dauden bestelako zein ur-iturrik elikatzen duten Beneraskoa, zein portaera duen sikuteetan (zenbat ur duen…), zenbateraino elikatzen den euri urarekin eta beste.

**ITURBURU GARRANTZITSUA**

Garrantzi handiko iturburua da Beneras, "Arrasateko lehen iturburua", Udaletik diotenez. "XX. mende hasieran dagoeneko erabiltzen zuten, 1900. urtean. Hori dakigu viatoristen antzinako eraikinean –Ikastolak obrak egin zituenean, San Jose eskolan–, antzinako ur-biltegia agertu zelako. Uste dugu ordukoa dela".

**Angel Rekalde** > Nabarralde elkarteko zuzendaria

# "750. urteurrenak guretzat ez du ospakizun zentzurik; garai hartan konkistatuak izan ginen"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

***Karta Pueblak 750 urte, ospatu ala ez ospatu?* izenburupean, hitzaldia egin zuten joan den eguaztenean Beñi Agirre, Mirari Bereziartua eta Angel Rekaldek. Interes handia piztu zuen hitzaldiak; bilkuren aretoa lepo bete zen. Idatzita ez dagoen Arrasateko historia ezagutzeko balio izan zuen saioak. Angel Rekalde (Tolosa, 1957) soziologoarekin egon gara hitzaldian ateratako ondorioez berbetan.**

**Nola joan zen hitzaldia?**

Gu oso pozik geratu ginen; bilkura aretoa bete egin zen eta jendeak arreta handiz jarraitu zuen hitzaldia. Hizlarion azalpenen ostean, gerturatutakoek hainbat galdera egin zizkiguten, oso galdera zuzenak. Oso saio bizia izan zen, eta hori pozgarria da.

Hala, argi geratu zen gaiak interes handia pizten duela herrian. Izan ere, halako gaiak askotan albo batera uzten dira, "hori iragana da" pentsaerarekin garrantzia kentzen diote gure historiari. Bada, pisu handia du, gure identitatea eta egun ditugun arazoak iraganetik datoz-eta.

**Bada, zuen ustez, 750. urtebetetzea ospatzeko modukoa da Arrasaterendako?**

Hitzaldian argi eta garbi esan genuen gure ustez ezetz. Hots, 750. urteurrenak ez duela guretzat ospakizun zentzurik. Azaldu genuen hiri-gutuna zein testuingurutan eman zitzaion Arrasateri, eta, nola izan zen ikusita, ez dago zer ospatu. Izan ere, garai hartan herri euskalduna konkistatua izan zen, esparru propioa galtzeraino.

1200. urteko konkistaren ondoren izan zen, Gaztela gure lurralde antolaketa egiten hasi zenean. Bi lerrotan egin zuten konkista: kostaldetik hasi ziren eta orduan sortu ziren, besteak beste, Hondarribia, Mutriku, Getaria eta Donostia. Bestetik, Nafarroarekiko gerra zela-eta beste herri batzuk sortu ziren: esaterako, Tolosa, Segura eta Ordizia. Horrek argi eta garbi erakusten du Gaztelak guretzat erabat arrotzak ziren interesak jarraitu zituela gure lurretan sartzeko. Beraz, halako urteurrena ospatzea jokoz kanpo dago, erabat.

**"Gaztelak guretzat erabat arrotzak ziren interesak jarraitu zituen gure lurretan sartzeko"**

**"Ezinbestekoa da kontzientzia kritiko baten oinarrituz gure iragana ondo ezagutzea"**

**Zer egin daiteke, bada, urteurrenaren aurrean?**

Hitzaldian erabilitako adibide batekin erantzungo dizut: turkiarrek armeniarrei egindako sarraskia, hain zuzen. Egun, armeniarrek sarraskia salatu egiten dute, mundu osora ezagutarazi.

Gure iragana ezin dugu ukatu edota ezabatu. Are gehiago, nire ustez, ezinbestekoa da kontzientzia kritiko baten oinarrituz gure iragana ondo ezagutzea.

**Horretarako egokiak izango dira halako hitzaldiak, ezta?**

Memoria historikoa denona da, eta gizarteratu egin behar da. Euskal Herrian eta Arrasaten ondare aberasgarria daukagu, hamaika erreferentzia. Eta horietako asko galtzen joaten dira. Horregatik, gaiok ikasi, ezagutu eta landu egin behar ditugu gizarte moduan indarra hartzeko. Azken finean, gure erreferentzia propioetatik edan behar dugu, euskal nortasuna indartuz, euskal komunitate moduan aurkezteko.



Angel Rekalde, *Goiena magazinea*-n, martxo amaieran. USOA AGIRRE

URTEURRENA OSPATZEAREN ALDE

## PSE-EEk ospakizun "duinak" eskatu ditu

Udal talde sozialista kexatu egin da Arrasateren hiri-gutunaren urteurrenerako Udalak iragarritako egitarauarengatik. Egitarau motza dela kritikatu dute sozialistek, ez datorrela bat gaiak duen garrantzi historikoarekin. Hala, ospakizun "duina" egiteko "eskubidea" eskatu du Aritz Arrieta PSE-EEren bozeramaileak. *Karta Pueblak 750 urte, ospatu ala ez ospatu?* hitzaldia bera "zentzugabekeria" hutsa iruditzen zaio Arrietari.

**ZINEMA** > ESTREINALDIA

# Egubakoitzean estreinatu zen Mariasun Pagoaga protagonista duen '80 egunean' filma

J.B. > ARRASATE

Mariasun Pagoaga antzezle arrasatearra protagonista duen *80 egunean* filma joan den egubakoitzean estreinatu zen Donostiako giza eskubideen VII. zinemaldiaren barruan. Pagoaga ezaguna da Arrasaten, besteak beste, herriko Doke antzerki taldeko kidea delako. Bada, oraingoan zinemara egin du salto.

**DEBEKATUTAKO MAITASUNA**

Joxe Mari Goenaga eta Jon Garaño zuzendari dituen filmak bi emakume helduren istorioa kontatzen du: Maite (Mariasun Pagoaga) eta Axun (Itziar Aizpuru). Axun, 70 urteko emakumea, alabaren senar ohia zaintzera joango da ospitalera. Haren ezusterako, ondoko gaixoa zaintzen duen emakumea Maite da, nerabezaroko lagun mina. 50 urte luzetan ez dute elkar ikusi, baina gaztetan zuten kimika oraindik bizirik dagoela sumatuko dute berehala. Axolagabe gozatu eta dibertitzen dira elkarrekin; Axun, Maite lesbiana dela konturatzen den arte. Hala, sentimenduak dudan jarriko ditu Axunek: zeri jarraitu, buruari ala bihotzari? Laster izango da gurean ikusteko aukera.



Mariasun Pagoaga, lehen planoan, filmeko une baten. GOIENKARIA

**JAIAK** > SANJUANAK

# Zabalik dago 2010eko kartel lehiaketarako izenematea

Irudiak aurkezteko azken eguna da maiatzaren 21a; lanak, BAZera

J.B. > ARRASATE

Bi hilabete eskas falta dira sanjuanetarako, eta, urtero legez, Udalak lehiaketa abiarazi zuen joan den astean, etxez etxe bidaliko den egitarauaren azalaren eta jaietako kartelaren irudia aukeratzeko. Kartelak honako testua jaso behar du derrigorrez: *2010 San Juan jaiak Arrasate.*

**750 EURO IRABAZLEARENDAKO**

Kartelaren gutxieneko tamainak 28x21 zentimetrokoa izan behar du; hau da, jai egitarauaren azalaren neurria izan behar du; teknika librea da. Bestalde, egilearen nortasuna azaldu barik eta atzealdean lelo bat duela aurkeztu beharko dira kartelak, eta, horrekin batera, gutun itxi baten lema bera eta egilearen datuak adierazi beharko dira.

Kartelak bidaltzeko azken eguna da maiatzaren 21a, 19:00ak baino lehen. Biztanleen Arreta Zerbitzura –BAZ– eraman behar dira. Epaimahaia nork osatuko duen ez da oraindik zehaztu; erabakia hartzen den egun berean jakinaraziko du Udalak. Hori bai, epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da, eta saritzen den lana Udalaren esku geratuko da. Udalak, noski, kaleratzeko eskubidea izango du, baita kartelokin erakusketa bat zabaltzeko ere. Horrela balitz saritu gabe geratu diren lanak erakusketaren azken egunetik hasita 30 eguneko epean jaso ahalko dira lanak. Epea amaitu ondoren egileak lana jasotzen ez badu, Udalak libreki erabili ahalko ditu.

Sariei dagokienez, kartel irabazlearen egileak 750 euro irabaziko ditu.

**HEZKUNTZA** > MUSIKA

# Udaleku musikalak uztaileko oporraldirako

Musika Eskolak antolatu ditu eta ekainaren 28an hasi eta uztailaren 9ra arte izango dira; izenematea zabalik dago, maiatzaren 7ra arte



Iazko udaleku musikalen irudi bat. GOIENKARIA

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Musika Eskolak udaleku musikalak antolatu ditu aurten ere, uztaileko oporretarako.

Udalekuok hainbat helburu dituzte: musikaren mundu zoragarria ezagutzea, ulertzea eta bizi izatea; jolasen bidez musikaz disfrutatzea eta giro ludiko eta goxoa sortzea. Eta hori horrela izan dadin, erritmoa, melodia, dantza, musika tresnen tailerra, antzerkia eta koreografia landuko dituen metodo dibertigarria erabiliko dute. Horren haritik, Musika Eskolatik azpimarratu dute udalekuon helburu nagusia ez dela teorikoa, "musikarekin gozatzea eta sormena eta sentsibilitate musikalak garatzea" baizik.

**TALDETAN BANATUTA**

Umeen adinaren araberako lau taldetan egingo dituzte udaleku musikalak eta talde bakoitzak irakasle bat izango du. Taldeak honakoak dira: 4-5 urtekoak (2004an eta 2005ean jaiotakoak); 6-7 urtekoak (2002an eta 2003an jaiotakoak); 8-9 urtekoak (2000n eta 2001ean jaiotakoak); eta 10-11 urtekoak (1998an eta 1999an jaiotakoak).

Udaleku musikalak izango dira ekainaren 28tik uztailaren 9ra, biak barne. Ordutegiari dagokionez, 09:30ean hasi eta 13:00ak arte izango dira, Musika Eskolan.

**IZENEMATEA ZABALIK DAGO**

Izenematea dagoeneko zabalik dago, maiatzaren 7ra arte, Musika Eskolan, 15:30-19:30 ordutegian.

Prezioari dagokionez, 115 euro dira –105 euro, ordea Musika Eskolako ikasleendako– eta diru hori sartu behar da honako kontu zenbakian: 2101 0070 81 0012342622.

Informazio gehiagorako jo Musika Eskolara edo deitu 943 76 57 80 zenbakira.



MARIAREN LAGUNDIA

## Holandako ikasleak Mariaren Lagundikoekin

Holandako Groenlon hiriko ikasle taldea herrian izan da egunotan. Mariaren Lagundia ikastolakoekin egindako trukearen harira etorri dira –Mariaren Lagundikoak urrian izan ziren han– eta aste osoa eman dute hemen. Mariaren Lagundikoek prestatutako egitarau oparoaren baitan Bergaraz gain, inguruko herri era hiriak ezagutu dituzte.

**HEZKUNTZA** > LANBIDE HEZIKETA

# Eskaintza partzialeko eskolak antolatu ditu Miguel Altunak

Erdi eta goi mailako tituluak eskura daitezke; izenematea zabalik dago apirilaren 29ra arte

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Miguel Altunak Mekanizazioa eta Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoak erdi mailako tituluak eta Mekanizazio Bidezko Produkzioa goi mailakoa eskuratzeko aukera emango du aurten ere, eskaintza partzialaren bitartez.

Eskaintza hori 18 urtetik gorakoendako da eta titulazioa ere beharko dute: DBH edo parekoa beharko da erdi mailako zikloendako eta batxilergoa edo parekoa, goi mailako zikloendako. Eskolen ordutegia ikasleen beharren arabera antolatuko da, arratsaldez, eta izango dira astelehenetik eguenera hiru edo lau ordu.

Aurre-matrikula zabalik dago apirilaren 29ra arte. Izena emateko edo informazio gehiagorako deitu 943 76 38 40 edo 943 76 24 91 telefono zenbakietara edo eskolara joan.

## oharrak

KINTADA

**>1963an jaiotakoen kinto bazkaria maiatzaren 8an**

Etxagin egingo dute. Interesa dutenek Ariznoan eta Dixulan eman dezakete izena, 10 euro aurreratuta, maiatzaren 2a baino lehen.

KINTADA

**> 1970ean jaiotakoen kinto bazkaria maiatzaren 1ean**

Tartufon egingo dute. 12:30ean hasiko dute txikiteoa, Ariznoa tabernan, eta jatetxerako autobusa 14:30ean irtengo da, azokatik. Izenematea: Ariznoan 20 euro ordainduta edo kontu honetan sartuta: 3008 0169 53 2059080826.

KINTADA

**> 1965ean jaiotakoek afaria egingo dute maiatzaren 1ean**

Tartufon egingo dute, 22:00etan. 19:00etarako jarri dute txikiteorako ordua, Pol-Polen, eta 21:30ean abiatuko da urbanoa, Fraiskozuritik. Izenematea: Ariznoan eta Pol-Polen, *ketxaniz@euskalnet.net* helbidean edo 629 56 29 25 zenbakian.

KINTADA

**> 1949an jaiotakoen urteko bazkaria maiatzaren 8an**

Tartufo jatetxean egingo dute eta urbano zerbitzua egongo da. Izena emateko deitu: 650 85 38 57 eta 666 49 04 62.

Amaia Arriaran > Ipuin kontalaria

# "Artea, kontatzeko bideak beharrezkoak ditut barneko gauzak ateratzeko"

NEREA MENOR > BERGARA

**Amaia Arriaran oso ezaguna da herrian. Artearen alorreko proiektu ezberdinetan ibili ostean Oihulari Klown taldean sartu, eta horretarako jaio dela konturatu da. Ikastaro baten izena eman eta ipuin kontalari modura ikusiko dugu oraingoan. Pol-Pol tabernan izango da, eguenean, 22:30ean.**



Amaia Arriaran ipuin kontalaria. NEREA MENOR

**Zer eskainiko duzu Pol-Poleko saioan?**

*La asesina temporal y otras historias* izeneko saioa eskainiko dut, ahozko narrazio zirkituaren barruan. Hiru ipuin kontatuko ditut bertan; ordubete inguruko saioa izango da.

**Noiz hasi zinen Oihulari Klown taldean?**

Kasualitatez sartu nintzen, duela bi urte. Ikastaro bat zegoela ikusi eta izena eman nuen. Ilargira joan eta bueltatzea bezala izan zen niretzat. Aurretik ez nekien *clown*-aren gaineko ezer, eta benetan gustatu zitzaidan. Momentu hartan taldeko neska batek bere lekua libre laga behar zuen, kanpora zihoan, eta haren ordez sartzeko gonbita egin zidaten. Ia esperientziarik ez eduki arren, egiten nuena gustatu egin zitzaien eta Oihularin sartu nintzen. Handik aurrera ikastaroak eta ikastaroak egin ditut eta horretan nabil oraindik ere, formazioa ez da inoiz bukatzen.

**Taldearen barruan ipuin kontalariaren lana da gehien gustatzen zaizuna, orduan?**

Momentuan gustura ari naiz ipuinekin, baina denetarik egiten dut. Duela urtebete hasi nintzen ipuinekin eta oso pozik nago.

**Nola kontatu behar dira ipuinak?**

Berez, ez da interpretazio teatrala. Norberari gertatutako istorioak izango balira bezala kontatu behar dira. Zure bizitzan gertatutako edozer zure lagun taldeari azaltzen diozun moduan.

**Errespetua diozu publikoari ala ez zara urduri jartzen halakoetan?**

Hasi baino lehen urduri egoten naiz, baina behin istorioan sartu eta gero desagertu egiten da. Badakit nik ondo pasatzen badut ikusleek ere ondo pasako dutela. Logikoa denez, ikusle guztiak ezin ditut konplazitu, baina ni disfrutatzera joaten naiz.

**Zerk erakartzen zaitu gehien?**

Kontatzeko beharra daukat nik, espresatzeko beharra. Abeslari, dantzari, margolari, idazle eta beste hainbat gauza izan naiz, edo egin ditut nire bizitzan zehar. Artea beharrezkoa dut nire barruko gauzak atertzeko. Orain, ipuinekin hasi naizenean, honek asetzen du nire espresatzeko beharra. Ate bat zabaldu nuen kontu honekin hasi nintzenean eta ate horren ostean ez dakit zenbat ate gehiago egongo diren. Benetan motibatuta nago. Betidanik gustatu izan zait kontatzea, ez du zerikusirik ipuina irakurtzearekin.

**"Abeslari, dantzari, margolari, idazle eta beste hainbat gauza izan naiz"**

**"Ipunekin ate bat zabaldu dut eta beste hamaika ate ikusi ditut aztertu gabeak"**

**Euskal Herrian zehar aritu zara kontalari, ezta?**

Bai. Irunen izan naiz, baita Iurretan ere, eta beste hainbat lekutan. Aurretik, askotan egon izan naiz Pol-Polean.

**Antzeztu eta ipuinak kontatzeaz aparte abestu ere egiten duzu, ezta?**

Bai, Arrasate Big Banden ibili naiz. Fran Iturberekin ere proiektu bat egin nuen. Harekin hasi nintzen gitarra jotzen eta maketatxo bat grabatu genuen, guretzako; hor dago, agian, noizbait berreskuratu egingo dugu. Gimnasia erritmikoko irakasle ere izan naiz, eta dantza betidanik gustatzen zait. Margotzen ere ibili nintzen eta idaztea ere gogoko dut. Musikari baten abestientzako letrak idazten aritu nintzen behin, nahiz eta proiektu hura bertan behera geratu zen.

**Etorkizunerako ze proiektu duzu buruan?**

Oihulari Klown taldearekin jarraituko dut. Honetarako jaio naizela ikusi dut. Artearen barruan landu ditudan gauza guztiak hemen lan daitezkeela ikusi dut. Ate bat zabaldu eta beste hamaika ate ikusi ditut oraindik aztertu gabeak. Geroz eta ikastaro gehiago egin eta denbora aurrera egin ahala, nire ikuspuntua aldatzen doa eta ikusteko erak zabaltzen. Antzerki eta ipuinekin jarraituko dut, beraz; orain arte Euskal Herria, Madril eta Bartzelona aldean izan gara, asko irteten gara estatura, baina, gehienbat, Araba eta Bizkaitik deitzen digute.

IKASTAROA > PREBENTZIO ZERBITZUA

## Gaueko jai giroaren kalitatea hobetzeko ikastaroa

Ostalaritzako langileei eta herriko jaietan parte hartzen dutenei zuzenduta dago eta maiatzean izango da

N.M.> BERGARA

Udaleko Prebentzio Zerbitzuak ostalaritzako langileei zuzendutako ikastaro bat antolatu du datorren hilabeterako.

"Ikastaroa, ostalaritzako langileei eta herriko jaietan parte hartzen dutenei –Txosna batzordekoei– zuzenduta dago", adierazi du Udalak.

Gaueko jai giroaren kalitatea hobetzeko ingurumen jarraibideak azalduko dituzte, baita drogen inguruko informazioa eman ere; haien eraginak eta arriskuak, esaterako. Helburu nagusia prebentzioa da.

**IZENEMATEA ASTE HONETAN**

Hiru orduko bi saiotan banatuko da ikastaroa eta taldeak sei eta hamabost lagun artekoak izango dira. Maiatzaren 10eko astean izango da, baina oraindik data zehazteke dago, baita ordua ere; izena ematen dutenen artean adostuko da.

Parte hartu nahi duenak gaurtik egubakoitza arte du izena emateko epea zabalik, 07:30etik 14:00ak bitartean, 943 77 91 26 telefonora deituta.

Partaideei ikastaroan esku hartu izanaren agiria emango zaie, haien izenean eta baita haien establezimenduaren izenean ere.



OILAGORRA

## Joseba Iribekanpos txapeldun

Oilagorra ehiza eta arrantza elkarteak urteroko ehiza txapelketa antolatu du Zanbranan (Araba). Argazkian, Joseba Iribekanpos agertzen da, hura izan da-eta aurtengo irabazlea, 706 punturekin. Iribekanpos bera, Unai Urbina, Ander Mugurutza eta Felix Etxeberria Debagoieneko txapelketan lehiatuko dira.



**UDALA** > ERABAKIA

# Kaleetan dauden diktadurako sinboloak kendu egingo dituzte

## Herriko 12 kaletan 31 ikur topatu dituzte, eta guztiak falangisten ikurra duten plakak dira

## Atarietako bizilagunek kontrakoa adierazi ezean, udal langileek kendu egingo dituzte sinboloak

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Herriko kaleetan dauden diktadura garaiko sinboloak kendu egingo ditu Udalak. Hala erabaki zuen martxoaren 25eko Tokiko Gobernu Batzarrean.

Memoria Historikoaren Legearen 15. artikuluak xedatzen duena kontuan hartuta, herrian dauden diktadurako sinboloen inbentarioa egin dute udal langileek. Guztira, 31 topatu dituzte herriko 12 kaletan, eta gehienak babes ofizialeko etxeetan dauden plakak dira; hain zuzen ere, ikur falangista duten plakak (ikus ondoko argazkia).

Ikur gehienak Errekalde auzoan (hamar), Moiua kalean (lau) eta Kale Zaharrean (lau) topatu dituzte.

**BIZILAGUNENDAKO GUTUNA**

Inbentarioa egin ondoren, atarietako bizilagunei gutun bidez jakinaraziko diete euren etxearen fatxadan diktadurako sinboloa duen plaka dutela, eta Udalak horien gainean ze erabaki hartu duen. Bizilagunek euren iritzia emateko aukera izango dute, eta astebeteko epean ez badute kontrako iritzirik agertzen, atariko ikurrak kentzen hasiko dira udal langileak.

### Ikur frankistak dauden kaleak

> Errekalde auzoa 11,15, 16, 17, 20, 23, 37, 45, 47 eta 49
> J. Moiua kalea 8, 10, 12 eta 14
> Ramon Irizar kalea 3
> Euskadi etorbidea 12 eta 15
> San Anton kalea 6
> Kale Zaharra 53, 58, 62 eta 66
> Olakua auzoa 1-A, 1-B eta 1-C
> San Lorentzo auzoa 15
> Aita Lizarralde kalea 2
> Mendiko kalea 3
> Kanpantxo kalea 8
> Otadui zuhaiztia 52 eta 54

Iturria: Oñatiko udala




Ikur gehienak Errekalde auzoan topatu dituzte. MIREIA BIKUÑA

### oharrak

ZINEMA

**> 'Vacaciones de ferragosto' zineklubean**

Gianni Di Gregorioren pelikula emango dute eguenean, 20:00etan, kultura etxean.

DEIALDIA

**> 1961ean eta 1962an jaiotakoen afaria**

Maiatzaren 8an bilduko dira Etxeberria jatetxean. Interesatuek 943 78 13 93 (Santi) edo 943 78 34 66 (Jesus) telefonoetara dei dezakete.

DEIALDIA

**> 1969ko kintoendako deialdia**

Maiatzaren 29an bilduko dira Etxeberria jatetxean. 25 euro aurreratu beharko dituzte Euskadiko Kutxako 30350005300051040936 kontuan.

> HEZKUNTZA

### Literatura astea ospatzen dihardute herri eskolan

Liburuaren Nazioarteko Egunaren aitzakian literatura astea egiten dihardute Errekalde herri eskolan. Egubakoitzean hirugarren mailakoek txotxongilo saioa egin zuten Lehen Hezkuntzakoen gelan. Asteon, aldiz, eskolako ikasleek eta haien gurasoek askotariko irakurketa eta dramatizazio saioak egingo dituzte, maila eta hizkuntza ezberdinetan.

**AUZOAK** > OSPAKIZUNAK

# Auzoetako jaiak hasiko dira aste bukaeran, Olabarrietan

## Ekainaren 13ra arte, asteburu ia guztietan ospatuko dituzte festak; besteak beste, Olakua eta Errekalde auzoetan, Corpusak eta San Migel Txikixak



Iaz, aizkolariek emanaldia egin zuten Kale Zaharreko plazatxoan. GOIENKARIA

**M.B.** > OÑATI

Udaberriarekin badatoz auzoetako jaiak Oñatira. Lehenak Olabarrietako jaiak izaten dira –oraingo aste bukaeran–, eta ekainaren 11tik 13ra Olakuan egingo dituzten jaietara arte, sei auzotan ospatuko dituzte festak. Gainera, ekaineko lehen asteburuan, 4tik 6ra, Corpusak ospatuko dituzte.

Bada, honela egingo dituzte jaiak: maiatzaren 1ean eta 2an Olabarrietan; San Migel Txikixak maiatzaren 7tik 9ra; Kasablankako San Isidro jaiak maiatzaren 14tik 16ra; Errekaldeko jaiak maiatzaren 21etik 23ra; Corpusak ekainaren 4tik 6ra; eta Olakuakoak ekainaren 11tik 13ra.

**EGUTEGI BATERATUA**

Aste bukaera berean auzo bat baino gehiagotan festak batera egin ez daitezen, azken urteotan auzo ezberdinetako jai batzordeetako kideak bildu egin dira. Egutegi bateratua egin dute, bakoitzari ongien datorkion aste bukaera aukeratuz. Normalean, urtetik urtera ez dira asko aldatzen jaietako datak. Adibidez, Kasablankan San Isidro egunaren inguruan ospatzen dituzte.

Dena den, ekaineko jaien egitarauan aldaketak egoten dira: auzoetako jaiak Corpus egunaren arabera antolatzen dituzte.

**OLABARRIETA**

Urtero moduan, Olabarrietako jaiak izango dira lehenak. Egitarau xumea gertatu dute auzotarrek. Egubakoitzean hasiko dituzte jaiak 20:30ean etxafuegoen jaurtiketarekin, eta ondoren, 21:00etan, auzo afaria egingo dute. Zapatuan meza nagusia egingo dute 12:00etan, eta auzoko elkartean luncha 13:00etan. Azkenik, domekan meza ospatuko dute 10:00etan. Jaiak bukatuko dituzte etxafuegoen jaurtiketarekin.

**SAN MIGEL TXIKIXAK**

Olabarrietako jaien erreleboa hartuko dute Kale Zaharreko bizilagunek maiatzaren 7tik 9era. San Migel Txikixetako egitaraua osatu dute, eta kirola, musika eta jolasak izango dira protagonista. Maiatzaren 7an rock kontzertua egingo dute Asfikzia, Bitter Honey eta Sexty Sexers taldeek. Bestalde, maiatzaren 8an, Triki ta Ke taldeak egingo du kontzertua, eta maiatzaren 10ean, Gorkak, Mirenek eta Agurrek egingo dute erromeria.


Udal langileak Dolores Ibarruriren irudia jartzen museoko aurrealdean. J.L.MERINO

**ESKORIATZA** > ERAKUSKETA

## Dolores Ibarruriren argazkiak ikusgai gaurtik

'Dolores Ibarruri 'La Pasionaria', su voz sigue viva' izeneko erakusketa zabalduko dute gaur Ibarraundi museoan eta maiatzaren 9ra arte egongo da

**MIRARI ALTUBE** > ESKORIATZA

Ibarraundi museoaren aurrealdean jarri duten *La Pasionaria*-ren argazki handiak, 4,75 metro luze eta 1,80 metro zabal dituenak, jakinarazten du gaur zabalduko dutela Dolores Ibarruri emakume bizkaitarraren gaineko erakusketa. Ezker Batua-Berdeak taldeak antolatu du Eskoriatzako Udalaren laguntzarekin, eta langile-borrokaren ikur izan zen emakumearen bizitza eta ibilbidea jasotzen dituen 50 argazkik osatzen dute erakusketa. Inaugurazio ekitaldia gaur izango da (18:30) eta *Dolores* izeneko filma emango dute, Jose Luis G. Sanchez eta Andres Linaresek zuzendutakoa. Maiatzaren 9a bitartean egongo da ikusgai.

**LANGILE BORROKAREN IKUR**

Erakusketako argazkiak PCE alderdiaren artxibo historikokoak dira, eta Ezker Batuak Gallartan (Bizkaia) jaiotako Dolores Ibarruri omendu gura du; izan ere, 1989ko azaroaren 12an hil zen arren, "haren ahotsak bizirik dirau".

Eskoriatzako Ezker Batuko zinegotzi Juan Luis Merinok adierazi du "*La Pasionaria* langile-borrokaren eta faxismoaren kontrako borrokaren ikurra" dela, baita "genero berdintasunaren, gizarte-justiziaren eta errepublikaren aldekoa" ere.


BASOTXO

## Erretiratuak ezin hobeto Granada eta Kordoba aldean

Aretxabaletako Basotxo erretiratuen elkarteko 46 kide Andaluzia aldean ibili dira: Granadan eta Kordoban, hain zuzen. Eguraldi ona lagun, ezin hobeto ibili dira hara eta hona paraje berriak ezagutzen: "Oso pozik itzuli gara guztiok; abenturatxo batzuk ere baditugu kontatzeko guardia zibilen kontura", esan digute. Zortzi eguneko bidaiaren balorazio batzarra ere egin dute dagoeneko, eta hurrengo irteera antolatzen hasita daude zuzendaritza batzordeko kideak, "jendea oso animatuta dago-eta".

**IKASTAROA**

## Jostungintza tailerra dago gaur eta bihar

Botoiak josten, kremailerak ipintzen eta praka barrenak hartzen ikasiko dute

**M.A.** >ESKORIATZA

*Kataia eten barik* egitasmoaren barruan hainbat ikastaro antolatu ditu Eskoriatzako Udalak. Arrakasta izan duen bakarra, baina, jostungintza tailerra izan da eta gaur eta bihar egingo dute (18:00-20:00) kultura etxean. Gainerakoak bertan behera utzi dituzte.

Mari Paz Akizu jostun eskoriatzarra izango dute gidari ikasleek, eta oinarrizko kontuak irakatsiko dizkie: botoiak josi, kremailerak ipini eta praka barrenak hartu.

Belaunaldi askotariko pertsonen arteko komunikazioa eta esperientzia trukaketa sustatzea du helburu *Kataia eten barik* egitasmoak, eta sasoi baten josterakoan gertatzen zen transmisioa berreskuratu gura dute.

> AMUSKA

### Osteoporosiaren eta azalaren gaineko berbaldiak astean

Amuska emakumeen elkarteak osasunaren gaineko berbaldi bi antolatu ditu asterako. Larruazalaren zainketen gainean jardun eta norbera zelan makillatu azalduko dute eguaztenean, hilak 28. Kultura etxean izango da eta bi saio egingo dituzte, jende askorik ez pilatzeko: 18:00etan eta 19:30ean.

Bestalde, eguenean, hilak 29, osteoporosiaren gainean jardungo dute Oihana Loiti eta Aitor Odriozola adituek. Kultura etxean izango da hori ere (18:00).

BASABE
jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel.: 943 77 07 94
Aretxabaleta

ALE
ARETXABALETA
Lanbide Eskola
Goi mailako Lanbide Heziketarako
Berariazko Institutua

Bi baldintza hauek betetzen badituzu:
> Gutxienez 18 urte izatea
> Honako ikasketaren bat gaindituta izatea:
- 2. BBB
- LH-1
- 2. IEE
- DBH
- Sarbide proba gaindituta izatea

Lan egiten duzun bitartean ERIZAINTZAKO ZAINTZA OSAGARRIAK titulu ofiziala ateratzea erraza izango da zuretzat.

Goi mailako heziketa zikloetarako sarbide proba prestatu nahi duzu?
Nahikoa duzu 18 urte edukitzea.
Etor zaitez Aretxabaleta Lanbide Eskolara eta informatu
Inskripzioak apirilaren 30era arte.

Etxebarri auzoa z/g
20550 ARETXABALETA (Gipuzkoa)
tel.: 943 79 79 00 / 943 79 79 43
webgunea: www.iaretxabaleta.com
e-posta: ia@iaretxabaleta.com



Gauza ezberdinak jarriko dituzte salgai; helburu nagusia da beharrean diren herrialdeei laguntza bidaltzea. GOIENKARIA

**ARAMAIO** > OSOKO BILKURA

# Bigarren eskuko merkatua eta trukea egubakoitzean

Materiala gaurtik eguenera jasoko dute Sastiñan; azoka egubakoitzean 17:00etan zabalduko dute

**EDU MENDIBIL** > ARAMAIO

*Elkartasun egunak Aramaion* egitarauaren barruan, bigarren eskuko merkatua eta trukea egingo da egubakoitzean herrian. Bidezko merkataritza postuak ere jarriko dituzte plazan.

Azokaren helburuetako bat da premia larriak dituzten herrialdeei laguntza ematea. Hain zuzen ere, materiala eramaten dutenek izango dute prezioa finkatzeko eskubidea, baina %20 atzerriko herrialdetara bideratuko dute. Besteak beste, kirol materiala eta kirol jantziak, haurrendako materiala, elektragailu eta etxetresna txikiak eta jostailuak izango dira salgai egubakoitzean Aramaion. Azoka arratsaldean zabalduko dute, bostetan.

**MATERIALA, GAURTIK**

Materiala aurretik jasoko dute: gaurtik eguenera. Interesatuek Sastiñara jo beharko dute, 17:00etatik 20:00etara. Tamaina handiko gauzak (autoak, motorrak eta bestelakoak) saltzea nahi izanez gero, nahikoa da argazkia eramatea. Iragarkia egin eta ikusgai jarriko dute azokan. Era berean, nahi dutenek material ezberdinen trukea egin dezakete egubakoitzean.

**ERRETIRATUAK: KARTA TXAPELKETA**

Bestalde, Alaiak erretiratuen elkarteak antolatuta, eguenean mus eta tute txapelketak jokatuko dira eta egubakoitzean briskakoa izango da. Sariak honakoak izango dira hiru txapelketetan: bi gazta, bikote irabazleentzat; bi txanpan botila, azpitxapeldunendako; eta bi ardo botila, hirugarren sailkatzen direnendako. Eguenean zein egubakoitzean 16:00etan hasiko dira txapelketok, erretiratuen egoitzan.

**NIKARAGUARI BURUZKO IKUSPEGIA**

IñakiAgirianok eta Inma Escribanok *Nikaragua, gure esperientzia* hitzaldia egingo dute egubakoitzean kultura etxean, 19:00etan. *Elkartasun egunak Aramaion* programaren barruan kokatzen da hitzaldia.

**ANTZUOLA** > ZERGAK

# Iaztik hona gora egin du auto kopuruak herrian: 1.163 auto daude erroldan

Dagoeneko Udala hasi da autoen zergak kobratzen; helbideratu gabe dutenek ekainaren 30a izango dute azken eguna

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ANTZUOLA

Leku guztietan gertatzen den bezala, auto kopurua gero eta handiagoa da Antzuolan ere. Iaztik hona, modu txikian bada ere, gora egin du kopuruak. Aurten, iaz baino hiru auto gehiago daude erroldatuta herrian.

**1.163 AUTO**

2009ko erroldan 1.160 auto zeuden herrian, eta aurtengo erroldan 1.163. Motorrei eta ziklomotorrei dagokienez, duela urtebete baino zortzi gehiago daude; hain justu, 93 motor. Hala, herrian 2.168 biztanle daudela kontuan hartuta, ia bi biztanleko auto bat dagoela esan daiteke.

Era guztietako ibilgailuak kontuan hartuta, 1.349 daude gaur egun Antzuolan erroldatuta. Iaz 19 gutxiago zeuden: 1.330 –autoak eta motorrak kontuan hartuta–.

**AUTOMOBIL ZERGA**

Automobilen zergari dagokionez, ekainaren 30a izango da helbideratu gabeko automobilen zerga ordaintzeko azken eguna. Zergak helbideratuta dituztenak, ostera, egunotan hasi dira etxean jasotzen helbideratzeak.

**ELGETA** > HEZKUNTZA

# Energia berriztagarriak ezagutzeko eskolako irteera

Parke eoliko bat, zentral hidroelektriko bat eta eguzki plaken instalazio bat ikusten izan ziren eguenean eskolako 65 neska-mutiko

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Agenda 21 programaren barruan energia berriztagarrien gaia lantzen ari dira Herri eskolan. Ikasgeletan ikasitakoa oso garrantzitsua da, baina energia iturri horiek praktikan zelan funtzionatzen duten ikustea oso aberasgarria izan da neska-mutikoendako.

Lau urteko gelakoetatik hasita, eskolako ikasle guztiek egin zuten eguenean txangoa.

**PARKE EOLIKOAN, LEHENENGO**

Guztiak izan ziren Langraitzeko parke eolikoan. Haur Hezkuntzakoak, gero, Landara joan ziren bazkaltzera. Lehenengo Hezkuntzako neska-mutikoek, aldiz, Araiako zentral hidroelektrikoa eta eguzki plaken instalazioa ikusteko aukera izan zuten.

Orain, ikasgelan, txangoan ikusitakoa lantzeko aukera izango dute.



Haur Hezkuntzako neska-mutikoak Langraitzeko parke eolikoan. HERRI ESKOLA

**LEINTZ GATZAGA** > AISIALDIA

# Aste bukaera pasa antolatu du Gurelek herri inguruan

Zapatu goizean hasiko dituzte ekitaldiak eta domekan Atxorrotzera joateko asmoa dute

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Gurel guraso elkarteak aste bukaera pasa antolatu du zapatu goizean hasi eta domeka arratsaldera bitartean, Eskoriatzan Atxorrotz eguna ospatuko dutela aprobetxatuta. Dagoeneko bukatu da izena emateko epea, baina interesa duenen bat egonez gero, berba egin dezala Gureleko kideekin.

Zapatu goizean ume eta gurasoak elkartu (11:00) eta pilotaleku alboko horma margotuko dute: "Asmoa da eskuak pinturan sartu eta norberaren esku markak uztea horman, kolorez betetako artelana egin arte", diote antolatzaileek. Gero elkarrekin bazkalduko dute guztiek eta arratsaldean Artabilla baserri ingurura joango dira gaua pasatzera. "Eguraldiak lagun eginez gero bertako zelai baten egingo dugu lo, kanpin dendetan; eta txarra eginez gero pilotalekuan geratuko gara, oraingo kanpin dendak edozein lekutara moldatzen dira-eta", iragarri dute antolatzaileek.

Gaua pasatu ondoren Eskoriatzarantz joateko asmoa daukate, bertan Atxorrotz mendiko egunarekin bat egin eta jai giroan murgiltzeko.

**EKAINEAN SENDA VIVARA**

Hainbat ekitaldi antolatu ditu Gurelek azken hilabeteotan. Joan zen astean, esaterako, herriko lorontzi, loreategi eta berdegune guztiak txukundu eta apaindu zituzten lore koloretsuekin. Laster uztaileko udaleku irekiak antolatzen hasiko dira eta ekain inguruan Arguedas herrian (Nafarroa) dagoen Senda Viva natura parkera joateko asmoa daukate.

# Kirola





**> FUTBOLA**
Hirugarren mailan, UDAk eta Portugaletek 0-0 amaitu zuten **> 22**

**> LASTERKETA**
Becerrak eta Amilibiak irabazi dute Aloñako igoera **> 24-25**

**> SERGIO GARCIA**
"Kaukasoko espedizioan lau astez egon gara lur azpian, kobatik irten barik! Iluntasunarekin, ez duzu denboraren noziorik" **> 27**





Eskoriatzako Atama Kenpo elkarteko jokalaria kata erakustaldia egiten. JOSETXO ARANTZABAL



Alberto Narro eskoriatzarra borrokan. M.A.



Oiartzungo Kenpo-Kai elkarteko bi jokalari defentsa pertsonal saioan. M.A.

**ARAMAIO** > OSOKO BILKURA

# Jokalari asko eta teknika politak Euskadiko I. Kenpo Txapelketan

**JOKALARIAK** Oiartzun, Legazpi eta Beasaindik, Nafarroa eta Iparraldetik etorri ziren; 90 guztira

**BORROKA** Helduen mailako borroka guztietan Atama Kenpo elkarteko kideak nagusitu ziren

**MIRARI ALTUBE** > ESKORIATZA

Euskadiko I. Kenpo Txapelketak jokalari asko elkartu zituen zapatuan Eskoriatzako Intxaurtxueta kiroldegian: 90 inguru, antolatzaileen esanetan. Asko Eskoriatzako Atama Kenpo elkarteko kideak ziren, beste asko Oiartzungo Kenpo-Kai elkartekoak, eta Beasain eta Legazpitik etorritakoek ere jardun zuten norgehiagokan.

Nafarroako eta Iparraldeko elkarteetako jokalariak ere gonbidatu zituzten txapelketara; baita etorri ere. Horiek ezin izan zuten txapelketan parte hartu –federazio kontuak tarteko–, baina erakustaldi politak egin zituzten eta onenek garaikurrak eskuratu zituzten.

**KATA ETA DEFENTSA PERTSONALA**

Hiru ekitalditan erakutsi zituzten jokalariek kenpo arte martzialaren gaineko jakintzak. Lehen saioan, kata erakustaldia egin zuten. Hainbat teknika erakutsi behar izan zituzten bakarka eta koreografia, koordinazioa, indarra eta orokorrean erabilitako teknika baloratu zizkieten epaileek. Umeek –14 urtetik beherakoek– ezin dute norgehiagokan jardun baina erakustaldi txukunak egin zituzten; tartean, ia 20 eskoriatzarrek jardun zuten.

Bigarren saioan defentsa pertsonal erakustaldiak egin zituzten. Eraso itxurak eginez, besoarekin eta hankarekin kolpeak eman behar izan zizkioten laguntzaile bati. Eraso horiei ere puntuak eman zizkieten epaileek eta kadeteen artean Oiartzungo Naiara Benitez izan zen nagusi, Gorka Caceres eskoriatzarraren aurretik. Helduen artean, Kyu kategorian, Iñaki Zubillaga nagusitu zen eta gerriko beltza dutenen artean Kenpo-Kai elkarteko Jon Ander Arrizubieta.

**BORROKAN, ETXEKOAK NAGUSI**

Hirugarren saioan borrokan egin zuten jokalariek. Bi minutuko saioetan, elkarren aurka hankarekin kolpeak emanaz jardun zuten epaileen begiradapean. Emakumeen artean Naiara Benitez nagusitu zen berriro; eta kadeteetan, Kenpo-Kai elkarteko Jon Ander Rodriguez. Helduen kasuan garaipen guztiak etxeko elkartean geratu ziren: 75 kiloz azpikoetan, Juan Modino; 75 kiloz gorakoetan, Iñaki Zubillaga; eta gerriko beltza dutenen artean, Josu Letona arrasatearra.

Txapelketa bukatzeko, Kenpo Kai modalitatean jardun zuten borrokan hainbat jokalarik.

**Rafa Carriet** > Atama Kenpo elkarteko arduraduna

## "Hamarrekoa emango nioke txapelketari, zoragarria izan da"

**M.A.** > ESKORIATZA

**Kenpo Saileko Euskadiko Federazioko zuzendaria da, baita Atama Kenpo elkarteko burua ere.**



M.A.

**Euskadiko lehen txapelketa Eskoriatzan...**

Bai, elkarteko jendea antolatzeko gertu zegoelako; lan handia da halako txapelketa antolatzea eta inguruko guztien babesa izan dugu.

**Eta zelan joan da?**

Nik hamarrekoa emango nioke, zoragarria. Txapelketa interesgarria izan da, teknika onak egon dira eta gainera jendeak oso ondo pasatu du.

**Norgehiagokan jardundako jokalari guztiak gipuzkoarrak izan dira, ezta?**

Bai, arabarrak eta bizkaitarrak gonbidatu ditugu baina ez dute gura izan etortzerik; hurrengoan.

**Eskoriatzan indar handia du kenpoak.**

Bai, 40 bat izango gara elkartean eta haziz goaz, atzetik ere ume asko datozelako.

**Karate Federazioak gaur egindako lana eskertu gura izan dizu.**

Bai, ezustekoa hartu dut opariarekin; egindako lana aintzat hartu digu eta eskertzekoa da hori.




Julen Eraña baloiaren atzetik Portugaleteko jokalari batekin borrokan. JOSETXO ARANTZABAL

**HIRUGARREN MAILA** > ARETXABALETA-PORTUGALETE

# Irabazi beharra izan arren golik ezin sartuta geratu zen UDA

Urduri zelairatu ziren aretxabaletarrak baina gero erritmo bizia jarri zuten zelai erdian baloia geldi utzi barik

Azken minutuetan izandako aukerak ez aprobetxatu izanaren penarekin bukatu zuten partidua

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Derrigorrez irabazi gura zuen Aretxabaletak atzo etxean jokatutako partidua mailari eusteko, baina Portugaletek ere hiru puntuak eskuratu gura zituen bigarren postuari eusteko, izan ere, Erregе Kopa jokatzeko aukera izango luke horrela. Hala bada, partidu bizia eta erritmo handiko jokatu zuten bi taldeek baina golik ez bukaeran (0-0).

**ERRITMO BIZIA**

Minutu bateko isilunea egin zuten partidu hasieran, batetik Juan Antonio Samarach-en heriotzagatik eta bestetik, Ramon Barrutia aretxabaletarrarengatik, UDAko lehenengo taldeko jokalari izandakoa eta hirugarren mailako Gillen Mar jokalariaren aitajauna. Harmailak betebete eginda, 800 bat lagun guztira, tartean Portugaletetik etorritako autobus bete zale.

Urduri zelairatu ziren Igor Gordobilen mutilak, irabazi beharraren ardura bizkargainean zutela. Eta zelaian kokatzea kosta egin zitzaien lehen minutuetan. Erritmo handia jarri zuten bi taldeek zelaian, eta baloia geratu barik izan zen jokoan uneoro; baina aparteko aukerarik ez ateen aurrean. 28. minutuan aukera polita izan zuen Portugaletek baina Gaizka atezaina argi ibili zen eta arazo barik urrundu zuen. 32. minutuan aretxabaletarrek ere izan zuten aukera baina Gillen area barruan nahastu egin zen eta baloia ezin izan zuen inorengana bideratu. Aukera garbi barik eta oso parekatuta jardun zuten bi taldeek. Lehen zatiko azken minutuetan presio handia egin zuen Portugaletek eta kontraerasoan egindako jokaldi polita ere bai, baina area txikian ez zuten asmatzen eta ez zen golik iritsi.

**AUKERAK EZIN APROBETXATU**

Bigarren zatian aldaketa egin zuen Gordobilek eta dagoeneko txartel horia zeukan Iban Astola kapitaina ez zuen zelairatu. Haren ordez, Raul atera zuen eta eskuman kokatu; erdira, ostera, Kerman ekarri zuen. Portugaletek izan zuen bigarren zatiko lehen aukera 52. minutuan, baina defentsa aretxabaletarrak argi zeuden eta arazo barik atera zuten Gaizkaren ate aurretik. Ondoren, Iker Orueta atera zuen zelaira Gordobilek Imanolen ordez, eta segituan izan zuen horrek Portugaleteko atera iristeko aukera, baina ez zuen asmatu errematatzen. Erasoan atera ziren gero Portugaletekoak eta arriskua handia izan arren UDAko atean Gaizkak kanpora bidali zuen baloia. Azken hamabost minutuetan behin eta berriz saiatu ziren aretxabaletarrak gola egiten, baina ezin. Luzapeneko hiru minutuetan bi aukera ezin hobeak izan zituzten eta Oinatz borrokan ibili zen atezainarekin. Azkenean, baina, husnako emaitzarekin bukatu behar.

Behin partidua bukatuta zaleak, bai alde batekoak, bai bestekoak, asko berotu ziren eta elkarri isekaka jardun zuten behin eta berriro. Eta Azpilikueta epaileari paperezko pilota jaurti zioten harmailatik.

ARETXABALETA
**0-0**
PORTUGALETE

**Aretxabaleta** > Gaizka, Kerman, Andoni, Iban (46. min., Raul), Gorka, Borja, Julen, Haritz, Oinatz, Imanol (55. min., Iker Orueta) eta Gillen (61. min., Ruben).

**Portugalete** > Esteban, Merino (67. min., Quintanilla), Vidal, Otiaño, Aguiar, Zarandona, Zarate, Hernando, Gonzalez, Velez eta Iturriaga (60. min, Del Olmo).

**Epailea** > Azpilikueta; Loran eta Anduaga.

**Bestelakoak** > Ia 800 ikusle Ibarra futbol zelaian.

**Ruben Leonardo** > Jokalaria

## "Gola eskura izan dugu, baina ezinean geratu gara"

**M.A.** > ARETXABALETA

**Bigarren zatiko 16. minutuan zelairatu zen eta gogor borrokatu zituen baloi guztiak. Ondorioz txartel horia jaso zuen.**

**Intentsitate handiko partidua izan da.**

Bai, bakoitzak geure interesak defendatu gura genituen eta dena ematera joan gara; eurek asko daukate jokoan eta guk ere bai.

**Gola falta izan da, ezta?**

Bai, eurek izan dituzte aukera batzuk eta guk eskura izan arren postea izan dugu traban. Beheko postuetan zaudenean zailagoa egiten da gola.

**Geratzen diren bi partiduak irabazi egin behar orain...**

Bai, hurrengoa Amurrioren aurka eta azkena Salvatierrarekin etxean. Eta gero itxaron egin behar bigarren B mailatik inor jaitsi ez dadin eta gutakoren bat aurrean eroan.


J.A.

**Denboraldi gogorra, ezta?**

Bai, asko geneukan ikasteko eta mailari eutsiz gero hobetu egin behar hurrengoan. Eta bestela berriro saiatuko gara igotzen. Lehen bulta ondo hasi genuen baina lesioak izan ditugu eta gainera, gu talde txikia gara.

**OHOREZKO ERREGIONALA** > 29. JARDUNALDIA

# Sailkapeneko azkenaren aurka, sufrituta lortu zuen Mondrak puntua

## Epaileak lau jokalari egotzi zituen: Euskaldunako hiru eta Mondrako bat

## Ohiko hamaikakoan aldaketan egin zituen Andoni Azkargortak

MONDRA
**2-2**
EUSKALDUNA

**Mondra** > Mikel, Laspiur, Etxeberria, Mercader, Zabaleta (Ekain, 45. min.), Castillejo, Heriz, Arregi (Pavon, 65. min.), Murua, Bereziartua (Hernandez, 80. min.) eta Lopez.

**Euskalduna** > Ezkurdia, Telletxea, Fernandez, Marquez, Bereziartua, Manero, Garmendia, Loinaz, Loidi, Sanchez eta Altuna.

**Golak** > 1-0, Heriz, 40. min.; 1-1, Bereziartua, 45. min.; 1-2, Manero, 60.min.; 2-2, Heriz, 80. min.

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE

Samurra beharko lukeen partidua, zaildu egin zitzaion Mondrari zapatuan. Aurrean Andoaingo Euskalduna zuten Azkargortaren mutilek, sailkapenean azkenak. Gainera, etxekoek irabazi beharra zuten matematikoki kategoriari eusteko.

Baina, esan bezala, uste baino lan gehiago egin behar izan zuten berdinketa lortzeko; eta, epailearen lanak ere ez zuen asko lagundu. Lau jokalari egotzi zituen epaileak zapatuan Mojategin: Euskaldunako hiru eta Mondrako bat.

**HAMAIKAKOAN, ALDAKETAK**

Azkargortak aldaketak egin zituen ohiko hamaikakoan, eta amaieran adierazi zigun bezala, gauzak ez zitzaizkion uste bezala atera. Lehenengo zatian Mondrak ez zuen joko ona egin; baloiaren jabetza izan zuten arren, jokoa antolatzeko gai ez ziren izan. Lehenengo aukera garbia 25 minutuan izan zuen Iker Lopezek. Ondoren, Keixik ateratako falta baten, Muruak area barruan eskuinetik erdiratu baina inor ez zen iritsi errematea egitera.

Partiduko lehenengo gola 40.minutuan iritsi zen: Julen Herizek egin zuen. Pozak, baina, gutxi iraun zuen. Euskaldunak 45. minutuan berdindu zuen lehia falta jaurti eta alderatzea aprobetxatuta.

Aldagelatik bueltan, etxekoak hobeto kokatuta zelairatu ziren. 55. minutuan *Keixi*k gora jaurti zuen ezker hegaletik Herizek egindako erdiratzea. Aukera polita izan zen bigarren gola egiteko.

**PARTIDU NAHASIA**

60.minutuan, Euskaldunako jokalariek Ekainek zelai erdian galdutako baloia aprobetxatu zuten kontraerasoan gola egiteko. Handik aurrera, partidua guztiz nahastu zen. 70.minutuan epaileak Garmendia egotzi zuen. Jokalari bat gehiagorekin, Mondrak aurrera egin zuen. Herizek ezkerretik erdiratutako baloia Iker Lopezek ukitu, baina atearen aurretik pasa zen inork sareetan sartu barik. Gero, korner baten ondoren, zutoina jo zuten etxeko mutilek. Azkenean, berriro ere Julen Herizek, berdinketaren gola egin zuen 80.minutuan. Azkeneko minutuak oso nahasiak izan ziren. Epaileak Euskalduna taldeko bi eta Mondrako Illart Etxeberria egotzi zituen.



*Keixi* baloiarengatik lehian. JOSETXO ARANTZABAL

ESANAK

"Horrelako partiduak ez dira izaten onak ez guretzat ezta ikustera datozen zaleendako ere"

"Partidua samurra dela esatea erraza da, baina partidu guztiak zelaian egin jokatu behar dira"

**Iker Laspiur** > Jokalaria

**PARTIDU TXARRA**

Partidu amaieran Iker Lazpiurrek esan zuen horrelako partiduak ez direla onak ez eurentzat ezta ikustera datozenentzat ere.

Partidua samurra ote zen galdetuta: "Partidu guztiak jokatu egin behar dira", zioen Laspiurrek. "Datorren astean Ondarrura joango gara; partidu zaila izango da, beti bezala", aurreratu du Iker Laspiurrek.



JOSETXO ARANTZABAL

## Aretxabaleta eta Antzuolak bana berdindu zuten derbian

Erregional preferente mailako derbia bana berdindu zuten zapatuan Aretxabaleta eta Antzuolak. Lehia nahiko berdindua izan zen; hala, aldageletara husna berdinduta joan ziren. Bigarren zatian, 15. minutuan sartu zuen antzuolarren gola Ibai Azkaratek. Baina, partidua amaitzear zela, epaileak etxekoen aldeko penaltia adierazi zuen. Penaltiaz baliatu ziren aretxabaletarrak partidua berdintzeko. Aretxabaleta sailkapeneko 8. postuan dago eta Antzuola 12. postuan.

> OHOREZKO ERREGIONALA

### Pablo Diaz entrenatzailea haserre itzuli zen Hondarribitik Aloñak erakutsitako jarrerarekin

Aloña Mendik 1-0 galdu zuen zapatuan Hondarribiaren aurka. Galtzeak min ematen du, baina askotan min gehiago ematen du zela galtzen den. Pablo Diaz entrenatzailea haserre zegoen zapatuan bere jokalariek izan zuten jarrerarekin: "Mailari eutsi diogulako ematen du lasaitu egin garela", adierazi zuen haserre.

> OHOREZKO ERREGIONALA

### Etxetik kanpo denboraldiko partidu borobilena egin arren Bergarak 1-0 galdu zuen Tolosan

Tolosaren aurka 1-0 galdu zuten zapatuan Bergarako mutilek. Oso partidu ona jokatu zuten Manu Diazen mutilek; gol aukera asko izan zuten, baina zortea ez zuten alde izan. Hala, partidua amaitzeko 10 minutu falta zirela jaso zuten gola mahoneroek. "Uste dut etxetik kanpo jokatu dugun partidu onena izan dela", zioen.

> EMAKUMEZKOEN IGOERA FASEA

### Mondrak 5-3 irabazi zuen eta lider jarraitzen du; Arizmendik, ostera, 4-2 galdu zuen Zumaian

Arrasateko neskak 0-1 galtzen hasi ziren arren, partiduari bueltа eman eta 5-3 irabazi zuten Amara Berriren aurka. Hala, sailkapeneko lehenengo postuan jarraitzeko du Mondrak.

Arizmendik, ostera, 4-2 galdu du aste bukaeran Zumaiakoren aurka; aretxabaletarrak azken aurrekoak dira sailkapenean.

**ALOÑAKO IGOERA** > 6. EDIZIOA

# Becerra berriz ere eta Amilibia Aloñako probako irabazleak

Arkaitz Letamendi eta Leire Altube izan ziren lehenengo oñatiarrak

Igoerako eta jaitsierako errekorrak ez zituzten gainditu atzokoan

**ARANTZAZU EZKIBEL** > OÑATI

Walter Becerra nagusitu da aurten ere Aloñako igoeran. 1:14:00ko debora egin zuen Becerrak Oñatiko helmugan. Hasieratik menderatu zuen lasterketa Venezuelako korrikalariak. Urtiagainen bera izan zen lehenengoa, eta baita Aloñako puntan ere.

Emakumezkoetan, Aiako Nerea Amilibia izan zen onena: 1:29:59. Becerra bezala, hasieratik jarri zen lasterketaren buruan, eta Amilibia bera izan zen lehen emakumea Urtiagainen eta baita Aloñako puntan ere.

**302 LAGUN**

Becerrak berak lasterketa amaieran adierazi zuen Oñatira ez etortzekotan egon zela: "Aurreko astean gaizki egon nintzen osasunez eta ez nekien etorriko nintzen edo ez. Azkeneko momentuan erabaki dut etortzea ".

Irteera puntuan inoiz baino lasterkari gehiago batu ziren: 302 lagun. Eguraldia lagun, goizeko 10:30ean hasi zuten lasterketa. Oñatitik (230 metro) Urtiagainera (490 metro) igo zuten lasterkariek, Gargaltza auzotik. Urtiagainen Becerra izan zen azkarrena; atzetik heldu ziren Jesus Martin, Ruben Lanz eta Arkaitz Letamendi oñatiarra.

Emakumezkoei dagokionez, Nerea Amilibia izan zen azkarrena Urtiagainen.

**SARI BEREZIAK**

Aurten, bi sari berezi zeuden igoerako eta jaitsierako errekorrak egiten zituztenendako. Baina, ez bata eta ez beste ez zituzten gainditu atzokoan. Gizonezkoetan Becerrak 49:38 egin zuen Aloñako puntan eta errekorra 49:27 da. Emakumezkoetan, Nerea Amilibia izan zen onena baina hiru segundogatik ez zuen errekorra gainditu: errekorra da 1:04:00.

Jaitsierako errekorrak dira: gizonezkoetan 22:25 eta emakumezkoetan 27:35. Atzokoan ez zituzten gainditu.

**LEHENENGO OÑATIARRAK**

Bigarren urtez parte hartu zuen atzo Arkaitz Letamendi oñatiarrak lasterketan; eta, bigarren postua eskuratu zuen. Letamendi gustura heldu zen helmugara, hirugarrenarekiko nahiko tartearekin; hala, alaba txikia besoetan hartu eta batera egin zituzten azkeneko metroak.

Oñatiarrak ondo ikusi zuen bere burua lasterketan: "Nire planteamendua izan da nire erritmora igotzea. Hasieran zure erritmoa ez baduzu hartzen Urtiagainetik gora kosta egiten da. Gora, ondo iritsi naiz, eta beherakoan aldea mantendu dut", adierazi zuen. "Gora behera baino hobeto ikusi dut nire burua. Beherakoan asko arriskatu behar da, eta min hartzeko arriskua dago", azaldu zuen Letamendik.

Lehenengo emakume oñatiarraren saria Leire Altubek eroan zuen. 1:45:11ko denbora egin zuen Altubek. Lasterketa amaieran sendaketak egin behar izan zizkioten Altuberi oinetan; izan ere, izugarrizko babak zituen oñatiarrak. Hala ere, pozik zegoen egindako lanarekin.

"Oñatiarra izanda ezagutzen nuen Urtiagainetik gorako bidea, baina ez nekien hasierako zatia zelakoa zen. Astean zehar ibili naiz nebarekin entrenamendua egin eta bidea ikusten", esan zuen Altubek. Gora edo behera, bere burua non ikusi duen hobeto galdetuta zera erantzun zigun: "Gogorra egin zait, batez ere beherako zatia. Babak atera zaizkit hanketan, eta oin puntetan hasi naiz; hala, bolak kargatu zaizkit".



Walter Becerra Oñatiko helmugan sartzen. JOSETXO ARANTZABAL

**JENDE EZAGUNA**

Asier Urdanpilleta bederatzigarrena izan zen eta Joseba Molinero 13. tokian sailkatu zen. Horiek izan ziren Letamendirekin batera lehenengo debagoiendarrak. Oñatiarrez gain, ibarreko korrikalari asko izan genituen atzo Aloñako igoeran. Baita, jende ezagun edo ospetsuak ere. Esaterako, Aloñako igoeran parte hartu zuen eta lehenengo beteranoa izan zen Alberto Zerain mendizalea: 1:25:05.

"Egun aproposa izan da niretako, jende asko egon da eta pri-

ESANAK



**Nerea Amilibia**
Lehenengo emakumea

"Ondo ikusi dut nire burua, denboraldi hasiera txarra izan dut, eta ez nekien zer egingo nuen gaurkoan, baina gaur oso ondo ikusi dut nire burua. Errekorra egin gura nuen arren, konturatu naiz oso lasterketa gogorra dela eta zaila dela errekorra egitea"



**Walter Becerra**
Lehenengo gizonezkoa

"Domekara arte errekorraren bila etortzea uste nuen, baina aste txarra izan ondoren konturatu naiz ezinezkoa zela. Igoera oso gogorra duen lasterketa da baina oso gustura igo dut. Bidea ezagutzen nuen; hortaz, hori aprobetxatu dut lehenengo iristeko"



**Leire Altube**
Lehenengo emakumezko oñatiarra

"Gogorra egin zait, batez ere beherako zatia. Babak atera zaizkit hanketan, eta oin puntetan hasi naiz; hala, bolak kargatu zaizkit. Lehenengo aldia izateko gustura ibili naiz; gainera, herrian korrika egitea polita da jendeak asko animatzen duelako"



**Arkaitz Letamendi**
Lehenengo gizonezko oñatiarra

"Lehenengoa harrapatzerik ez dago, gora eta behera oso ondo ibiltzen da-eta. Igotzen eta jaisten atera digu denbora. Gora hobeto ikusten dut nire burua. Nahigo dut igotzea, izan ere, asko arriskatu behar da beherakoan, eta min hartzeko arriskua dago"



**Alberto Zerain**
Lehenengo gizonezko beteranoa

"Entzunda nuen oso lasterketa gogorra zela, eta berehala konturatu naiz horrela dela. Oso lasterketa bertikala da. Hala ere, pozik nago egin dudan lanarekin; lehenengo beteranoa izatean esan gura du oraindik ere mendiarekin harremanetan jarraitzen dudala"


Nerea Amilibia, lehenengo emakumea, Urtiagainen gora. JOSETXO ARANTZABAL


Arkaitz Letamendi eta Leire Altube lehenengo oñatiarrak. ARANTZAZU EZKIBEL


Lasterkariak mendian gora eta ikusleak txaloka. JOSETXO ARANTZABAL

meran sentitu naiz. Saria semeari eskainiko diot", esan zuen Oñatiko plazan. Zerainek zazpi zortzimilako igo ditu; eta, bera izan zen Everest igo zuen lehenengo arabarra. Ez dakigu atzokoan ere lehenengo arabarra izango ote zen, baina bai lehenengo beteranoa. "Horrek esan gura du mendiarekin harremanetan jarraitzen dudala", esan zuen pozik.

Lasterketan parte hartu zuen beste bat Joseba Usabiaga Goenkaleko *Tximista* izan zen. Tolosarrak 1:28:33ko denbora egin zuen Oñatiko plazan.

**OROKORREAN, POZIK**

Parte-hartzearekin, eguraldiarekin, zaleekin... pozik egoteko moduan zeuden atzo antolatzaileak. Gustura geratu ziren egindako lanarekin, eta lasterketak izan zuen erantzunarekin.

Aloñako igoera mendi lasterketetan dagoen gogorrenetarikoa da. 15 kilometro eta erdian desnibela 2.200 metrokoa da. Hau da, 8 kilometrotan 1.000 metro igo behar izaten dute lasterkariek.

Nerea Amilibiak, esaterako, errekorra egitera etorri zela esan zigun, baina hasieratik konturatu zela, lasterketa benetan gogorra dela "Gogorra da, baina Euskadiko txapelketa eta kilometro bertikala egiteko asmoa dudanez ondo etorriko zait entrenamendu bezala", esan zigun.

Joseba Molinero oñatiarrak ere esan zigun bidea ezagutzen duen arren, lasterketak bakoitza bere lekuan jartzen duela.

## Sailkapena

| EMAKUMEZKOAK | |
|---|---|
| 1. Nerea Amilibia | 1:29:59 |
| 2. Jaione Sasieta | 1:38:01 |
| 3. Yolanda Gurendez | 1:38:36 |
| 4. Maitane Txueka | 1:39:43 |
| 5. Leire Altube | 1:45:11 |

| GIZONEZKOAK | |
|---|---|
| 1. Walter Becerra | 1:14:00 |
| 2. Arkaitz Letamendi | 1:18:24 |
| 3. Jesus Martin | 1:18:59 |
| 4. Felicisimo Solana | 1:19:22 |
| 5. Angel Arrieta | 1:19:52 |

| EMAKUMEZKO BETERANOAK | |
|---|---|
| 1. Eguzkiñe Montalvan | 1:59:17 |
| 2. Maria Jesus Velasco | 2:11:13 |

| GIZONEZKO BETERANOAK | |
|---|---|
| 1. Alberto Zerain | 1:25:05 |
| 2. Jose Luis Barrena | 1:28:43 |

ITURRIA: WWW.ALOINA.NET

**TXIRRINDULARITZA** > EUSKALTEL-EUSKADI

# Iban Velasco Tourrean izango da zauriak ez direlako larriak

Kolpe handiak ditu sorbaldan eta ipurdian eta bihurritua orkatilan, baina 10 egunetan atseden hartuta ondo izango dela esan diote

**MIRARI ALTUBE** > ARRASATE

Euskaltel Euskadi taldeko Iban Velasco arrasatearrak susto galanta hartu zuen eguaztenean, hilak 21, Flecha-Wallona lasterketan (Belgika) erori zenean. Kolpe handia hartu zuen eta zauri larriak zituela iragarri zioten Belgikako medikuek egindako lehen begiratuan. Horren aurrean, Tourrera joateko asmoak bertan behera utzi beharko zituela uste izan zuen txirrindulari arrasatearrak, baina egubakoitzean Bilbon egindako azterketek berri onak ekarri dizkiote. Hamar bat egunetan atseden hartuta berriro bizikleta gainean jartzeko moduan izango dela esan diote eta Tourrera joateko gertatzen hasiko da orduan.


Iban Velasco. GOIENKARIA

**HAMAR EGUN BARRU BIZIKLETAN**

Sorbaldan eta ipurdian kolpe handiak ditu eta orkatilan bihurritua, baina atseden hartuta osatuko zaizkio zauri guztiak: "Atzo egitekoa nintzen lasterketaren ostean atseden hartzeko asmoa geneukan, hortaz, ez du aparteko eragozpenik sortu gure hasierako asmoetan eta egindako planak beteko ditugu", jakinarazi du oso pozik dagoen txirrindulariak.

Hamar egun pasatutakoan bizikleta gainean jarriko da berriro eta poliki-poliki Tourrera joateko gertatzen hasi taldekideekin batera: "Orkatila zelan dagoen jakingo dugu orduan, baita ipurdiko kolpea ere. Baina ez dut uste arazorik izango dudanik", esan du Velascok. Tourra aurrez aurre duela jakiteak, gainera, indarra emango dio lehenbailehen osatu eta aurrera egiteko.

**SASKIBALOIA** > EMAITZAK

# Eskoriatzako neskek eta Aloñako mutilek irabazi egin dute, eta MUk etxean galdu

Eskoriatzako neskek ligako azkeneko partidua jokatu zuten zapatuan; orain, lauko finala jokatuko dute

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Eskoriatzako neskek 51-38 irabazi zuten zapatuan Donostiako Cafes Aitonaren aurka. Ligako azkeneko lehia izan zen zapatukoa, eta modu horretan sailkapenean bigarren geratu da Fernando Rasok zuzentzen duen taldea.

Orain, lauko finala jokatu beharko dute eskoriatzarrek. Ondo ibiliz gero datorren urtean Euskadiko txapelketa jokatzeko aukera izango dute.

**ALOÑA MENDIK IRABAZI**

Aloña Mendik 55-71 irabazi zuen zapatuan Ocaso Berrio Otxoaren aurka. Oñatiarrak sailkapenean bigarren postuan daude, 48 punturekin. Hala ere, esan behar da lehenengoarekin berdinduta daudela.

Datorren astean Muebles Vizcaya Balmaseda taldearen aurka jokatuko dute –sailkapeneko azkenak–.

**OINTXEK GALDU**

Mondragon Unibertsitateak galdu egin zuen etxean 58-65 Bide Bide Ibiza taldearen aurka.

Zurbanoren mutilak sailkapeneko azken aurrekoak dira. Datorren astean Promociones Legarzia izango dute aurrean.

> ESKUBALOIA

### Partidu ona jokatu ez arren, lasai irabazi zuen Ford Mugarrik (28-31)

Gipuzkoako Kopa jokatzen dabilen Ford Mugarri talde arrasatearrak irabazi egin zuen Ormaiztegin egubakoitz ilunkaran (28-31). Ez zuten partidu ona jokatu, Edu Orgaz entrenatzailearen esanetan: "Zaila da kopan partidu onak egitea, entrenatu ere gutxiago egiten dugu eta minutu gutxi jokatutakoei aukera ematea da asmoa". Hala ere, beti ibili ziren Ormaiztegiren aurretik eta bigarren zatian sei golen aldea ere izan zuten.

Sailkapenean Ford Mugarri da lehena sei punturekin eta Orgazen ustetan Arrate eta euren artean egongo da kontua.

> ESKUBALOIA

### Berdinduta itzuli zen Soraluze Bergara Gasteiztik (30-30)

Corazonistas taldearen aurka jokatu zuen zapatuan Soraluze Bergarak eta berdintzea besterik ez zuen lortu talderik ahulenaren aurka. Gazteen mailako atezainarekin joan ziren bergararrak eta ondo moldatu baziren ere "jokalariek arriskurik hartu barik jokatu" zutela eta igarri egin zela esan du entrenatzaileak.

Atzetik joan ziren lehen zati guztian bergararrak, aurkarien erritmora ezin egokitu, eta atsedenaldirako berdindu egin zuten (17-17). Bigarren zatian hiru gol aurretik jartzea lortu bai baina erasoan akatsak egin eta berdinketarekin konformatu behar izan zuten.

> AUTOAK

### 60 bat auto elkartuko dira domekan egingo duten Udanako igoeran

Oñati Motor taldeak antolatuta IV. Udanako igoera egingo dute domekan, hilak 2. Euskadiko Mendi Igoeren Txapelketarako lehen proba puntuagarria izango da eta antolatzaileek uste dute 60 bat auto elkartuko direla hasierako puntuan, "ohi baino gutxiago, beste lasterketa batzuk daudelako". Eta tartean 10 inguru debagoiendarrak izango dira.

09:00etatik 11:30era autoen kontrola egingo dute eta 14:30ean hasiko da lasterketa: entrenamenduak lehenengo eta bi saio gero. 19:00ak inguruan sariak banatuko dituzte. Udanako errepidea itxi egingo dute 13:00etan.

**ARRASATE**

# Baloiarekin jokatuz futbolean gozatu egin zuten gaztetxoek

**FUTBOLAZ GOZATZEN** Futbola da gaztetxoen kirol gustukoena eta pozik aritzen dira baloiarekin jokatzen

**IBARRA FUTBOL ZELAIAN** Zapatuko saioan AretxabaletakoIbarra futbol zelaian bildu ziren gaztetxoak

**PARTE-HARTZE ZABALA** Lehen Hezkuntzako ikasle ugarik esku hartu zuten zapatuko saioan

**NAROA ODRIOZOLA** > ARRASATE

Kirolen artean erregea da futbola gaztetxoentzat eta, zapatuko saioan, Leintz Eskola Kiroleko gaztetxoek benetan gozatu zuten. Baloia hanketan izanik eta lagunen konpainian, pozik aritu ziren neska-mutikoak.

Arrasateko Mojategi futbol zelaian beste ekintza batzuk zeudenez, Aretxabaletako Ibarra futbol zelaian izan ziren futbol partidak, eta bertara gerturatu ziren Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailetako gaztetxo ugari.

Goizeko 10:00etan hasi eta 12:15 bitartean aritu ziren futbolean. Batzuk 10:00etan hasi ziren jokatzen, eta beste batzuk, aldiz, ordubete beranduago. Horrela, saioa bi txandatan banatu zuten eta txanda bakoitzean lau talde lehiatu ziren. Harmailak ez ziren hutsik egon gurasoak bertan izan ziren-eta, gaztetxoei animoak ematen.

**KIROLDEGIAK GAZTETXOZ BETETA**

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleek Ibarra futbol zelaian futbolean jokatzen zuten bitartean, gainontzeko mailetako gaztetxoak ere kirola egiten zeuden. Iturripe kiroldegian 5. eta 6.mailetako ikasleek eskupilotan egin zuten. Maila bereko neska-mutil talde batek Gipuzkoako Eskubaloiko Txapelketako kanporaketa jokatu zuen Iturripe kiroldegian. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailetako ikasleak saskibaloian aritu ziren Musakola kiroldegian.



N.O

**Kurtzebarri 4**. Zutik: Alaitz, Garazi eta Ihintz. Makurtuta: Uxue, Elene, Iratxe eta Markel.



N.O

**Arizmendi-Almen 3**. Zutik: Alazne, Goizane, Leire eta Oihana. Makurtuta: Garazi, Irati eta Haizea.



N.O

**Arizmendi 4**. Zutik: Olaia, Ane, Leire eta Amaia. Erdian: June eta Enara. Eserita: Leire E., Lide, Aitana, Irene, Sara eta Izaro.



N.O

**Gazteluondo 3 eta Otxandio**. Zutik: Miren, Lore, Alazne eta Xabier. Makurtuta: Lara, Maddi, Eider, Lide eta Jokin.

GUSTUKO DUZU FUTBOLA? ATEZAINA ALA JOKALARIA IZATEA DUZU NAHIAGO?



**Amaia eta Lide**
Arizmendi 4

Arizmendi 4 taldeko Amaiak eta Lidek gustuko dute futbola. Hala ere, Lidek nahiago du eskubaloian jokatu. Amaiari atezaina izatea gustatzen zaio; Lidek, ordea, futbolean jokatzekotan, nahiago du jokalaria izan.



**Garazi eta Oihana**
Arizmendi-Almen 3

Partidua hasi aurretik izan ginen Arizmendi-Almen 3 taldeko Garazi eta Oihanarekin. Esan zigutenez, futbola da bi gaztetxo hauen kirol gustukoena. Garazik atezaina izatea du atsegin; Oihanak, aldiz, jokalari moduan aritzea.



**Julen eta Mikel**
Arrasate Herri Eskola

Julenek eta Mikelek bigarren txandan jokatu zuten, baina lehenago iritsi ziren Ibarrara. Futbola da euren kirol gustukoena, baina Juleni jokalaria izatea gustatzen zaio eta Mikelek nahiago du baloiak geratzea.



**Elene**
Gazteluondo 3

Gazteluondo 3 taldean gaztetxo asko zeuden eta batzuek jokatzen zuten bitartean, beste batzuk atsedenaldian zeuden; Elene, esaterako. Esan zigunez, futbola gustuko du, baina ez atezain lanetan, jokalari moduan baizik.



**Haizea eta Irati**
Arizmendi-Almen 3

Jokatzen hasi aurretik izan ginen Arizmendi-Almen 3 taldeko Haizea eta Iratirekin. "Futbola gustuko dugu", esan ziguten. Hala ere, Haizeak aitortu zigun futbolean jokatzea baino nahiago duela eskubaloian aritzea.


Sergio Garcia espeleologoa, Arrasateko Gaztetxearen kanpoaldean. ARANTZAZU EZKIBEL

GEOGRAFIA
**"Esplorazio geografikoak egiten ditugu, eta baita intsektuak aztertu ere"**

ILUNTASUNA
**"Lur azpitik 2.000 metrora egotea espazioan egotea bezalakoa da"**

TURISMOA
**"Turistendako egokitutako kobetan %0,01 besterik ez da ikusten"**

Sergio Garcia Dils > Espeleologoa

# "Kaukasoko espedizioan lau astez egon gara lur azpian, kobatik irten barik!"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE

**Aloña Mendi eta Besaideko espeleologia taldeek antolatuta, Espeleologia jardunaldiak egin dituzte egunotan. Jardunaldiotan egon da Sergio Garcia Gils espeleologo sevillarra. Arkeologoa da Garcia eta txikitatik datorkio espeleologiarako zaletasuna. Espainiako espeleologia eskolako zuzendaria da.**

**Arrasateko hitzaldia orokorragoa izan da eta Oñatikoa teknikoagoa.**

Arrasateko saioan mendizaleak izan dira ikusle gehienak; horregatik, espeleologia irteerak zer diren azaldu dut. Oñatin, ostera, espeleologo gehiago egon dira; hala, Kaukason esploratzen gabiltzan koba baten berri eman dut. Esan behar da munduko errekorra lortu dugula koba horretan: lur azpitik behera 2.000 jaitsi gara.

**Hain zuzen, zertan zabiltzate koba horietan?**

Esplorazio geografikoak egiten ditugu. Satelite bidez edo beste edozein modutan, gaur egun mundu guztia ezagutzen dugu; lur azpian dagoena, ostera, ezezaguna da guretako.

Tauro mendikatean –Turkia–, Ukranian, Alpeetan... leku askotan ibiltzen gara, baina ezagunena –beti gertatzen den bezala– errekorra egin dugun koba da: 2.191 metrora jaistea lortu dugu.

**Zein izaten da zuen helburua koba batera sartzean?**

Mendian zabiltzanean, zailtasunak bilatzen dituzu, baina mendizaleak badaki non dabilen. Espeleologian, ostera, aurrez inor egon ez den tokiak bilatzen ditugu. Lehenengo koba bilatzen dugu eta gero esploratu egiten dugu.

Gure taldean, adibidez, denetik egiten dugu. Lehenengo topografia eta esplorazioa egiten dugu; baina, gure taldean intsektuetan adituak daude, esaterako.

**Ura ere aztertzen duzue?**

Bai. Ura ez dagoen lurraldeetan, esaterako, ur erreserbak aztertzen ditugu. Hori esplorazioaren bigarren pausoa izango litzateke.

Lur azpia beste mundu bat dela esan daiteke; Kantabrian, Ramales de la Victorian, esaterako, 100 kilometroko luzera duen koba batean izan gara.

**Jende askok galdetuko dizu: zer sentitzen da lur azpitik 2.000 metrora?**

Kaukasoko espedizio honetan, lau astez egon gara lur azpian, irten barik! Sentsazioa da espazioan zaudenean modukoa: ez duzu denboraren nozioa. Eguna edo gaua noiz den ez duzu jakiten, guztiz ilun dago-eta.

Lehen, 60ko hamarkadan, jendea espaziora bidaltzen hasi aurretik, kobetan egiten ziren probak.

**Hortaz, lur azpian ikertutakoak zientziarako balio du?**

Bai, adibide onak dira urik ez dagoen tokietan egiten ditugun esplorazioak. Akuiferoak aztertzen ditugu, baina barrutik. Adibidez, Mauritaniako iparraldean izan gara; desertua da, baina lur azpian ura dago.

**Lehenengo aldia da gurera zatozena eta ez dituzu hemengo kobak ezagutzen. Zer iruditzen zaizu kobak turistendako egokitzea?**

Ondo iruditzen zait. Uste dut espeleologoak ez garela koben jabeak. Positiboa da denek aukerak izatea lur azpian dagoena ezagutzeko. Gainera, herritar normal batek ikus dezakeena lur azpian dagoenaren %0,01 besterik ez da.

**Non daude munduko koba sakonenak?**

Ikertu dugunaren arabera, gaur egun Kaukason daude koba sakonenak, Abjasian. Herrialde txiki bat, Almeria probintzia bezalakoa, gutxi gora behera. Esan behar da, iberiar penintsula guztia, karstikoa den heinean, kobez josita dagoela.



Sergio Garcia egubakoitzeko emanaldian. A.E.

## Joseba Iglesias omendu zuten egubakoitzean

Jardunaldiok aprobetxatu dituzte Udalatxen hil zen Joseba Iglesias gaztea omentzeko. Gogoratu, Iglesias Besaide espeleologia taldeko kidea zela.

Egubakoitzean Arrasateko gaztetxean egindako emanaldiaren aurretik, Iglesiasen omenezko ikus-entzunezkoa jarri zuten. Ondoren, Sergio Garcia Dils-ek hartu zuen hitza *Exploraciones espeleologicas del CAVEX Team. En busca de la sima mas profunda* aurkezteko. Zapatuan, ostera, Oñatin *La sima Krubera-Voronya (-2.191)* aurkeztu zuen.

**PSIKOLOGIA** > KOMUNIKAZIOA

# Aktiboki entzutea garrantzitsua da komunikazio prozesuan

Gurasoen eta seme-alaben arteko harremanean hitzek baino garrantzia handiagoa dute ahots tonuak zein gorputz adierazpenak

**LARRAITZ ZEBERIO** > ARRASATE

*Bi belarri eta aho bakarra dauzkagu, gutxiago hitz egin eta gehiago entzuteko.* Itziar Bartolome psikologoari Zenon de Citión-en esaldia adibide egokia iruditzen zaio komunikazio prozesua ondo ulertzeko. Entzuteak duen garrantzia azpimarratu beharra dagoela uste du.

**AKTIBOKI ENTZUTEA**

"Entzutea, gure gorputz osoa inplikatzen duen jarrera da", dio adituak. Aktiboki entzuteko ezinbestekotzat jotzen ditu barrenak isiltzea eta lasaitzea, eta dio hiru oztopo nagusi kontrolatu behar ditugula: aurreiritziak, urduritasuna eta pentsamendu azeleratua. "Entzuten ari garena hobeto ulertzeko galdera zabalak egin behar dira: Zer esan nahi duzu?, Zergatik esaten duzu hori?, Gogoratzen duzu aurrekoan adostu genuena?...

**ARIKETA PROPOSAMENA**

Seme-alabak entzuteko behar dugun jarreran trebatzeko Bartolomek ondorengoa proposatzen du: lehenik, zuhaitz bat garela irudikatu, duen patxada eta lasaitasuna lortzeko; ondoren, inguruan duguna behatu behar dugu bertan dagoena besterik gabe disfrutatzeko; eta minutu bat eskaini behar diogu jarrera horretan egoteari.

**HEZKUNTZA** > TEKNOLOGIA BERRIAK

## 2.0 programa ikastetxe guztietan txertatu dagoela esan dute Eusko Jaurlaritzatik

Gurasoendako material pedagogikoa 2.0.com webgunean dagoela ohartarazi du Hezkuntza Berritzeko zuzendariak

**L.Z.** > ARRASATE

Maria Luisa Gartzia, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Berritzeko zuzendaria Arrasaten izan da asteon. Debegoieneko Goieskolak teknologia berrien inguruan antolatutako jardunaldian izan zen hitzaldia egiten. Gaitasun digitalaren garrantziaz egin zuen berba, eta Hezkuntza sistemak gaitasun hori eskaintzeko duen erantzukizunaz.

**HEZIKETA TRESNA BALIAGARRIAK**

"Teknologia berriak hortxe ditugu", esan du Gartziak, "eta oinarrizko gaitasun batzuk garatu behar ditugu ikasleen artean". Ikasleei tresna berriak era kritiko eta sano baten erabiltzen erakutsi behar zaiela defendatu du Gartziak: "Ez dituzte beti era onean erabiltzen; horregatik da garrantzitsua ikastetxeak prozesu horretan sartzea". Hezkuntza Berritzeko zuzendariak esan duenez, uneotan, 5. mailako ikasgela guztietan dago sartuta 2.0 programa, eta harrera onarekin, gainera. Arbel digitalak eta ordenadore eramangarriak iritsi dira ikasgeletara eta WIFIa ipini da ikastetxe guztietan konektibitatea hobetzeko. "Ikasle askok erabiltzen dituzte teknologia berriak, baina ez guztiek eta hezkuntza sistemak ikasle guztien arteko berdintasuna bermatu behar du".

**GURASOEN PAPERA**

Maria Luisa Gartziaren esanetan, prozesu horretan gurasoek parte aktiboa izan behar dute: "2.0 webgunean gurasoendako atal berezia ipini dugu. Bertan, material guztiak daude eskuragarri. Etxean deskargatu eta seme-alabei lagun diezaiekete".

**HELBURU NAGUSIAK**

"Umeak ez dira egun guztian ordenagailu aurrean egongo", esan du Gartziak. "Testu liburuak ez dira desagertuko". Helburua da ikasleak, lehen hezkuntzatik irteterakoan, Interneten informazioa bilatu, gorde eta tratatzeko gaitasuna izatea.



Ikasle taldea ordenagailu aurrean. EIRUGA



Eneida Unamuno, AGIPASE elkarteko gizarte laguntzailea. GOIENA

**Eneida Unamuno** > Gizarte laguntzailea

## "Guraso bananduei zerbitzua emateko bulegoa zabalduko dugu Bergaran"

**L.Z.** > ARRASATE

**Gipuzkoako Guraso Bananduen elkarteak bi egoitza berri zabaldu gura ditu epe motzean, bata Bergaran. Banaketa prozesuetan laguntza profesionala ematea da elkartearen xedea.**

**Egia da abiarazten diren banaketa prozesuen kopuruak behera egin duela azken boladan?**

Bai, krisiak bere eragina izan du kontu honetan ere. Banatze prozesuak luzeak eta garestiak izaten dira. Hori izan daiteke arrazoia. Dena den, jaitsiera txikia da.

**Zer da AGIPASE?**

Gipuzkoako Guraso Bananduen elkartea da, 1994an sortua. Egun bi bulego ditugu, biak Donostian. Gure asmoa da laster baten Bergaran eta Eibarren ere zerbitzua emateko bulegoak zabaltzea. Bergaran, seguruenik, kultura etxean izango da eta hasiera bateko asmoa da hilean pare bat egunez zerbitzua eskaintzea. Banatzeko erabakia hartzen duten bikoteei talde profesional baten orientazioa ematea da gure xedea; gizarte laguntzaileak, abokatuak eta psikologoak ditugu.

**Adingabeek nola bizi dituzte banaketa prozesuak?**

Banaketa prozesu bat beti da zaila, eta nire ustez seme-alabei kalterik txikiena eragiteko egokiena partekatzea da; gurasoak akordio batetara iristea. Elkartean adingabeen ongizateari ematen diogu lehentasuna, eta horretarako garrantzitsua da prozesuan ez egotea ez irabazlerik ez galtzailerik.

**Gurasoek arduraz jokatzea, beraz, ezinbestekoa da?**

Ez dira seme-alabak ahaztu behar. Umeek bi gurasoekin egoteko eskubidea dute, eta bermatu egin behar da hori. Umeen adina baino garrantzitsuago da gurasoek banaketaren aurrean erakutsitako jarrera.

**"Seme-alabei kalterik txikiena egiteko ona da gurasoak akordio batera iristea"**

**"Umeen adina baino garrantzitsuagoa da banaketaren aurreran gurasoen jarrera"**

> OSASUNA

### Zeliakoendako botiken gida kaleratu dute Bizkaiko Farmazialarien elkartearen laguntzarekin

Euskadiko Zeliakoen elkarteak kaleratu du gida Bizkaiko Farmazialarien elkartearen laguntzarekin. Bi zerrenda ditu gida horrek: glutenik gabeko botikak datoz baten, eta botikek zenbateko gluten kantitatea duten jasotzen du bigarrenak.

Aipatutako informazioa eskuratzeko bi webgune daude: Euskadiko Zeliakoen Elkartearen webgunea –*www. celiacoeuskadi.org*– edo *guraso.com*.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com



**> MUSIKA ESKOLAK**
Debagoienekoek eta Soraluzekoak kontzertua eman zuten, barikuan **> 30**



**> GANBARA TXIKI**
Torreviejako Habanera Lehiaketa irabazi du Oñatiko abesbatzak **> 31**



**> SU TA GAR**
Gozamena Hiru aretoan, euskal metal musikaren talde erreferentearekin **> 31**

# Jai koloretsua eta jendetsua ospatu du Enpresagintzak

**50 URTE**
Urrezko eztei borobilak ospatu ditu Enpresagintzak

**MOZORRO FESTA**
Irakasle eta ikasleek bikain erantzun zioten mozorrotzeko deiari



Malenkonia, Potemkin eta We Are Standard (argazkian) taldeen emanaldiek jendetza handia batu zuten. JOSETXO ARANTZABAL

**MAIDER ARREGI** > OÑATI

Festa arrakastatsua eta benetan alaia ospatu zuen MUko Enpresagintza fakultateak. Goizetik, 60ko hamarkadako jantzi dotoreak soinean, ekintza ugarirekin gozatu zuten ikasle zein irakasleek. Krosa, lehiaketak, trikitilariak, karaokea, bazkaria... ekintza mordoa urrezko ezteiak ospatzeko. Parte-hartzea txalotu gura izan du fakultateak: " Balorazioa ezin hobea da bai parte-hartzaileen aldetik, baita sortutako giro onagatik ere. Urteurrena ospatzeko ikasleak direla ardatza kontutan hartuta, garrantzitsua zen egun hau berezia izatea, eta uste dugu lortu dugula".

**JAIALDIKO IZARRAK**

Lore festari amaiera bikaina emateko, kalitatezko hiru talde aritu ziren zuzenean.

Malenkoniak eman zion gauari hasiera. Heldutasuna eta konfiantza lortu dute agertokian. Gertutasuna azaldu zuen seikoteak eta publikoaren erantzuna ezin hobea izan zela azaldu zigun Iñigo Ugarte gitarra-jotzaileak: "Disfrutatu egin dugu emanaldiarekin. Jendea zure abestiak kantatzen ikusteak sekulako satisfakzioa eta indarra ematen dizu". *Ilargiruntz*, *Julietten bidaia* edota Cold Play taldearen *In my place* abestiekin motorrak berotu zituzten. Maiatzerako zuzenekoetarako sorpresa eta abesti berriak prestatzen dihardutela azaldu ziguten.

Ondoren, Potemkinen txanda. Boskote bilakatuta eta taldekide berriekin, indar berrituta azaldu ziren jendaurrean. Rock-and-roll arima stonerrarekin bikain uztartzen dute oñatiarrek. Badakite ikuslea nola erakarri eta aztoratu. Sorpresaz betetako gaua izan zen, eta jarraitzaile sutsuenendako oparia ere izan zen. "Joxe Mariri behar den moduko omenalditxoa egin diogu, eta gurekin agertokira igotzea nahi genuen, beti gurekin izango delako". Hala, Joxeren baxuaren burrunbek eman zioten hasiera *Infernuan hit* oihukatuari.

Sorpresak ere izan ziren, *Born To Be Wild* abestiaren bertsioa edota maketako *Lehertu*. Esklusiba eta guzti: Potemkin, Espainiako Estatuko Metal Punk Rock *managerren* gidaritzapean izango da. Espainian bira egingo dute; hala ere, Europara joateko ateak ere zabalik dituztela azaldu digute.

Giroa bero-bero zegoela hasi zuten emanaldia gaueko izarrek. We Are Satandard taldea eskarmentuduna da eta badaki jarraitzaileekin bat egiten. Taldearen zuzenekoak festa bilakatzen dira. Konfetiz bete zuten gaua ehunka zale kolorez bustiz.

Lehenengo diskoko klasikoak, maketakoak eta azken diskoko abestiak eskaini zituzten. Hala, *Last time*, *The first girl who got a kiss, Other lips, other kisses* edota *Waiting for the man* bertsio zoragarriarekin, publikoa erotu zuten. Azken hori jotzen hiru urte daramatzate. "Velvelt Undergraund taldearen bertsioa jotzen oso gustura sentitzen gara eta publikoaren artean sekulako erantzuna du; gustuko du entzutea eta eskatu egiten digute", azaldu zigun Deu abeslariak. Zalantza gabe, 60ko hamarkadako lore festari amaiera paregabea emateko 60ko abesti ezin hobea da. "Oñatikoa plaza ona da; Ruper ere hemengoa da eta igartzen da musikaren indarra".

Orain, Bartzelonara joango dira eta, laster, Ingalaterrara eta Japoniara. Baina, uda aurretik sorpresatxo bat zaleentzako: azken diskoaren edizio berri bat kaleratuko dute nahasketa berriak dituzten abestiekin.

DATUA

**250**

**BAZKARI JENDETSUA**

MUko Enpresagintza fakultatekoko ikasle zein irakasleek bazkari jendestua egin zuten. Gainera, Bidasoako Enpresagintza campuseko ikasleez betetako autobusa etorri zen Oñatiko jaiaz gozatzera.



Futbolin txapelketan ikasle eta irakasleak fin aritu ziren. MAIDER ARREGI



Oñatiko eta Bidasoako campusetakoak bazkarian izan ziren. M.A.



Karaokeak bazkalostea alaitu eta girotu zuen. M.A

**KONTZERTUA** > MUSIKA ESKOLAK

# Sasoi betean Soraluzeko eta Debagoieneko musika eskolak

Amaia antzokia beteta, zazpigarren urtez, Musika Eskoletako gaztetxoek aho bete hortz utzi zuen ikusle bat baino gehiago barikuko kontzertuan



Aretxabaletako Leizarra musika eskolako taldea emanaldiaren une batean. JOSETXO ARANTZABAL

**MAIDER ARREGI** > ARRASATE

Bigarrenez, Arrasaten egin zuten Debagoieneko eta Soraluzeko musika eskolek emanaldia. Amaia antzokia beteta, ordu eta laurdenez, gaztetxoen musikaz gozatzeko aukera izan zuten bertaratu zirenek. 8-20 urte bitarteko ikasleek dena eman zuten taulan gainean. Musika alaiak eta erritmoz betetakoak, txalo zaparradak eragin zituen ikusle gazte zein helduen artean.

Arrasate Musikaleko irakasle eta ekintza arduradun Edorta Aiastui, oso gustura azaldu zen gaztetxoek egindako lanarekin. "Gazte askorengan ikusmina piztu du emanaldiak eta hori pozgarria da. Adin ezberdineko jendea izan dugu Amaian eta gustura gaude emanaldiak izandako harrerarekin".

**HARREMANAK SUSTATUZ**

Musika eskolek, orain zazpi urte abian jarri zuten ekimenak, sutraiak eman ditu. Helburua, musika ikasteaz gain, harremanak sendotzea ere badela azaldu du Aiastuik. "Gure asmoa, umeek elkar ezagutzea eta besteen lana entzutea ere bada". "Nahi duenak, musikan aritzeko eta ikasteko aukera dauka. Giro paregaenean, harremanak ere sortzen dira gaztetxoen artean eta nahi duenak ateak zabalik ditu".

**MAILA PAREGABEA**

Soraluze, Bergara, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Oñatiko musika eskoletako ikasleek, jendea zutik jarri zuten. Metal, jazz, folk eta rock doinuek, abesbatzen goxotasunekin bat egin zuten. Amaiera borobila Bea Asurmendi Arrasate Musikaleko ikasle ohiak eman zion.

DATUA

**110**

**MUSIKA IKASLE**

Urtetik urtera parte-hartzaileen kopurua goraka doa. Aurten Amaia antzokia bete egin da. Taula gainean, emanaldi borobila eskaini dute 110 musika ikaslek.

ESANAK

**"Horrelako musika emanaldiak egiten diren bitartean, musika eskolak bizirik eta indarrean dauden eredua da"**

**Edorta Aiastui** > Musika irakaslea

ABESBATZEN TOPAKETA

## 200 bat gaztetxo gustura aritu ziren

Eskolarteko abesbatzen topaketa egin zuten zapatuan ibarreko gaztetxoek. Arizmendiko Arimazubi, Gazteluondo eta Santa Teresako ikasleak, Oñatiko Txantxiku Ikastolako gaztetxoak eta Aramaioko eskolako ikasleak emanaldi polita eskaini zuten Urkape pilotalekuan. Bukaera borobila eskaini zuten denek elkarrekin abestuz agertokian.

Sarreran jasotako diruaren %25a, GKE batendako izango da. Aurten, Haitiko hondamendian kaltetutakoendako bideratuko dute laguntza.



Estilo askotako musika izan zen atzo entzungai Bergarako Zabalotegi aretoan. JOSETXO ARANTZABAL

**MUSIKA LEHIAKETA**> II. MUSIKA MODERNO LEHIAKETA

# The Danyed talde donostiarrak eskuratu du lehen saria

The Danyed taldearen freskotasuna, indarra, eszenaratzea eta musikari guztien maila bikaina hartu dute kontuan epaimahaiko kideek

**MAIDER ARREGI** > BERGARA

Rockak, popak, bluesak eta soulak jantzi zituen atzo, domeka, Zabalotegiko hormak. Iaz martxan jarri zen lehen aldiz Musika Moderno lehiaketa, eta aurten, parte-hartze eta maila handiagoa erakutsi du. Gitarra elektrikoa, baxua, pianoa...izan zuten askok lagun.

**14 TALDE**

Gipuzkoa osotik etorriak, oso estilo ezberdineko 14 taldek eskaini zuten zuzenekoa Zabalotegiko agertokian. Urduritasunari eta sentimenduei aurre eginez, zuzeneko bikainak izan ziren entzungai. Marije Ugalde musika eskolako zuzendariak azaldu moduan, maila ezin hobea erakutsi zuten gazteek: "Maila altua benetan, eta giroa oso polita izan da. Estilo ezberdinak izan dira entzungai eta bertaratutakoek disfrutatu, gozatu, egin dute askotariko musika estiloekin".

**DONOSTIARRAK GARAILE**

The Danyed talde gazteak txalo zaparradak eragin zituen. Eurendako izan zen sari nagusia. "Martxa polita jarri dute taula gainean. Abeslariak txunditda utzi du publikoa. Pianojotzailearen eta gitarra-jotzailearen lanak ere txalotzeko modukoak izan dira. Esan sekulako eszenaratzea dutela eta epaimahaiak hori ere baloratu duela. Denak dira musikari oso gazteak, baina apartak", azaldu zuen Ugaldek.

Ikusleak ere gustukoena aukeratu zuen eta sari hori, Soraluzeko Game Over taldearendako izan zen.

Ikusitako harrera kontuan izanda, hurrengo urtera begira asmoa da hirugarrenez egitea Musika Moderno lehiaketa.



**ABESBATZA** > SARIA

# Ganbara Txikik Torreviejako Habanera lehiaketa irabazi du

Aitor Biainek zuzentzen duen taldeak zapatuan egin zuen emanaldia. Lau obra abestu zituzten: hiru habanera eta polifonia bat


Oñatiko abesbatzako kideak. GANBARA TXIKI

**ARANTZAZU EZKIBEL** > OÑATI

Oñatiko Ganbara Txiki abesbatzako lagunak pozik eta sariarekin etorri dira Torreviejatik. Aste bukaeran gazte mailako Torreviejako Habanera eta Polifonia lehiaketa jokatu dute; eta, beste lau talderen aurka lehiatu ondoren lehenengo postua eskuratu dute.

Egubakoitzean, zapatuan eta atzo, domeka, izan ziren emanaldiak. Oñatiko abesbatzak zapatuan abestu zuen. "Oso ondo abestu genuen, inpresio onarekin geratu ginen", adierazi du Aitor Biain abesbatzako zuzendariak.

Atzo, domeka, egin zuten sari banaketa eta oñatiarrek atzo jakin zuten lehiaketako irabazleak izan direla.

**EPAIMAHAIA TXUNDITUTA**

"Epaimahaiko kide guztiak etorri zaizkigu banan-banan zoriontzera. Oso talde orekatua garela esan digute, afinazio ona dugula eta eszenaratze polita", esan zuen pozik Biainek.

Lau obra abestu zituzten oñatiarrek Torreviejan: *Testigo de amor* habanera –talde guztiek derrigorrez abestu beharrekoa–, *Habanera salada*, Tolosako inauterietan oinarritutako David Azurzaren *Habanera del carnaval*, eta *Angelus* polifonia.

**CUBATARRAK BIGARREN**

Ganbara Txiki, Espainiako hiru talde eta Cubako Cantoria Solfa taldeak lehiatu dira lehiaketan. Cubatarrak bigarren postuan geratu dira eta Villanueva de la Serenako Arte Vocal juvenil hirugarren postuan.


Su Ta Garreko kideak oholtza gainean. JOSETXO ARANTZABAL

**MUSIKA** > KONTZERTUA

## Betiko indarra erakutsi zuen Su Ta Gar taldeak

**NON:** Arrasateko 3 aretoan.
**EGUNA:** Zapatua, apirilak 24.
**ZENBAT JENDE:** 100 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Bi ordu eta erdi.

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Jende asko batu zen zapatuan Su Ta Gar entzuteko gogoz 3 aretoan. Euskal musikagintzan erreferente dira eibartarrak. Zale asko dituen taldea da, eta horiek ez zuten hutsik egin. Ezta taldekideek ere.

Urteak pasa arren, betiko indarrarekin jarraitzen dutela erakutsi zuten eibartarrek Arrasaten. Azaroan ateratako *20 urte* izeneko lana aurkeztu zuten; baina, betiko kantek ere izan zuten bere lekua.

**ZALEAK, ABESTEN**

Aitor Gorosabel abeslariak ondo konektatu zuen Arrasateko publikoarekin. Gainera, esan behar da David Zarzosak baxu-jotzaile berria izan zela 3 aretoan Su Ta Gar taldearekin. Harrera beroa jaso zuen jarraitzaileen aldetik.

Abiadura eta erritmo biziarekin 3 aretora joan ziren jarraitzaileek kontzertuaz gozatzeko aukera izan zuten.

**KIROLA** > OSASUNTSU BIZITZEKO JARDUERAK

# Ariketa fisikoa haurdunaldian

**OLATZ MANUEL**

Gizartean gero eta hedatuago dagoen mugimendu txikiko bizimodutik aldentzeko gakoetako bat da eguneroko bizimoduan norbera aktiboki egotea.

Jakin badakigu jarduera fisikoa erregulartasunez egitea garrantzitsua dela osasun onari eutsi eta sasoian egoteko. Haurdun dagoen emakumearentzat ere berari egokitutako jarduera mesedegarria da, aurreiritzi okerrak egon arren.

Kontuan izan behar dugu jarduera osasuntsua izan dadin egokia ere izan behar duela; hau da, haurdun dagoen emakumeak ezingo dituela edozein motatako ariketak egin.

Garrantzitsua da, lehenengo eta behin, medikuaren aginduei kasu egitea, eta, kasuren baten jarduera fisikorik ez egitea eskatuz gero, esandakoa betetzea.

Haurdunaldian hiru hiruhilabete bereizten dira: lehenengo hiruhilabetean, emakumeak ia ez du pisurik hartzen, baina abortua izateko arrisku handieneko aldia da; beraz, jarduera fisiko erregularra egin daiteke, baina esfortzu eta intentsitate handirik sartu gabe, batez ere odol galerak egon direnean edo aurretik aborturen bat jasan bada.

Bigarren hiruhilabetean, emakumea hobeto sentitzen da eta une egokia da jarduerarekin jarraitu eta gozatzeko.

Azken hiruhilabetean, emakumearen gorputzak eragozpen gehiago jartzen ditu, traketsago sentitzen da; hala ere, jarduera fisikoa egiten jarrai dezake.

**HAINBAT ONURA**

Jarduera fisiko egokia egiteak haurdun dagoen emakumeari ondorengo onurak eragingo dizkio, besteak beste:

- Gehiegizko pisua saihestea.
- Likidoen erretentzio arriskua txikitzea.
- Bizkarreko minak izateko aukerak txikitzea.
- Erditze unerako gorputzaren egoera hobetzea.
- Dilatazio aldia motzagoa izatea.
- Bultzatu eta laguntzeko prestatuago egotea.
- Ondorengo errekuperazio aldia nabarmen arinagoa izatea.

Jarduera fisikoa modu desegokian egiteak, berriz, arriskuak ekar ditzake:

- Jarduera fisikoa intentsitate handiegian egiteak umetokia odol gutxirekin geratzea ekar dezake.
- Emakumearen gorputzeko tenperaturak ez luke inoiz 38º gainditu behar. Ez da komeni sauna eta ur berotan ibiltzea, ez eta jarduera fisikoa eguneko ordurik beroenetan egitea ere.

Horretarako aukera ona da eraikuntza iraunkorra: orain, eguzki plaken bitartez atera daiteke ura putzu batetik eta aldi berean araztu. GKE batek patentatu du jada sistema hori eta martxan jartzen ari dira leku askotan.


Haurdun dagoenari jarduera fisikoa egiteak onurak ekarriko dizkio. GOIENKARIA

**EGIN DITZAKEGUNAK**

- Ur jarduerak: urak inpakturik gabeko jarduerak egitea ahalbidetzen digu. Beraz, igeriketa saioak oso osasuntsuak dira haurdunaldian.
- Inpaktu txikiko jarduera aerobikoak: oinez ibili, bizikleta estatikoa, dantza geldoak...
- Giltzaduren mugikortasuna lantzeko ariketak; malgutasun ariketa kontrolatuak.
- Erlaxazioa eta arnasketa kontroleko jarduerak: yoga, pilatesa haurdunentzat egokitua...

**SAIHESTU BEHARKO GENITUZKEENAK**

- Inpaktu handiko jarduerak: aerobik bortitza, saskibaloia, futbola, areto futbola, eskubaloia...
- Borroka eta kontaktuko kirolak: errugbia, arte martzialak, eskubaloia...
- Erorketa arriskua duten jarduerak: patinajea, bizikleta irteerak, eskalada, eskia...
- Izaera lehiakorreko jarduerak.
- Ahuspez etzanda egin beharreko ariketak (batez ere laugarren hilabetetik aurrera).

**Atal honetan...**

Astero-astero, Arizmendiren eskutik, intereseko gaiei buruzko aholkuak.

Arizmendi ikastola PRO 2.0 PROFESIONALAK
Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketa

Abantailaz betetako kluba!

Goiena kluba

# Atera etekina txartelari!




## Abantailak

- Goienkaria astelehenetan eta ostiraletan etxeko postontzian jasotzea
- Goienak antolatutako ekitaldi eta ikastaroetan prezio berezia
- Goienak kaleratzen dituen produktuetan prezio berezia: DVD kopiak, CDak, kamisetak, Goienkaria-ko Sailkatuak, eskelak, ekitaldietarako sarrerak... eta orain, opari eta deskontu paregabeak lortu ditugu zuretzat

**Eta gainera, Goiena Klubeko zozketetan parte hartzeko aukera izango duzu.**

## Deskontu bereziak

LILURA EDERTZE INSTITUTUA

**BERGARA (Bazkidearentzat eta lagunarentzat)**
- Laser depilazioa: hanka osoa + izterrondoa **-%15** + opari besapekoak (axilak).
- -%20 elikagai-intolerantzia proban.
- -%10 mikropigmentazioan: begietan, ezpainetan edo bekainetan.
- -%10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

RENAULT AUTOBERRI

**ARRASATE/AZPEITIA/ELGOIBAR/IRUN/TOLOSA**
- **-%5** konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- **-%25** saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa 20 euro.
- Erosketetaren momentuan, goian aipatutako deskontua baino handiagoa badago, bezeroari deskontu handiena eskainiko diogu.

IKER SUKALDEAK

**ARRASATE/OÑATI**
- Sukalde osoa erosita, etxetresna elektriko bat opari.

Barceló Bidaiak

**BERGARA/ARRASATE**
- **-%5** pakete konbinatuetan 600 eurotik gorako erosketagatik (eskaintza berezietan izan ezik).

ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA) AVIA

**ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA)**
**ARRASATE**
- **-%2** gasolindegian erregaia erosita.
- **-%2** dendako produktuetan.

MONDRAGON LINGUA

**ARRASATE /OÑATI (18 urtetik gorakoentzako bazkideentzat)**
- **-%15** ingeleseko eta euskarazko ikastaroetan, SISTEMA KONBINATUAN. Ikasturte osoan.
- **-%15** aurrez aurreko eskoletan.
  Eskaintzaren epemuga: 2010/03/01

naren FISIOTERAPIA ZENTROA

**ARETXABALETA**
- **-%15** zerbitzu guztietan.

CLINICA DENTAL BERGARA

**CLINICA DENTAL BERGARA**
**BERGARA (Bazkidearentzat eta familiako batentzat)**
- **-%10** zerbitzu guztietan
- **-%15** inplanteetan.
- 120 eurotik gorako tratamenduetan garbiketa doan.

TXURI-URDIN Donostia

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan, ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia.
- **-%20** larunbatetan eta igandeetan, ez bada zubia edo oporraldia.
- **-%10** zubi eta oporraldietan.

AQUARIUM DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

**DONOSTIA**
- Bi erosi bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

LARRAÑAGA AUTOESKOLA

**BERGARA**
- **-%15** inskripzioa ordaintzean.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

**Enpresendako: Zure enpresa Goiena Klubean eskaini nahi baduzu jarri gurekin harremanetan.**

**Telefonoa: 943 25 05 05 | Posta-e: *kluba@goiena.com***

GURE TALDEAK

## Adi Holden




Ezkerretik eskuinera, Txarli, Alex, Arturo eta Ruben. ADI HOLDEN

# "Esperimentatzea atsegin dugu, eta elektronikarekin egin dugu"

Danbaka lehiaketako Debagoieneko talde onenaren saria irabaztearren Adi Holden taldeak izen bereko lehen diskoa grabatu du

Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak kaleratu du lana, eta esan digute euskaraz abesten dutela istorioak "sinesgarriagoak" egiteko

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

**Danbaka musika lehiaketan Debagoieneko talde onenaren sariaren emaitza jaso dute Adi Holden taldeko kideek: izen bereko lehen diskoa kaleratu dute Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin. Ruben Gaunarekin egin dugu berba.**

**Diskoan, melodia goxoetatik kontrolik gabeko eromenera pasatzen zarete. Bizitza kontrastez beteta dago?**

Bai, hala da. Amodioa, heriotza, barrea, negarra, tristura, poza, gorrotoa.... Halako egoera batetik bestera edozein unetan pasa gaitezke.

**Gustura zaudete diskoarekin?**

Oso gustura gaude. Eskerrak eman nahi dizkiegu Jesusmari eta Iñaki Bengoari emandako laguntzarengatik eta Gaztelupeko Hotsetako *Zarra*-ri.

**Zer irudikatzen dute diskoko natura hileko argazkiek?**

Gure inguruko paisaia industriala eta natura nahi genuen irudikatu. Jose Mari Galanek egin dizkigu argazkiak. Lerro hauen bidez eskerrak eman gura dizkiogu.

**Cool Panic taldean rock gitarreroa ingelesez egiten zenuten eta orain post rocka euskaraz egiten duzue. Aldaketa itzela da.**

Cool Panic desegin genuenean, Alexek eta biok buruan genuen aspaldiko proiektua martxan jartzea erabaki genuen. Kantuak euskaraz idaztea erabaki genuen entzuleengana hobeto heltzeko eta kontatzen genituen istorioak sinesgarriagoak izateko.

Bestalde, etiketak ez zaizkigu gustatzen. Guk sentitzen dugun musika egiten dugu, eta barruan daukaguna erakusteko erabiltzen dugu. Gainera, egungo musika estandarraz nahiko nazkatuta gaude.

**Danbaka lehiaketara aurkeztu zineten hiru kontzertu bakarrik eginda.**

Taldea sortu genuenen ez genuen Danbakara aurkezteko asmorik, taldea osatu barik genuen-eta. Lasaitasunez hartu gura genuen gure bidea, eta kantuak idazteko denbora hartu. Baina erritmo ona hartu genuen, eta, Danbakako formatuak 30 minutuko emanaldia eskatzen zuenez, animatu egin ginen. Ezustea izan zen finalerako sailkatzea. Ondoren, entzuleen saria irabazi genuen, eta disko berria da sari haren emaitza.

Gainera, txalotzekoa da Danbakako antolatzaileek egiten duten lana, gure musika ezagutarazteko aukera ezin hobea eman digutelako. Esperientzia polita izan zen.




### Arriskatuz eta hitzak ganoraz landuta

Bergarako musikari hauek sorpresa eman zidaten Cool Panic-en ingelesez abestutako rock-and-roll gitarreroa alboratu eta jantzia erabat aldatu zutenean.

Erabat aldatu dira, gainera. Euskarazko hitz landuak idatzita, 90eko hamarkadako intentsitatedun rocka hartu dute orain abiapuntu. Eta proiektu honekin bizkarrean oso kontzertu gutxi egin dituzten arren, dagoeneko erakutsi dute gai direla etengabe esperimentatu eta giro berriak sortzeko. Ama Say, Cancer Moon eta Sonic Youth dira erreferentzia batzuk.

Iker Barandiaran.

**Kontzertu oso gutxi egiten dituzue. Zergatik?**

Denbora luzea daramagu entsegu lokalean abesti berriak egiten eta zaharrei ukitu bereziak ematen. Orain, taldekide berria daukagu, elektronika erabiliz abestiei ukitu bereziak emateko.

Bestalde, musikaz kanpo beste egitkizun berri batzuk daukagu –Alex taldekideak umea izan du–. Familiari ematen diogun denbora musikari kentzen diogu.

**Inoiz esan duzue zuen kontzertu guztiak desberdinak direla. Zergatik? Nolakoak dira?**

Gure abestien hitzen moduan, oso gordinak gara. Dena den, esperimentatzea gustatzen zaigu. Oraingo diskoan elektronikarekin egin dugu, baina batek daki... agian, hurrengo baten bi baxu-jotzaile erabiliko ditugu. Ahalik eta gehien esperimentatu gura dugu, eta ez diogu ezeri ateak ixten.

**Non eros daiteke diskoa?**

Diskoa salgai dago Gaztelupeko Hotsetako webgunean (*www.hotsak.com*) eta Elkar dendetan. Era berean, gure kontzertuetan eros daiteke.

# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza salgai erdialdean. 72 metro koadro eraikigarri. Hiru logela, sukaldea, egongela, komun bat eta trastelekua. Prezio interesgarria. 659 64 67 38

**Arrasate.** San Andresen, Arrasate dorrean, 93 metro koadroko etxebizitza salgai. Dena kanpoaldera begira eta ondo kokatua. Lau logela, bi komun, sukaldea, egongela eta bakoitza 32 metro koadroko bi terraza. Eguzkitsua. 297.500 euro. Isabel. 690 07 85 83

**Bergara.** Bidekurutzetakalean etxebizitza salgai. Sukaldea, egongela, bi logela, bainugela eta trastelekua. Guztiz berritua. Aukera ona. 171.000 euro. 618-44 38 44

**Bermeo.** Barrua eraberritua, sartzeko moduan. Teilatua egiteko. Eusko Jaurlaritzak laguntzak ematen ditu berrikuntzak egiteko alde zaharrean dagoelako. Kontaktua Ainhoa. *ainhoafa@hispavista.com*

**Berriz.** Berrizen pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, ganbara handia eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Guztiz berriztua eta egoera ezin hobean. 647-77 73 92

**Donostia.** Pisua salgai Antiguon. Eraberritua dago eta bere altzariekin saltzen da. 60m2 eta bi logela. 608-01 96 93

**Durango.** Pisua salgai San Inazion. Sukaldea, hiru logela, bi komun eta saloia. 70 m2-ko terraza indibiduala. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-hegoalde). Ikuspegi zoragarria (8. solairua). Garaje bikoitza (2 auto edo furgoneta). Trasteroarekin. 657-70 57 62

**Elgeta.** Duplex txukuna eta guztiz jantzia. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea eta egongela handia, beheko suarekin. Aukera ona. Prezio negoziagarria. 685-75 18 91

**Irurtzun.** Irurtzunen pisua salgai. 90 m2. Bajera, trastelekua, bi logela, sukaldea jantzita, egongela oso handia eta komuna. Deitu 608-87 20 79ra.

**Gasteiztik 45 minutura.** 3 logela, egongela (beheko sua), sukaldea (sutegi ekonomikoa berria), komuna, ganbara eta ukuikuak. Teilatua oso ongi dago. Baratzeak 150 m ditu eta era ekologikoan landu da. Inguruak mendi eta naturazaleentzat ezin aproposagoak. Gasteiztik 45 minutura eta Lizarratik oso gertu. Egokia asteburu eta oporraldietarako. Ikustea merezi du. Deitu 699-24 86 99 zenbakira.

**Luz Saint Sauveur (Frantzia).** Luz Saint Sauveur Luz-etik 500 metrora, 58 metro koadroko duplexa salgai. 2 logela, komuna, sukaldea, antena parabolikoa. Dena oso egoera onean eta jantzita. 635-74 62 26

**Oñati.** Lope Agirre kalean 110 metro koadroko duplexa salgai. Lau logela, egongela, sukaldea eta bi komun. 659-53 87 62

**Oñati.** 67 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Bi logela, komuna, jangela-egongela, eta sukalde guztiz hornitua. 264.000 euro. 35 metrokoadroko garaje eta trastelekua, aukerakoak. 66.000 euro. 659-72 06 64

**Ordizia.** Kanporaldera ematen duen 80m2ko etxebizitza. 3 gela, egongela, sukalde handia, bainugela, balkoia eta berogailua ditu, garaje itxia aukeran. 186.313 euro. Bizitzen jartzeko moduan. 676-03 06 13

**Tolosa.** (Voith-Gorostidi)Eraikuntza berriko etxebizitza salgai (75m2).Promotorearen bidez zuzeneko salmenta. Sukalde eta 2 komun ekipatuak, egongela handia eta 2 logela.Argitsua. Komuna izan ezik, beste guztia kanpora begira. 2 terraza eder eta baita trasteroa ere. Premiazko salmeta. 658-72 92 88.

**Tolosa.** Tolosako Alde Zaharrean atiko argitsua. 50 m2. Egoera onean. Prezioa 153.260 euro (25.500.000 pta). 943-43 00 20 Zuzeneko salmenta.

**Zumarraga.** 60 metro koadroko etxebizitza salgai. Bi logela, egongela handia, sukaldea eta komuna. Oso eguzkitsua. 162.300 euro. 638-33 03 01

### 102. EROSI

**Arrasate.** Egurrezko egitura eta gutxienez 3 logela dituen etxea erosi nahi dugu. 610 67 12 22 Asier.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Etxebizitza ematen da errentan. 3 logela, sukaldea, komuna eta egongela. Interesatua egonez gero deitu zenbaki honetara: 652-76 79 57

**Conil (Cadiz).** Conilen apartamentua alokatzen da garajea eta pistina dauka. Harremanetarako telefonoa: 653-73 34 57

**Iruñea.** Datorren kurtsorako 3 logelako pisua alokatzen da Iruñean, Unibertsitatetik 5 minutura. Deitu 679-07 36 02 edo 948-56 44 82 telefonoetara.

**Lapuebla de Labarca.** Etxebizitza ematen da errentan uztailerako. Sukaldea, egongela zabala, bi logela, bi komun eta 11,5 metro koadroko terraza. Komunitateko igerilekua eta berdegunea. Harremanetarako telefonoa: 653 71 89 11

**Muxika.** Muxikan pisua alokairuan. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela (+/- 70 m2). Guztiz berriztatua eta bizitzen sartzeko moduan. 600 euro. Harremanetarako telefonoak: 687-99 52 93 edo 615-76 76 73.

**Oropesa (Castellon).** Apartamendua alokatzen da Oropesan. Kokaleku aparta: hondartzatik eta Balneariotik gertu. Bi logela, bi bainugela, sukaldea, balkoia, eta egongela. Garaje eta igerilekuarekin. Harremanetarako telefonoa: 619-18 77 99

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Txikia eta erdigunean. Harremanetarako telefonoa: 943-79 60 89.

**Arrasate.** Apartamendu edo etxebizitza txikia hartuko nuke errentan. Harremanetarako telefonoa: 696 18 56 61

**Bergara.** Bi logelako etxebizitza behar du errentan familia batek. Harremanetarako telefonoa: 650-62 12 94

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Harremanetarako telefonoa: 609-38 86 47

**Donostia.** Pisu bila nabil Donostian, alokairuan. Emakume arduratsua naiz, ume batekin.

**Durango.** Bikote gaztea, Durangaldean alokatzeko pisu bila dabil. Biak lan kontratuarekin. Harremanetarako telefonoa: 685-77 08 63.

**Eskoriatza.** HUHEZIko hiru neska datorren ikasturterako etxebizitza bila ari gara. Harremanetarako telefonoa: 635-20 25 76

**Oiartzun.** Alokatzeko baserri baten bila gabiltza Oarsoaldean. Baratzea lantzeko asmoz eta aukeran, oilotegi bat antolatzeko asmoarekin. Harremanetarako: *irekiateak@hotmail.com*

**Zarautz.** Pertsona garbia eta arduratsua, 34 urte, zarauztarra, errentan etxebizitza bat hartuko nuke Zarautzen. Udan etxea uzteko arazorik ez dut. Hileko 500 euro ordaintzeko prest nago (kopuruaz eta baldintzez hitz egin genezake). Ez dut erretzen. Ez dut animaliarik. Apartamentua txikia izatea ez zait axola. Berria bada hobe. Internet badu hobe. 688-69 63 79.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela bat ematen da errentan unibertsitatetik gertu. Harremanetarako telefonoak: 655 71 77 85 edo 943 79 56 64.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Harremanetarako telefonoa: 619-78 63 41

**Bergara.** Neska gaztea lagun bila etxebizitza edo gela osatzeko. Harremanetarako telefonoa: 671 71 90 03.

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke Bergaran. Harremanetarako telefonoa: 699 09 46 26

**Bergarako** bi gazte etxebizitza osatzeko pertsona baten bila dabiltza. Etxea hiru logelakoa da eta erdialdean dago. Harremanetarako telefonoa: 610 31 02 61.

**Debagoiena.** Laguna behar dut etxea osatzeko. Harremanetarako deitu 639 94 48 65 telefono zenbakira.

**Pisua osatzeko laguna behar da Elorrion.** Lagun bat behar da pisua osatzeko. Harremanetarako telefonoa: 686-99 16 31

**Bergara.** Bergarako 2 gazte etxebizitza bat osatzeko pertsona baten bila dabiltza. Etxea 3 logelakoa da eta erdialdean dago kokatuta. Harremanetarako telefonoa: 610-31 02 61

**Durango.** Gela bat alokagai Durangon. Interesatuek deitu telefono honetara: 630-76 18 28

**Gernika-Lumo.** Gernika-Lumon logela bat dugu errentan. Alokatzen dugun logelak ohe handia dauka eta maiatzetik aurrera egongo da libre. Pisua handia da eta berritua, bi logela gehiago dauzka, bi bainu, sukaldea ta saloi handia. Bertan bi neska bizi dira, eta giro atsegina aurkitukoduzu. Informazio gehiago behar baduzu, deitu arazorik gabe hurrengo telefono zenbakira eta Maiderrengatik galdetu: 678-92 65 20.Mezu bat ere idatz dezakezu hurrengo e-postara: *maider.tomasena@gmail.com*

**Oñati.** Logela ematen da errentan. Harremanetarako telefonoa: 688-61 57 79

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bermeo.** Garajea salgai Kafe Antzokipean. Oinezkoaen sarreratik oso gertu eta maniobra egiteko ezin hobea. Prezio paregabean.

**Donostia.** Antiguon, Errotaburu. Garaje itxia salgai. Kotxea sartzeko eta trastero moduan erabil daiteke. Prezioa: 24.000 Harremanetarako telefonoa: 608-01 96 93

### 203. ERRENTAN EMAN

**Durango.** Garajea alokagai lehen solairuan. Sarbide egokia. Harremanetarako telefonoa: 94-681 77 15 edo 94-620 24 43

### 204. ERRENTAN HARTU

**Oñati.** Garaje itxia behar dut Kale Zaharrean edo aldameneko kaleren batean. Harremanetarako deitu 647 24 40 54 telefono zenbakira.

**Oñati.** Garajea hartuko nuke errentan San Lorentzon. Harremanetarako deitu 665-73 51 59 telefono zenbakira

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Bilbo.** Bulego 2, 30 eta 40 m2, alokatzen ditut Bilbon. Deitu 639-66 36 89 telefonora edo idatzi mezu bat: *miarregui@euskalnet.net*

**Durango.** 72 metro karratu. Lanean hasteko prest. Ekipamendu guztiekin. Egoera onean. Harremanetarako telefonoa: 659-97 25 01

### 303. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Lokala ematen da errentan San Andres auzoan. Musika taldeek entseatzeko aproposa. Harremanetarako deitu 639 15 37 32 telefono zenbakira

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Esperientziadun emakume euskalduna behar da umea goizez zaintzeko. 20:00etatik aurrera deitu. 688 64 39 81.

**BERGARA**

**Zerbitzari euskalduna behar da asteburuetarako.**

**943 76 70 11**

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusi edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetan jarduteko. Harremanetarako telefonoa:659 37 41 95.

**Arrasate.** Emakumea, 51 urtekoa, gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Harremanetarako telefonoa:943 79 60 89.

**Arrasate.** Gizona gertu garbiketak egin, nagusiak zaindu edo sukalde laguntzaile lanetarako. Harremanetarako telefonoa:634 84 41 94.

**Azpeitia.** Azpeitian edo inguruan, denda, kafetegia... edo beste lanen baterako eskaintzen naiz. Harremanetarako telefonoa: 647-08 10 15. Ainhoa.

**Azpeitia.** Esperientziadun neska eskaintzen da herrietako festetan lan egiteko uda osoan zehar. Interesatuak deitu 647-82 58 52 telefonora konpromisorik gabe. Eskerrik asko.

**Azpeitia.** Neska gaztea, euskalduna, haurrak zainduko nituzke, eta behar izanez gero, etxeko lanak egin. Esperientzia dut, izan ere, andereño lanetan aritu izan naiz eta baita haurreskoletan, hezitzaile gisa. Interesatzen bazaizu, deitu: 620-52 38 97

**Azpeitia.** 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientziaduena bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsaldez haurrak prest egongo nintzateke. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 606426414

**Bergara edo Arrasate.** Neska euskalduna gertu pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko. Harremanetarako telefonoa: 943 53 27 17 edo 616 84 13 07.

**Bergara.** Emakume bat gertu dago zaintza lanak egiteko, kanpoan eta orduka. Harremanetarako telefonoa: 697 27 25 20.

**Bergara.** Emakumea gertu zaintza lanetarako, orduka lan egiteko. Esperientziaduna. Rakel. Harremanetarako telefonoa:663 65 76 85.

**Bergara.** Emakumea pertsonak zaindu edo garbitasun lanak egiteko gertu. Geriatria eta elikagaien manipulazioan tituluduna. Harremanetarako telefonoa: 650 62 12 94.

**Bergara.** Nagusiak zaindu edo garbitasun lanak egiteko gertu goizez eta gauez. Harremanetarako telefonoa: 609 23 39 52.

**Bergara.** Neska gertu dago zaintza lanetarako, orduka lan egiteko. Kanpoan zein barruan Esperientziaduna naiz. Iris. Harremanetarako telefonoa:677 73 79 59.

**Debagoiena.** Autocad programarekin marrazkiak eta diseinu mekaniko zein arkitektonikoak egiten ditut. Harremanetarako telefonoa:696 38 10 07.

**Debagoiena.** Emakume euskalduna prest edozein lanetarako. Edozein ordutegi. 646 87 36 57.

---

**1. ETXEBIZITZAK**
- 101. SALDU
- 102. EROSI
- 103. ERRENTAN EMAN
- 104. ERRENTAN HARTU
- 105. ETXEAK OSATU
- 106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
- 201. SALDU
- 202. EROSI
- 203. ERRENTAN EMAN
- 204. ERRENTAN HARTU
- 205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
- 301. SALDU
- 302. EROSI
- 303. ERRENTAN EMAN
- 304. ERRENTAN HARTU
- 305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
- 401. ESKAINTZAK
- 402. ESKAERAK
- 403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
- 501. JASO
- 502. EMAN
- 503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
- 601. SALDU
- 602. EROSI
- 603. ALOKATU
- 603. KONPONDU
- 604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
- 701. SALDU
- 702. EROSI
- 703. EMAN
- 704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
- 801. SALDU
- 802. EROSI
- 803. EMAN
- 804. HARTU
- 805. TRUKATU
- 806. GALDU
- 807. AURKITU
- 808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
- 901. AGURRAK
- 902. HARREMANAK
- 903. DEIAK
- 904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net-en**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.**
**- LOKALA SALDU/ALOKATU.**
**- GARAJEA SALDU/ALOKATU.**
**- MOTORRA SALDU/ALOKATU.**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 20 € (BEZ BARNE).**

**PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)**
**MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 21 € (+BEZ).**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 28 € (+BEZ).**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Ozaeta 105 m². Berritua.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Artekale 60 m². Berritua. 153.258 €.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- Osintxu. 70 m². Igogailuarekin.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Osintxu 64 m². Berritua. 114.192 €.
- Bidekurutzeta 65 m². Berritua. Igogailuarekin.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m². Berritua.
- Zubiaurre 52 m². Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, 196.200€.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- **AUKERA.** Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua. **PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m². Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Aranerreka, 80 m², oso ondo.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 m², berria, garajea eta trastelekua.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,99 m² + ganbara, berritzeko.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Artekale, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m².
- San Antonio, 65 m², eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m², eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.
- Basarte. 69 m². Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m². Apartamentua. Oso ondo.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarerreka, 58 m², aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria.

**Debagoiena.** Emakume gazteak nagusiak edo haurrak zainduko lituzke. 606 72 28 76.

**Debagoiena.** Emakumea etxez etxe pedikura eta manikura egiteko prest. Harremanetarako telefonoa:654 79 07 58.

**Debagoiena.** Emakumea gertu lan egiteko. Deitu 606 64 16 09 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak eta haurrak zaintzeko. Harremanetarako telefonoa: 649 71 95 21.

**Debagoiena.** Erizain laguntzailea gertu umeak eta nagusiak zaintzeko. Harremanetarako telefonoa: 658 03 07 24.

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzeko eta ospitalean gauak egiteko. Harremanetarako telefonoa:637 18 07 23.

**Debagoiena.** Etxeko lanak zein garbiketak egingo nituzke. Baita sukalde laguntzaile ere. Harremanetarako telefonoa: 630 20 12 03.

**Debagoiena.** Gaztea gertu eraikuntzan edo bestelako arlo batean lan egiteko. Deitu 696 48 42 50 telefonora.

**Debagoiena.** Gizona edozein lan egiteko gertu. Harremanetarako telefonoa:645 72 92 87.

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Deitu 689 27 94 21 zenbakira.

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Deitu 689 93 58 41 telefonora.

**Debagoiena.** Ostalaritzan esperientzia duen neska gertu sukaldari lanak egiteko. Deitu 648 75 07 97 zenbakira.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko gertu emakumea. 649 72 00 23.

**Debagoiena.** Tabernari, zerbitzari edo argiketari lan egiteko gertu nago. Wilton. Telefonoa: 638 54 96 72.

**Durango.** Gehiago plantxatzerik ez badozu nahi, deitu iezadazu 620-07 93 77 telefonora.

**Durangaldea.** Umeak zaintzeko prest astean zehar goiz edo arratsaldez. Euskaraz dakit eta Durangon bizi naiz. Harremanetarako deitu 675-70 05 54 telefonora. Marta

**Edozein lan.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu Arrasaten, Aretxabaletan edo Bergaran. Harremanetarako telefonoa: 662 08 22 03.

**Errezil.** Mutil gaztea eskaintzen da, txofer gisa lana egiteko. 27 urte, 4 urteko esperientziarekin txofer gisa kamioiarekin obretan.Kontaktuan jartzeko:692-25 33 39 deitu. Mila esker

**Goierri.** Etxeko lanak egitea gustukoa duen esperientzia duen Goierriko neska bat naiz. Harremanetan jartzeko deitu: Harremanetarako telefonoa: 660-02 85 52

**Hernani.** Haur Hezkuntzan diplomatua naiz. 3 urte eta erdi eman ditut haurreskoletan lanean eta EGA titulua ere badaukat. Haurrak zaintzeko prest nago, Hernani edo inguruko herrietan. Haurrak asko gustatzen zaizkit eta erreferentzi onak dauzkat. Harremanetan jartzeko, deitu: 628-33 31 56

**Mutil gaztea** harategian lan egiteko gertu. Zatikatze lanetan trebea. Gerardo. Deitu 610 91 33 40 edo 943 53 36 72 telefono zenbakietara.

**Neska euskalduna,** arduratsua eta esperientziaduna, haurrak zaintzeko prest. Arratsaldeetan, 13:00etatik aurrera libre nago. Deitu 618 09 47 87 edo 943 78 15 10 zenbakieta.

**Umeen zaintza.** Umeak arratsaldez zaintzeko prest nago. Esperientzia handiko neska. Bergara edo Arrasaten. 650 23 34 98.

**Ondarroa.** Neska gaztea haurrak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko eskaintzen da arratsaldetan. 615-71 62 32

**Sakana.** Plantxa, mekanografiako lanak, garbiketa eta helduen zainketa. Harremanetarako telefonoa: 628-27 11 85 Maribel.

**Zarautz.** Andre euskalduna naiz, etxeko lanetarako prest nago, ostiralerako. Esperientzia handia daukat. Harremanetarako telefonoa: 634-45 91 59.

**Zarautz.** Gizon euskalduna naiz, asteburuetan ere lan egiteko prest nago, edozein lanetarako: jardinero, mahastietan eta abar. 658-73 08 08

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

